



33/2014 FORU DEKRETUA, urriaren 14koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartu eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

HITZAURREA

2014ko urtarrilaren 22an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunean, indarrean jarri zen urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena. Aipatutako foru arauak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak, eta aplikagarri zaie bai 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera lortzen diren errentei eta bai, zergaren aurreko araudian jasotakoarengatik, denboraren arabera irizpideak aplikatuta data horretatik aurrera egotzi beharrekoak direnei ere. Horrez gain, arau berriak abenduaren 26ko 10/2006 Foru Araua indargabetzen du, ordura arte zerga hori arautu duena.

Erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta arauak emateko ahalmena arautzearen, foru arau berriak dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezko xedapen guztiak eman ditzakeela foru araua garatu eta exekutatzeko. Horrez gain, xedatzen du ezen 3/2014 Foru Arau berriaren ezarritakoarekin bat datozen erregelamenduzko arauak indarrean jarraituko dutela lehen aipatutako erregelamenduzko ahalmenak erabiltzen ez diren artean.

Azaldutakoa betez, indarrean mantendu da, behin behinean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Erregelamendu horrek jasotzen duen erregulazioa berrikusi ondoren, eta asko izanik bertan egin beharreko aldaketak eta sartu beharreko eduki berriak, komeni da erreforma hau aurrera eramatea beste erregelamendu bat onartuta.

Hortaz, foru dekretu honen xedea da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendu berri bat onartzea erregelamenduzko garapena 3/2014 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etor dadin.



Horretarako, foru dekretuak artikulua bat baino ez dakar, erregelamendua onartzen duena, baita bi xedapen gehigarri, bi xedapen indargabetzaile eta amaierako hiru xedapen ere.

Xedapenen artean nabarmentzekoa da lehen xedapen gehigarria, 2014ko ekitaldiko eskualdaketetan lortu diren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak finkatzen dituena, bai eta amaierako lehenengo xedapena ere, zeinaren bitartez aldaketak sartzen baitira zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan haren edukia pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauan eta foru dekretu honekin orain onartzen den erregelamenduan egindako erreformara egokitzeko. Gainera, amaierako xedapen horrek 45 bis artikulua gehitzen dio zerga betebeharrak formal batzuk garatzen dituen erregelamenduari. Artikulu horretan jasotakoaren arabera, finantza-entitateak behartuta geratzen dira finantza-kontuei buruzko informazioa ematera eta haien titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza edo nazionalitatea identifikatzera aplikagarriak diren bidezko dilijentzia arauak jarraituz. Horren helburua da elkar laguntzari buruzko araudia sistema global eta estandarizatua oinarritutako informazio truke automatikora egokitzea, kontuan izanik aurreikuspena dela sistema hori ezartzea zerga iruzurra prebenitu eta haren aurka egiteko. Betebeharrak berri hori ekainaren 6ko 410/2014 Errege Dekretuaren bidez onartu da estatuan, eta ahalbidetuko du betetzea bai Espainiako Erresumak eta Amerikako Estatu Batuek, nazioarteko obligazio fiskalak betetzeko eta atzerriko kontuen betebeharrak tributarioen legea (Foreign Account Tax Compliance Act –FATCA) ezartzeko, formalizatu duten akordioak, eta bai etorkizunean formalizatu daitezkeen bestelako akordioak.

Azpimarratzekoa da, halaber, amaierako hirugarren xedapena, bertan esaten baita foru dekretu hau eta haren bidez onartzen den erregelamendua indarrean jarriko direla Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituztela ondorioak. Guztiarekin ere, xedapen horrek ezartzen du zergaren erregelamenduko hamabigarren xedapen gehigarriak, non arautzen baitira jarduera profesionaletatik eratorritako etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak, 2014ko uztailaren 5etik aurrera izango dituela ondorioak. Xedapen horrek, gainera, zehazten du aurreko paragrafoan aipatzen den informazio obligazio berria elkar laguntzari buruzko arau aplikagarrian ezartzen denean izango dela lehenengo aldiz exijigarria.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduak, bere aldetik, zazpi titulu ditu, hamabi xedapen gehigarri eta hamahiru xedapen iragankor.

Erregelamendu berria prestatzeko garaian, aurreko erregelamenduaren egitura eta edukiak errespetatu dira, ahal den neurrian; desegokiak diren edukiak edo 3/2014 Foru Arau berriarekin bat ez datozenak ezabatu egin dira, esate baterako, zeinu, indize eta modulu bidezko zenbatespen objektiboaren araubidearen garapena, langileei akzio edo partaidetzak ematea gauza bidezko lan etekintzat ez hartzeari buruzkoa, eta kreditu entitateetan jarduera ekonomiko bat hasteko gordailuak egiteagatik aplikatutako kenkariarena. Eduki berriak ere sartu dira, batzuk aipatutako foru arauan aurreikusitakoa osatzeko, eta beste batzuk zerga behar den eran garatu ahal izateko, besteak beste hauek: langile lekualdatuen tributazio araubide berezia; jarduera ekonomikoetan zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko araubide berezi berriak; jarduera ekonomikoetan zuzeneko zenbatespen arruntean baterako amortizazioari dagokion garapena; negoziatzeko onartutako baloreetatik datozen irabaziak zergapetzeko hautazko



arubidea; gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen murrizpena; erretiro egoeraren zehaztapena eta murrizpenaren muga aldi berean kapital moduan jasotako prestazioak daudenean; eta enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik aplikatzen den kenkaria.

Horrez gain, erregelamendua sinplifikatzeko, ezabatu egin dira zergaren foru arauan ere agertzeagatik erregelamenduan bikoiztuta zeuden hainbat eduki.

Erregelamenduaren I. tituluan langile lekualdatuei aplikatu beharreko araubide berezia arautzen da, eta esan beharra dago bertan jasotzen den erregulazioa abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako erregelamenduaren jatorrizko bertsioan ageri zen berbera dela (haren edukia 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin indargabetu zen).

Araubide horrekin zuzenean lotuta, bigarren xedapen gehigarriak baldintzak ezartzen ditu araubidea 2011ko abenduaren 31 baino lehen hautatu duten langileek hura aplikatu ahal izan dezaten, eta, orobat, aukera ematen du 2012an eta 2013an lekualdatu diren langileek ere araubide berezi hau aplikatzea hautatzeko. Azkenik, epe berezi bat ezartzen du foru dekretu hau indarrean jarri aurretik lekualdatutako langileek eta 2012an edo 2013an lekualdatutakoek araubidea hautatu dezaten, eta epe hori sei hilabetekoa da, foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

II. tituluak errenta salbuetsiak arautzen ditu.

Atzerrian egindako lanengatik jasotako lan etekinei aplikatzen zaien salbuespenaren esparruan, batetik artikulua edukia hobetzen da teknikoki, eta bestetik ezartzen da gehienez salbuetsi daitekeen zenbatekoaren murrizpena kalkulatzeko zergaldiko urte kopuru osoa hartu behar dela kontuan. Lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten laguntza publikoen salbuespenari dagokionez, eguneratu egiten da salbuetsita dauden laguntzen zerrenda, eta ezabatzen dira dagoeneko jarraikortasunik ez izateagatik indargabetuta daudenak.

III. titulua errentaren zehaztapenari eskainita dago.

Sorreraldia bi urtekoa baino handiagoa duten eta 100eko 60 edo 100eko 50eko integrazio portzentajeak aplikagarri zaizkien zatika jasotako etekinen kasuan, erregelak ezartzen dira, errenta iturri bakoitzerako, integrazio portzentaje horiei kasuan kasu aplikatu beharreko 300.000 euroko muga proportzionalki banatu dadin zatikapen ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoen arabera.

Lan etekin irregularrei 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeekin lotuta aplikagarri zaizkien mugei dagokienez, erregelamenduak foru arauaren 19.2 artikuluan xedatutakoa argitzen du, zehaztuta uzten baitu 300.000 euroko gehieneko zenbatekoa independenteki konputatuko dela hauen artean berezita: lan etekin irregular orokorrak alde batetik, eta gizarte aurreikuspeneko sistema jakin batzuetatik bi urtetik gorako epean eratorritako lan etekinak bestetik.

Jarduera ekonomikoetatik datozen errentei dagokienez, dekretuak aldaketa ugari sartzen ditu, jarraian azaltzen den bezala.



Erregelamenduaren testua egokitzen da, kontuan izanik etekin garbia kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoa dagoeneko desagertuta dagoela, eta zuzeneko zenbatespena dela orain metodo bakarra.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek aplika dezaketen amortizazio askatasunaren erregulaziori amortizazio azkartuaren erreferentzia eta baterako amortizazioari dagokion erregulazioa gehitzen zaizkio. Azken amortizazio metodo honi esker, mikroenpresek batera amortizatu ditzakete ibilgetu materiala, ibilgetu ukiezina eta higiezinetakoa inbertsioak, alde batera utzita eraikinak, garraiobideak eta sozietateen gaineko zergaren foru arauko hamaseigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elementuak. Horretarako, 100eko 25eko portzentajea aplikatu behar diote gisa horretako ondare elementuen zerga balio garbiari, elementu ez-amortizagarrien balioa kontuan hartu gabe.

Argitzen da noiz diren aplikagarriak 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak bi urtetik gorako epean sortutako etekinetan, eta horrela zehazten da portzentaje horiek ez direla aplikagarriak izango etekin horiek erregularki edo ohikotasunez lortzen dituzten jarduera ekonomikoen kasuan.

Zehaztu egiten da gastuek ordainketak eskudirutan egitea mugatzen duen legeria urratzen dutenean, eskudirutan ordaindu ez den zatian bakarrik izango direla ez-kengarriak, eta, beraz, ez-kengarritasuna gastuaren zati horri baino ez dagokio.

Berariaz adierazten da jarduera ekonomikoaren etekin garbi positiboari zergaren foru arauko 25.5. artikuluan jasotakoaren arabera aplikagarri zaion 100eko 10eko murrizpena bateragarria dela zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuarekin.

Modalitate erraztuaren erregela berezien esparruan, garatu egiten dira lehen sektoreari dagozkionak, hain zuzen ere zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarrian jada aurreikusitakoak. Alde horretatik, honako puntuak nabarmendu daitezke: nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan, aplikazio eremu subjektiboa finkatzen da, eta horretarako haien barruan sartzen dira nekazaritzako turismo ostatuko jarduera osagarriak eta produktu naturalak eraldatzeko jarduerak, denak ere ustialekuen titularrek garatuak; baso jardueren kasuan, sarrerei 100eko 65eko portzentajea aplikatzen zaie gastu gisa, eta basoberritze lanak egiten direnean hostozabal autoktonoen espeziekin portzentaje hori 100eko 75eraino igotzen da; baxurako arrantza jardueretan, etekin garbia kalkulatzeko aplikatzen den gastu portzentajea 100eko 90 da. Gainera, baxurako arrantzari dagozkion erregela berezien aplikazioak berekin dakar obligazio erregistralak 2014, 2015 eta 2016ko zergaldietarako sinplifikatzea, bederatzigarren xedapen iragankorrean arautzen den bezala.

Aldi baterako izaeraz ere, seigarren xedapen iragankorrek modalitate erraztuaren erregela bereziak ezartzen ditu, eta horiek aplikagarriak izango dira zergadunentzat baldin eta 2013ko zergaldian etekin garbia zenbatespen objektiboko zeinu, indize edo moduluen modalitatean kalkulatu ondoren 2014ko zergaldian ere hura aplikatzeko beharkizunak betetzen badituzte, hain zuzen ere, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduak aurreikusitakoak. Erregela berezi horiek gehienez 2014, 2015 eta 2016ko zergaldietan aplikatuko dira, eta 2015. eta 2016. urteetan aplikatu



ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da aipatutako erregelamenduan ezartzen ziren magnitude baztertzailak aurreko ekitaldian ez gainditzea.

Izaera orokorrez, aurreko paragrafoan aipatu eta xedapen iragankorrean jasota dauden erregela bereziek sarreren 100eko 65ean kuantifikatzen dute jardueraren gastu osoa. Nekazaritza eta abeltzaintza bezalako sektore kalteberaren kasuan, portzentaje hori igo eta 100eko 75ean uzten da. Gainera, Ogasun eta Finantza Departamentuak bultzatu nahi duen «terminal fiskalaren» sistema ezartzea errazteko, portzentajea 100eko 75ean ere finkatzen da sistema horretara biltzen diren zergadunentzat. Ezarri nahi den «terminal fiskal» hori software informatiko batean oinarritutako fakturazio sistema bat da. Jardueraren barruan egindako fakturak prozesatu, erregistratu eta kudeatzea ahalbidetzen du, eta sistema aplikatzeko baldintza da zergadunak hari atxiki behar direla.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako erregela bereziek berekin dakarte betebeharrak erregistratu eta dokumentalaki sinplifikatzea batetik, eta ordainketa zatikatua murriztu ahal izatea bestetik. Azken hori egingo da baldin eta azken-aurreko urtean jardueraren titularrak pertsona fisikoak izan bada eta soldatapeko langilerik izan ez bada. Murrizpen hori 100eko 50ekoa da 2014ko zergaldiko hirugarren eta laugarren hiru hilabeteetako ordainketa zatikatu eta 100eko 25ekoa 2015 eta 2016ko zergaldietan egin beharreko ordainketetarako.

Jarduera ekonomikoen errenten tratamenduari dagokionez, azkenik, bosgarren xedapen gehigarrian prozedura berezi bat jasotzen da 2014ko ekitaldirako zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aukeratzeko, 2013ko zergaldiko jarduera ekonomikoaren etekin garbia zenbatespen objektiboaren arabera zehaztu duten zergadunentzat. Prozedura horri jarraituz, aukera 2014ko zergaldiko zergaren autolikidazioan ere egin ahal izango da.

Kapital higiezinaren etekinei dagokienez, azpimarratzekoa da, sozietateen gaineko zerga erreformatu eta etxebizitzaren errentamenduari lotutako entitateen araubide berezia indargabetzearen ondorioz eta higiezinaren errentamenduko jardura kualifikatua duten entitateen araubide berezi berria onartu denez, etxebizitzaren kapital higiezinaren etekintzat hartuko da sozietateen gaineko zergaren araubide berezi berria aplikatzen duten entitateei etxebizitzak laga edo alokatzetik eratorritako etekina, sozietateak horiekin etxebizitza errentamenduko eragiketarako egin dituen neurrian, betiere halakotzat hartuta Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 2. artikuluan definitutakoak.

Ondare irabazi eta galeren arloan, negoziatzeko onartutako ondare irabazien tributazioko aukerako araubidea garatzen da. Besteak beste, zehazten da araubide hori aplikatzeko baldintza dela ekitaldian kostu bidez eskualdatutako balore negoziatuen multzoaren eskualdaketa prezioa 10.000 eurotik beherakoa izatea eta, behin araubidea aplikatzea aukeratuz gero, hori aplikatzeko moduko baloreen kostu bidezko eskualdaketa guztiak araubide horretara biltzea. Gainera, argitu egiten da autolikidazio proposamenak bidali ahal izango direla, tributazio araubide hori aplikatzeko.

Ezkontideak banandu edo izateko bikotea desagiteko prozedura batean epaileak hartutako erabakiaren ondorioz zergadunak utzi duen familiaren etxebizitza eskualdatzen denean ohiko etxebizitzaren berrinbertsioko salbuespena egiteari dagokionez, argitu egiten da berrinbertsioa etxebizitzak



familiaren etxebizitzaren izaera duen bitartean egin behar dela eta, gehienez, bi urteko epean horrelako izaera galtzen duenetik aurrera.

65 urtetik gorako pertsonak ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzetik datozen ondare irabazien salbuespena egiteari dagokionez, zehaztu egiten da salbuespena ezin zaiela aplikatu 10/2006 Foru Arauan 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarritako salbuespena aplikatu zuten zergadunei.

IV. tituluan oinarri likidagarri orokorra arautzen da.

Gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpenei eta kontribuzioei lotutako murrizpenei dagokienez, erretiro egoera definitzen da ondorio horietarako, zeren eta zergaren foru arauak murrizpena aplikatzeko aukera kentzen du, bazkidea, partaidea, mutualista edo aseguratua erretiro egoeran aurkitu eta ondorengo zergalditik aurrera.

Gainera, argitu egiten dira bai gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpenari lotutako murrizpena mugatzen duten zirkunstantziak, ekarpena erretiroagatik edo beste arrazoi batengatik kapital moduan prestazio bat kobratzen den ekitaldi berean egiten denean, eta bai muga horien operatiba.

V. tituluan kuotako kenkariak garatzen dira.

Artikulu bakar batean arautzen da desgaitasun eta menpetasun mailaren akreditazioa, zeren eta zergaren foru arau berriak bi zirkunstantziengatik dagokion kenkaria bateratu baitu.

Ohiko etxebizitzako inbertsioagatik egiten den kenkaria indargabetutako erregelamenduan jasotako antzeko moduan garatzen da, 3/2014 Foru Arauak jasotako aldaketek exijitutako aldaketetatik harago.

Enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik egiten den kenkariari dagokionez, espresuki adierazten da zergadunak bere jarduera garatzeko, hala badagokio, enpresaren akzioak edo partaidetzak harpidetzearekin batera egiten duen ezagutza enpresarial edo profesionalen ekarpena ezin izango dela bideratu zergadunaren lan kontratuaren bitartez.

VI. titulua zergaren kudeaketaz aritzen da.

Egokitu egiten da ezkontidearen edo izatezko bikotearen pentsio konpentsagarriak edo seme-alaben alde finkatutakoez bestelako urteko mantenuak jasotzeak dakarren autolikidatzeko betebeharra, zeren eta kontuan hartzeko baldintza moduan jartzen baita jasotzen diren kopuruak jasotzailearentzat lan etekinak izatea eta, azken finean, jasotzailea ordaintzailearekin ez bidezkoa.

Autolikidazio proposamenetan, zergadunak bidalitako proposamenaren aldaketari buruzko erregulazioa sartzten da, eta zehaztu egiten da aldaketa horiek zigor araubideari lotuta gelditzen direla, hala badagokio.

Bestetik, eguneratu egiten da zerga zorraren ordainketa, honez gero zaharkituta dauden alderdiak kenduta.



Forma, kontabilitate eta erregistro arloko betebeharren dagokienez, hiru aldaketa nagusi egin dira aurreko testuan: zenbatespen objektiboaren metodoaren berriazko betebeharrak desagertzen dira; erregulazioa fakturazioari buruzko araudian izandako aldaketetara egokitzen da; eta bi informazio betebeharrak sartzen dira, bata zergaren foru arauaren 89. bis artikuluan jasotako enpresa berrientzat edo sortu berrientzat eta bestea lurralde administrazio publikoentzat horiek emandako laguntza publikoei, prestazioei, diru laguntzei eta kalte-ordainei dagokienez.

Azkenik, VII. tituluan konturako ordainketak arautzen dira.

Arlo horretan, nagusiki aurreko erregulazioari eusten zaio, eta doitu egiten dira 3/2014 Foru Araua onartzearen ondorioz derrigorrezkoak diren alderdiak, hala nola, ordainketa zatikatuetan zenbatespen objektiboari buruzko berezitasunak desagertu egiten da.

Komenigarria da adieraztea zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan jasotako 2014rako tasak 100eko 21ekoak direla, nahiz eta erregelamendu honen artikulatua, aurreko araudian bezala, jarduera ekonomikoen kapital etekinei, ondare irabaziei eta etekinei aplikagarri zaizkien atxikipenen eta konturako sarreraren portzentajeak 100eko 19koak izan.

Gainera, nabarmendu behar da hamargarren xedapen gehigarrian sartzen dela zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen arabera zehazten den etekin garbia duten jarduera ekonomikoen etekinak atxikitzeke betebeharra, lehenago aurreko erregelamenduko artikulatua araututa zegoena. Erregulazioa tokiz aldatzeko arrazoia da Gipuzkoan indarrean dagoen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian jasotako zenbatespen objektiboaren metodoa desagertu izana. Horrenbestez, hondarrezko betebehartzat hartzen da: Gipuzkoako arauditik eta beste bi lurralde historikoetatik desagertu denez, aurrerantzean betebeharra lurralde erkidean gauzatutako jarduera ekonomikoetan egindako eragiketegi dagokienez bakarrik sortuko da.

Aurretik jasotakoa alde batera utzita, eta Ekonomia Itunak xedatutakoari jarraituz, aktibo finantzarioen kontzeptuari eta sailkapenari buruzko artikulua egokitzen da 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, besteak beste, aldatzen duen abenduaren 27ko 1042/2013 Errege Dekretuko amaierako hirugarren xedapenaren bidez sartutako aldaketara. Horrela, etekin mistoko zor publikoari dagokionez, malgutu egiten da etekin esplizituko aktibo finantzarioen araubide fiskalera biltzeko beharkizuna.

Era berean, 2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legean egindako aldaketaren ondorioz Ekonomia Itunak 10. artikuluan jasotakoaren arabera, hamaikagarren xedapen gehigarrian sartzen da loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenei eta sarrerei aplikagarri zaizkion konexio puntua.

Konturako ordainketen gaiarekin bukatzeko, uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuak, hazkundera, lehiakortasuna eta eragimena bultzatzeko zerga neurriei buruzkoak, atxikipen portzentaje murriztu bat ezarri du jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunentzat haien diru sarrerak muga batetik beherakoak direnean. Ekonomia Itunak 8. artikuluan xedatzen duenez, foru aldundiak



behartuta daude lurralde erkidean ezartzen diren atxikipen tasa berberak aplikatzera. Bada, hori aintzat harturik, hamabigarren xedapen gehigarrian 100eko 15eko atxikipen tasa murriztua ezartzen da jarduera profesionalentzat, eta tasa hori aplikagarria izango da baldin eta aurreko ekitaldian zergadunak jarduera horietan lortu dituen etekin garbiak 15.000 eurotik beherakoak badira eta, gainera, etekin horiek jarduera ekonomikoetatik eta lanetik datozen etekin guztien ehuneko 75 baino gehiago badira. Kasu horietan, ez da aplikatuko bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa.

Aurretik aipatutako xedapen gehigarri eta iragankorretan jasotako gaia tratatzean xedapen horiek alde batera utzita, aipatu behar da erregelamendua bi xedapen iragankor sartzen dituela, argitu nahi baita, batetik, zer eragin duten 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera data horren aurretik egindako aukerek eta, bestetik, aurreko ekitaldietatik datozen eta aplikatzeko dauden saldo jakin batzuek.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa jasotzen dena eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua garatzera datorrena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehena. 2014ko ekitaldian aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 45.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 45.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, 2014ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei eguneratze koefiziente hauek aplikatuko zaizkie:

-	Idiak	Ekita	-	Koefizienteak
-	eta aurrekoak	1994	-	1,572
-		1995	-	1,669
-		1996	-	1,608
-		1997	-	1,572



-	1998	-	1,537
-	1999	-	1,495
-	2000	-	1,445
-	2001	-	1,391
-	2002	-	1,342
-	2003	-	1,305
-	2004	-	1,266
-	2005	-	1,226
-	2006	-	1,186
-	2007	-	1,153
-	2008	-	1,107
-	2009	-	1,104
-	2010	-	1,086
-	2011	-	1,053
-	2012	-	1,030
-	2013	-	1,010
-	2014	-	1,000

Guztiarekin ere, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bada, 1995. urteari dagokion eguneratze koefizientea izango da aplikagarria.

Bigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.

Abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari foru araudian egiten zaizkion aipamen guztiak foru dekretu honen bidez onartutako erregelamenduko artikuluei egindakotzat hartuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK.

Lehena. Indargabetzea.

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan, indargabetuta geratuko dira haren bidez onartzen den erregelamenduan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko eta behezagoko xedapen guztiak eta, bereziki, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena eta Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua aldatzen duena.

Bigarrena. Erregelamenduzko beste arau batzuen indarraldia.



Indargabetutako 137/2007 Foru Dekretua garatzeko emandako erregelamenduzko arauak indarrean jarraituko dute, foru dekretu honetan jasotakoaren aurka ez doazen neurrian, harik eta erregelamendu berria garatzeko eman daitezkeen erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

Lehena. Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan:

1. 11.b) artikulua 3. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«3.- Zein modalitate aplikatzen duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoen etekin garbia zehazteko.

Jasota utziko da, baita ere, zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratu den, aukera hori bertan behera utzi den edo modalitate horretatik kanpo geratu den.»

2. 15.3. artikulua c) eta m) letrak honela geratzen dira idatzita:

«c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko, balio erantsiaren gaineko zergan kutxa-irizpidearen araubide berezia hautatzeko, edo balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari uko egiteko.»

«m) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako sarrerak eta atxikipenak autolikidatzeko likidazio-aldia jakinarazteko, dela eragiketa bolumenagatik, dela azken onartutako aurrekontuaren zenbatekoarengatik – azken kasu horretan, atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak herri administrazioak direnean, Gizarte Segurantzaren barne–, hori guztia urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 120.1 artikuluan jasotakoaren arabera.»

3. 16.2. artikulua h) eta l) letrak honela geratzen dira idatzita:

«h) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aukeratzeko, aurreko d), e) eta f) letretan eta foru dekretu honen 15. artikuluko 3. apartatuaren f) eta h) letretan aipatzen diren aukera edo eskaeretan atzera egiteko, eta, orobat, apartatu honetako g) letretan eta 15. artikuluko 3. apartatuko i) letretan aipatzen diren egoeretan izandako aldaketak jakinarazteko.»

«l) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako sarrerak eta atxikipenak autolikidatzeko likidazio-aldia aldatu dela zerga Administrazioari jakinarazteko, dela eragiketa bolumenagatik, dela azken onartutako aurrekontuaren zenbatekoarengatik –azken kasu horretan, atxikitzaileak edo



kontura sartzerako behartutakoak herri administrazioak direnean, Gizarte Segurantzaren barne, hori guztia urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 120.1 artikuluan jasotakoaren arabera.»

4. 40. artikulua b) letra honela geratzen da idatzita:

«b) Pertsona fisikoak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztu berezia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia edo baliokidetasun errekararen araubide berezia aplikatzen duten jarduerengatik, faktura egitea dakarten eragiketengatik izan ezik.

Aurrekoa hala izanik ere, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztura bildutako subjektu pasiboek, hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena betetzen dutenean, egin dituzten ondasun eta zerbitzu eskurapenak adierazi behar dituzte, baldin eta horiek jasotako fakturen erregistro liburuan, hain zuzen ere balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduko 40.1 artikuluan, idatzi beharrekoak badira.»

5. Beste artikulua bat gehitzen da, 45 bis zenbakiduna. Hona hemen bere testua:

«45 bis artikulua. Elkar laguntzaren alorrean finantza-kontuei buruz informatzeko obligazioa.

1. Zergen foru arau orokorraren 1.2 eta 35.1 artikuluetan eta erregelamendu honen 38.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko araudi aplikagarrian ezarritako zirkunstantziak betetzen direnean, finantza-entitateek aitortpen informatibo bat aurkeztu behar dute haietan irekitako finantza-kontuei buruz.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontuei dagokienez, eta elkar laguntzari buruzko araudia aintzat hartuta, finantza-entitateek identifikatu behar dute araudi horretan ezarritakoaren arabera kontu horien titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza edo nazionalitatea. Identifikazio hori egiteko, aplikagarriak gertatzen diren bidezko dilijentzia arauak jarraituko zaie.

3. Eman beharreko informazioan sartuko da elkar laguntzari buruzko araudiak kasuan kasu exijitzen duena, eta horrez gainera, honako hau beti: kontuen identifikazio osoa, eta aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta egonez gero, haien identifikazio fiskaleko zenbakia edo horren antzekoa.

4. Elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko arau aplikagarrian beste arau bat aplikatzeko aukera aurreikusten bada azken hori aldekoagoa izateagatik, zirkunstantzia hori adierazi behar da artikulua honetan hizpide den informazio obligazioa betetzeko unea iritsi baino lehen.

5. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak foru agindu bidez onartuko du bidezkoa den aitortpen ereduak.»

6. 51. artikulua 1. apartatuko a) letraren lehen paragrafoa eta artikulua horren 4. apartatua honela geratzen diren idatzita:



«a) Fede-emaila publikoek, inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituzten entitateek, kreditu entitate eta establezimendu finantzarioek, balore sozietate eta agentziek, gainerako finantza-bitartekariak eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauetan eta arlo honetako xedapenak ezarri dituzten gainerako arauetan xedatutakoarekin bat etorri.»

«4. Aurreko 1. apartatuan aipatutako zergapekoek eragiketetan zeintzuk esku hartu duten jakinarazi behar diote zerga Administrazioari, haien identifikazio osoa emanaz eta datu hauek ere adieraziz: nolako izaeraz esku hartu duten, zer partaidetza portzentaje duten, izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, zerga helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, efektu publiko, balore, titulu eta aktibo mota eta kopurua, eta, azkenik, eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, data eta, halakorik izan bada, etekina edo emaitza.»

7. 58.1 artikuluaren a) letra honela geratzen da idatzita:

«a) Hirugarrenei kapital propioak lagatzeagatik jasotzen diren interesak eta lagapen hori ordaintzeko hitzartzen den beste edozein ordainketa modu – besteren kapitalak erakartzea eta erabiltzea adierazten duten mota guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuta sortutako etekinak barne–, bai eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 35. artikuluan aipatutako gainerako errentak ere, berandutza errekarquak izan ezik.»

8. 59.1. artikuluaren e) eta f) letrak honela geratzen dira idatzita:

«e) Inbertsio kolektiboko erakundeen emaitzak banatuz gero, sozietate kudeatzailea, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituen entitatea edo inbertsio sozietatea. Inbertsio kolektiboko erakundeak atzerrian helbideratuta badaude, entitate merkaturatzailea edo merkaturatzeko ahalmendutako bitartekaria.

f) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzuliz gero, sozietate kudeatzailea, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituen entitatea, inbertsio sozietatea, edo, halakorik bada, eskualdaketan bitartekari lanak egin dituen finantza entitatea. Inbertsio kolektiboko erakundeak atzerrian helbideratuta badaude, entitate merkaturatzailea edo merkaturatzeko ahalmendutako bitartekaria.»

9. 59. artikuluaren 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. 58. artikuluan aipatzen diren errentak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 11. artikuluan eta IV. titulua VI. kapituluko 2. sekzioan araututa dagoen araubidea, errentak esleitzekoa, aplikagarri duten entitateek jasotzen badituzte, eta errentaren zenbatekoa beste estatu kide batean helbideratutako pertsona fisiko bati egotzi ahal bazaio, entitate horiek eman beharko dute informazioa.

Informazioa Europar Batasuneko beste estatu bateko kide egoiliarrei errentak ordaintzean ematea hautatu dezakete entitate horiek. Hautu hori eginez gero,



zerga Administrazioari jakinarazi behar diote, eta administrazioak hautu hori egin izanaren ziurtagiria emango du, entitateak eskatuta.»

10. 66. artikulua h) letra honela geratzen da idatzita:

«h) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak. Beren informazioan mutualistak jaso behar dituzte banan-banan, eta adierazi behar dute haietako bakoitzak zer kopuru ordaindu dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan ezarritakoaren arabera gastu kengarri diren edo zerga-oinarrian murriztu daitezkeen kontingentziak estaltzeko.»

11. 67. artikulua honela geratzen da idatzita:

«67. artikulua. Aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten entitateen informazio betebeharra.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian aipatutako aurrezpen sistematikoko banakako planak merkaturatzen dituzten aseguru entitateek urteko aitorten informatibo bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, eta bertan datu hauek adierazi:

- a) Aseguru-hartzaileen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Aseguru-hartzaileek ordaindutako primen zenbateko osoa, eta lehen primaren ordainketa eguna.
- c) Eskubide ekonomikoak osorik edo partez aurreratuz gero, biziarteko errenta eratzean komunikatutako errenta salbuetsiaren zenbatekoa.
- d) Bizitza aseguru kontratu bat aurrezpen sistematikoko banakako plan bihurtzen bada adierazitako foru arauaren hamabigarren xedapen iragankorren jasotakoaren arabera, aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako datuak emateaz gainera, adierazi behar da xedapen horrek urteko prima gisa ezartzen duen gehieneko muga bete egiten dela.»

12. 80. artikulua 4. apartatua honela geratzen da idatzita:

«4. Behin espedientea bideratuta, eta Ekonomia Itunak 43. artikulua bederatzigarren apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, zergapekoari ebazpen proposamena helaraziko zaio, eta 10 egun naturaleko epea emango zaio, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, zuzenbidean dagokiona alega dezan.

Azkenik, ebazpena emango da eta zergapekoari jakinaraziko zaio. Ebazpen horretan baieztatu edo zuzenduko da zergapekoak aitortutako zerga helbidea, eta adieraziko da zer gertaera edo zirkunstantzia hartu diren kontuan ebazpen hori emateko.»

Bigarrena. Gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio foru dekretu honen bidez onartzen den erregelamendua garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.



Hirugarrena. Indarrean jartzea eta ondorioak.

1. Foru dekretu hau eta erantsitako erregelamendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko dira indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.
2. Aurrekoa gorabehera, erantsitako erregelamenduko hamabigarren xedapen gehigarriak 2014ko uztailaren 5etik aurrera sortuko ditu ondorioak.
2. Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduko 45 bis artikuluan araututako informazio obligazioa, foru dekretu honetako amaierako lehen xedapenaren 5. apartatuan aipatua, exijigarria izango da lehenengo aldiz, elkar laguntzari buruzko kasuan kasuko arau aplikagarrian hala ezartzen denean.

ERANSKINA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ERREGELAMENDUA.

AURKIBIDEA

I. TITULUA LANGILE LEKUALDATUEN ARAUBIDE BEREZIA	18
1. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazio araubide bereziaren edukia.	18
2. artikulua. Iraupena.....	20
3. artikulua. Araubidea hautatzea.	20
4. artikulua. Araubideari uko egitea.	20
5. artikulua. Araubidetik baztertzea.....	21
6. artikulua. Komunikazioak zerga administrazioari eta araubidearen egiaztatzea.....	21
II. TITULUA ERRENTA SALBUETSIAK.....	22
7. artikulua. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik jasotzen diren kalte-ordainak.	22
8. artikulua. Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte edo zientziarekin lotutako sari garrantzitsuak zergan salbuestea.....	23
9. artikulua. Kirolariei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak salbuestea.....	24
10. artikulua. Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotako aparteko haborokinak eta prestazio publikoak salbuestea.	25
11. artikulua. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak salbuestea.	25
12. artikulua. Lurralde mailako herri administrazioen laguntza publikoak salbuestea.	26
III. TITULUA ERRENTAREN ZEHAZTAPENA	27
I. KAPITULUA. LANAREN ETEKINAK	27
13. artikulua. Lokomozio gastuetarako eta mantenu eta egonaldi gastu arruntetarako dietak eta diru-esleipenak.....	28
14. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako lan etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorrerak.....	30
15. artikulua. Lan etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio portzentajeak.	32
16. artikulua. Etekin irregularren muga.	33
17. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio portzentajea aplikatzeko berariazko muga.....	33
II. KAPITULUA. JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINAK	33
1. sekzioa: arau orokorrak.....	33



18. artikulua. Jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementuak	33
19. artikulua. Amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua eta baterako amortizazioa	34
20. artikulua. Eragiketa bolumena	35
21. artikulua. Jarduera ekonomikoetara atxikitako ondare elementuen eskualdaketan lortutako ondare irabaziak kalkulatzeko	35
22. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea	35
23. artikulua. Errentak esleitzen dituzten entitateak mikroenpresatzaile edo enpresa txiki edo ertaintzat hartzea	35
24. artikulua. Jarduera ekonomikoaren etekinak: bi edo bost urtetik gorako epean sortutakoak, denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutakoak, eta zatika jasotakoak	36
25. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak	36
26. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergarekiko koordinazioa	37
2. sekzioa: Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aplikatzea	37
1. azpisekzioa: erregela orokorrak	37
27. artikulua. Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko arau orokorrak	37
28. artikulua. Zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztua hautatzea	37
29. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak	38
30. artikulua. Zuzeneko zerbatespeneko modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren arteko bateraezintasuna	38
2. azpisekzioa: erregela bereziak	39
31. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekin garbia zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak	39
32. artikulua. Baso-jardueren etekin garbia zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak	39
33. artikulua. Baxurako arrantza jardueraren etekin garbia zuzeneko zerbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak	41
III. KAPITULUA. KAPITALAREN ETEKINAK	41
1. sekzioa: Kapital higiezinaren etekinak	41
34. artikulua. Etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak hartzea	41
35. artikulua. Kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak etekinak etxebizitzetatik ez datozenean	42
36. artikulua. Kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen amortizazio gastuak etekinak etxebizitzetatik ez datozenean	43
37. artikulua. Etxebizitzetatik ez datozen kapital higiezinaren etekinak: denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldiaren zehaztapena	43
2. sekzioa: kapital higigarriaren etekinak	44
38. artikulua. Erabilpen partziala aseguru kontratuetan	44
39. artikulua. Errenta geroratuak eratu arte lortutako errentagarritasuna zergapetzea	44
40. artikulua. Erretiro edo elbarritasun prestazioak errenta moduan ematen dituzten aseguru kontratu jakin batzuek bete beharreko baldintzak	44
41. artikulua. Gastu kengarriak kapital higigarriaren zenbait etekinetan	45
42. artikulua. Zergaren foru arauak 37. artikuluan aipatzen dituen kapital higigarriaren etekinak: denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldiaren zehaztapena	45
IV. KAPITULUA. ONDARE IRABAZI ETA GALERAK	46
43. artikulua. Eskurapen balioaren zehaztapena	46
44. artikulua. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabazien hautazko tributazio araubide. Aplikazio eremua	46
45. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik	47
46. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide kopurua, ondarea eta gehieneko partaidetza portzentajea frogatzea	48
V. KAPITULUA. BALORE EDO PARTAIDETZA HOMOGENEOAK	49
47. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneoen kontzeptua	49
VI. KAPITULUA. DENBORAN EGOZTEA	49
48. artikulua. Etekinak denboran egozteak	49
VII. KAPITULUA. GAUZAZKO ERRENTAK	50
49. artikulua. Enpresen jantokiko gastuak, gauzako ordainsariak ez direnak	50
50. artikulua. Langileen seme-alaben haur hezkuntzako lehen ziklora bideratutako kopuruak	50
51. artikulua. Langileak egunean jartzeko, trebatzeko eta birziklatzeko erabilitako kopuruak	51
52. artikulua. Sozietateen sortzaile edo sustatzaileen eskubideak	51
53. artikulua. Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak	51
54. artikulua. Arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko primak heriotza eta elbarritasun kasuan	51
VIII. KAPITULUA. AURREZPENAREN ERRENTA	51



55. artikulua. Aurrezpenaren errenta, eta zergadunarekin lotutako entitateei kapital propioak lagatzeagatik lortutako etekinak.....	51
IV. TITULUA. OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA	52
56. artikulua. Erretiro egoera.....	52
57. artikulua. Aurreikuspen plan aseguratuak.....	52
58. artikulua. Jarduera ekonomikoaren titularrak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak.....	54
59. artikulua. Autolikidazio osagarriak aurkezteko epea, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak baliatzen direnean.....	54
60. artikulua. Prestazioak kapital moduan jasotzen diren zergaldian gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen murrizpena mugatzea.....	55
61. artikulua. Ekitaldiko zerga oinarrian murriztu ez diren soberazko ekarpen eta kontribuzioen tratamendu fiskala.....	55
V. TITULUA KUOTAKO KENKARIAK	55
I. KAPITULUA. KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK	55
62. artikulua. Ondorengo ahaideen kenkaria gurasoak epailearen erabakiz bananduta dauden kasuetan.....	56
63. artikulua. Desgaitasun eta mendetasun maila frogatzea.....	56
II. KAPITULUA. OHIKO ETXEBIZITZA ESKURATZEAGATIK APLIKATZEN DEN KENKARIA.....	57
64. artikulua. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua.....	57
65. artikulua. Etxebizitza ohiko etxebizitzatzat hartzeko aukera, seme-alaben zaintza gurasoek partekatzen dutenean epaiaren erabakiz.....	59
66. artikulua. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuak.....	59
67. artikulua. Etxebizitza kontuak.....	61
68. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik, eta salbuespena berrinbertitzeagatik.....	62
69. artikulua. Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita.....	62
III. KAPITULUA. KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO SORTU BERRIETAN INBERTITZEAGATIK	63
70. artikulua. Enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeko kenkaria aplikatzeko baldintzak.....	63
IV. KAPITULUA. KENKARIRAKO ESKUBIDEA GALTZEA.....	63
71. artikulua. Kenkarirako eskubidea galtzea.....	63
VI. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA	63
I. KAPITULUA. AUTOLIKIDAZIOAK	63
72. artikulua. Autolikidatzeko betebeharra.....	63
73. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.....	64
74. artikulua. Autolikidatzeko betebeharraren kasu bereziak.....	64
75. artikulua. Autolikidazio proposamenak.....	66
76. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.....	66
77. artikulua. Ofiziozko itzulketak.....	67
II. KAPITULUA. BETEBEHAR FORMALAK, KONTABILITATEKOAK ETA ERREGISTRALAK	67
<i>1. sekzioa: zergadunen betebeharrak formalak.....</i>	<i>67</i>
78. artikulua. Betebeharrak formal orokorrak.....	67
<i>2. sekzioa: jarduera ekonomikoaren titularren kontabilitate eta erregistro betebeharrak.....</i>	<i>67</i>
79. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta aplikatzen duten zergadunen betebeharrak.....	67
80. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztura bilduta dauden edo merkataritza izaerarik gabeko jarduera ekonomikoaren egiten duten zergadunen betebeharrak.....	67
81. artikulua. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.....	69
82. artikulua. Erregistro liburuak eramateko beharraren salbuespena.....	70
<i>3. sekzioa: erregistro liburuak eramateko modua eta diligenziatua.....</i>	<i>70</i>
83. artikulua. Liburuak bitarteko informatikoez eramatea.....	70
84. artikulua. Liburuetakoharpenak.....	70
85. artikulua. Erregistro oharpenen epea.....	71
86. artikulua. Elkarri lotu gabeko jarduerak.....	71
87. artikulua. Bateragarritasuna beste liburu batzuekin.....	72
88. artikulua. Erregistro liburuaren diligenziatua.....	72
<i>4. sekzioa: bestelako informazio betebeharrak formalak.....</i>	<i>72</i>
89. artikulua. Bestelako informazio betebeharrak formalak.....	72
90. artikulua. Babespeko ondarearen titular diren zergadunen informazio betebeharrak.....	76



VII. TITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK.....	76
I. KAPITULUA. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. ARAU OROKORRAK.....	77
91. artikulua. Aplikazio eremua.	77
92. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra.	80
93. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.	80
94. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra salbuestea.	81
95. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuak.	83
96. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.	87
97. artikulua. Atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.	87
98. artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreraren denboraren arabera egozpena.	88
II. KAPITULUA. ATXIKIPENEN KALKULUA	88
1. <i>sezioa: lanaren etekinak.</i>	88
99. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.	88
100. artikulua. Atxikipen portzentajeen taula eta aplikaziorako arauak.	89
101. artikulua. Lan errentak jasotzen dituenak bere datuen berri ematea ordaintzaileari.	93
102. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenak zehazteko prozedura berezia, bizilekua aldatzen denean.	94
2. <i>sezioa: kapital higigarriaren etekinak.</i>	95
103. artikulua. Kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.	95
104. artikulua. Aktibo finantzarioen kontzeptua eta sailkapena.	95
105. artikulua. Aktibo finantzarioak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko baldintza fiskalak.	96
106. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen oinarria.	97
107. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gainean atxikitze edo kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.	98
3. <i>sezioa: jarduera ekonomikoen etekinak.</i>	99
108. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.	99
4. <i>sezioa: ondare irabaziak</i>	101
109. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenen zenbatekoa.	101
110. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenaren oinarria.	101
111. artikulua. Atxikitze obligazioaren sorrera.	102
111 bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziei aplikatu beharreko atxikipena.	102
112. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa.	102
5. <i>sezioa: beste errenta batzuk.</i>	103
113. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierrementuak egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.	103
114. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoa.	103
III. KAPITULUA. KONTURAKO SARRERAK.....	103
115. artikulua. Gauza bidezko lan ordainsarien gaineko konturako sarrerak.	103
116. artikulua. Kapital higigarriaren gauza bidezko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.	104
117. artikulua. Jarduera ekonomikoen gauza bidezko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.	104
117. bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabazien gaineko konturako sarrerak.	104
118. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.	104
119. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.	104
IV. KAPITULUA. ATXIKITZAILEAREN ETA KONTURAKO SARRERA EGIN BEHAR DUENAREN BETEBEHARRAK.....	104
120. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.	105
V. KAPITULUA. ORDAINKETA ZATIKATUAK	106
121. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.	107
122. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izaera orokorrean.	107
123. artikulua. Zatikapenaren zenbatekoa aparteko egoerak daudenean.	107
124. artikulua. Autolikidzioa eta ordainketa.	108
125. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.	108
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	108
Lehena. Izatezko bikoteak.	108
Bigarrena. Gazteak emantzipatzeko oinarritzko errentaren salbuespena.	109
Hirugarrena. Arrantza suspertzea.	109
Laugarrena. Partaidetzak inbertsio funts kotizatuetan eta akzioak indizeen arabera kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateetan.	109



Bosgarrena. Aurrezpen sistematikoko banakako planen arteko mobilizazioa.....	109
Seigarrena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorrari lotu gabe dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.....	109
Zazpigarrena. Kapital higigarriaren etekinei, 93.2.b) artikuluan jasotako etekinei –irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozei salbu– eta sariei 2015ean aplikagarri zaien atxikipena eta konturako sarrera tasa.....	111
Zortzigarrena. 2015ean inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu eta itzultzeagatik lortutako ondare irabaziei eta ondasun higiezinen errentamendu eta azpierrementamenduei aplikagarri zaien atxikipeneko eta konturako sarrerako tasa.....	111
Bederatzigarrena. Jarduera profesionalen etekin jakin batzuei 2015ean aplikagarri zaien atxikipeneko eta konturako sarrerako tasa.....	111
Hamargarrena. Zenbatespen objektiboko metodoaren bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipena.....	112
Hamaikagarrena. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak.....	113
Hamabigarrena. Epe luzerako aurrezki planen arteko mobilizazioa.....	114
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	115
Lehen. 1994ko abenduaren 31ren aurretik eskuratutako elementuetatik eratorri diren eta jarduera ekonomiko bati lotuta egon diren ondare irabaziak.....	115
Bigarrena. Langile lekualdatuen araubide bereziaren aldeko aukera.....	115
Hirugarrena. 2014ko urtarrilaren aurretik salbuesita gelditu ziren giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte edo zientziarekin lotutako sari garrantzitsuak.....	116
Laugarrena. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.....	116
Bosgarrena. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aukeratzeko prozedura berezia, beren jarduera ekonomikoen etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez zehaztu zuten zergadunentzat.....	116
Seigarrena. Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikagarri izan zaien zergadun jakin batzuentzako araubide iragankorra.....	117
Zazpigarrena. 65 urtetik gorako pertsonak ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabazien salbuespena.....	119
Zortzigarrena. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.....	119
Bederatzigarrena. Modalitate erraztuaren erregela bereziak aplikatzen dituzten baxurako arrantzako jardueren erregistro betebeharrak.....	119
Hamargarrena. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenei eta ondare irabazien gainekoei buruz sartutako aldaketen araubide iragankorra.....	120
Hamaikagarrena. (<i>Indargabetuta</i>).....	120
Hamabigarrena. 2014ko urtarrilaren Iaren aurretik erabilitako aukerak.....	120
Hamahirugarrena. Aurreko ekitaldietatik datozen eta 2014ko urtarrilaren Iean aplikatzeko dauden saldo jakin batzuen aplikazioa.....	121

I. TITULUA

LANGILE LEKUALDATUEN ARAUBIDE BEREZIA

1. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazio araubide bereziaren edukia.

1. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazio araubide berezia aplikatzeak berekin ekarriko du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga zorra kalkulatzea lurralde espainiarrean lortutako errentak bakarrik kontuan hartuta, betiere Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako jasotako arauak jarraituta, salbu eta aipatu testu bategineko I. kapituluko 5., 6., 8., 9., 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoa.



2. Zehazki, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Araubide berezi hau hautatzen duten zergadunek kargari lotutako errentaren sortzape oso edo partzial bakoitzagatik tributatu behar dute, eta ezin dute haien artean inolako konpentsaziorik aplikatu.

b) Errenta bakoitzaren oinarri likidagarria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 23. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

c) Kuota osoa kalkulatzeko, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 24.1. artikuluan aurreikusitako karga tasak aplikatu behar zaizkio oinarri likidagarriari.

d) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 25. artikuluan aipatzen dituen kenkariak kuota osoari aplikatu ondoren kuota diferentziala aterako da. Aipatutako 25. artikulua b) letran jasotako ondorioetarako, hurrengo 3. apartatuan aipatzen diren konturako ordainketak ez ezik, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kontura ordaindutako kuotak ere izango dira kengarriak.

3. Araubide berezi honen konturako ordainketa gisa egin behar diren atxikipeak eta konturako sarrerak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudian ezarritakoaren arabera egingo dira. Dena den, 95.2.a) artikuluan aurreikusitako zirkunstantziak gertatuz gero, zergadunek zein entitate egoiliarretan edo establezimendu iraunkorretan ematen dituzten zerbitzuak, haien egongo dira behartuta atxikipeak egitera zergadun horiek lurralde espainiarrean lortutako errentei dagokienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako atxikipeak eta konturako sarrerak direla-eta erregelamendu honen 120. artikuluan ezartzen diren obligazio formalak betetzeko, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako aurreikusita dauden aitorten ereduak erabiliko dira.

¹**4.** Araubide berezi hau aplikagarri duten zergadunak behartuta daude pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztera eta sinatzera Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak onartzen duen eredu erabilia. Diputatuak ezarriko du eredu nola, non eta noiz aurkeztu behar den, eta haren edukiak bat etorri behar du ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga autolikidatzeko aurreikusten diren ereduekin.

Autolikidazioa aurkeztearekin batera, zergadunek euren zerga zorra zehaztu behar dute, eta Ogasuneko eta Finantze-tako foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaindu. Eraitza itzultzekoa bada, zergaren foru arauak 111. artikuluan jasotakoaren arabera egingo da itzulketa.

¹ Apartatu hau aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua ordinal lehenaren bi apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



Aurrekoa hala izanik ere, Ogasuneko eta Finantze-tako foru diputatuak foru aginduz erabaki dezake autolikida-tzeko obligazioa ezarri beharrean –apartatu honetako aurreko paragrafoetan aurreikusitako obligazioa– aitortzeko obligazioa ezartzea, eta foru agindu horretan bertan finkatuko da obligazio horren edukia zein den eta zein epetan bete behar den.

5. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek lurralde espainiarrean kokatutako ondasun higiezinak eskualdatzen badituzte eta araubide berezi hau aplikatzea hautatzen badute, eskualdaketa horiei Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 24.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

2. artikulua. Iraupena.

Araubide berezi hau zergadunak zerga egoitza Espainian ezartzen duen zergaldian eta hurrengo bostetan aplikatuko da, 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe.

3. artikulua. Araubidea hautatzea.

1. Araubide berezi honen arabera tributatzea hautatzeko, komunikazio bat zuzendu behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari, sei hilabeteko epean gehienez, zergaren foru arauko 4.3.a) artikuluan aipatzen diren jarduerak hasten diren egunetik. Jardueraren hasiera egunak Espainiako Gizarte Segurantzaren emandako altan agertzen dena izan behar du edo, bestela, jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legeria aplikatzea ahalbidetzen dion dokumentazioan jasotakoa.

2. Hautua egiteko, 6. artikuluan aipatzen den komunikazioa aurkeztu behar da.

3. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak edo konturako sarrerak zehazteko 102. artikuluan ezarrita dagoen prozedura berezira bildu diren zergadunek ezin dute araubide berezi hau hautatu.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, 6.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, egindako aukera onartuko die beste lurralde batetik (foral zein erkidetik) etorrira zerga egoitza Gipuzkoan ezartzen duten zergadunei, baita Gipuzkoarako egoitza aldaketak ondorioak izan aurreko zergaldian kapitulu honetan araututakoaren pareko araubidea aplikatu zaienei ere, araubidean ezarrita dauden gainerako baldintzak betez gero.

2. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, aplikazio epea konputatzeko, kontuan hartu behar dira titulu honetan araututakoaren pareko araubide berezi bat edozein lurraldetan, foral zein erkidean, aplikatu den zergaldi guztiak.

4. artikulua. Araubideari uko egitea.

1. Araubide berezi hau hautatu duten zergadunek uko egin nahi badiote haren aplikazioari, ukoak ondorioak izan behar dituen urte naturala hasi aurreko azaro eta abenduan egin behar diote uko araubideari.

2. Prozedura honi jarraituko zaio uko egiteko:



a) Aurrenik, zergadunak 101. artikuluan aipatzen den datu komunikazioa aurkeztu behar dio atxikitzaileari, eta hark kopia zigilatua itzuli behar dio.

b) Bigarrenik, 6. artikuluan aurreikusitako komunikazioa aurkeztu behar dio zerga Administrazioari, eta aurreko paragrafoan aipatu den komunikazioaren kopia zigilatua erantsi.

3. Araubide berezi honi uko egiten dioten zergadunek ezin izango dute haren aplikazioa berriro hautatu.

5. artikulua. Araubidetik baztertzea.

1. Araubide berezi hau aplikatzea hautatu ondoren, zergadunek ez badute betetzen haren aplikaziorako erabakigarriak diren baldintzetakoren bat, araubidetik baztertuta geratuko dira, eta bazterketak baldintzak betetzen ez diren zergaldian izango ditu ondorioak.

2. Araubidetik baztertuta geratzen diren zergadunek zirkunstantzia horren berri eman behar diote zerga Administrazioari, aplikaziorako baldintzak betetzeari utzi eta hilabeteko epean. Horretarako, 6. artikuluan aipatutako komunikazio eredu erabili beharko dute.

3. Atxikipenak eta konturako sarrerak zergadunak bere atxikitzaileari araubide berezia aplikatzeko baldintzak bete ez dituela jakinarazten dion unetik aurrera egingo dira, aurreko apartatuan aipatutako komunikazioaren kopia erantsita. Aldi berean, 101. artikuluan aurreikusitako datu komunikazioa aurkeztu behar dio atxikitzaileari.

Guztiarekin ere, atxikitzaileak dakienean zergadunak ez dituela betetzen zergaren foru arauak 4.3. artikuluko d), e) edo f) letretan jasotako baldintzak, atxikipenak eta konturako sarrerak ez-betetze horren berri jasotzen duen unetik aurrera egingo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arau jarraituta.

Atxikipen tasa berria 100.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da.

4. Araubide honetatik baztertuta geratzen diren zergadunek ezin izango dute haren aplikazioa berriro hautatu.

6. artikulua. Komunikazioak zerga administrazioari eta araubidearen egiaztageria.

1. Araubidearen aplikazioa hautatzeko komunikazioan datu hauek adierazi behar dira, besteak beste: langilearen identifikazioa, enplegu-emailearena, eta, kasu bada, Espainian egoitza duen enpresa edo entitatearena edo zerbitzuak hartzen dituen establezimendu iraunkorrarena, baita lurralde espainiarrean noiz sartu den eta jarduera zein egunetan hasi den ere. Jardueraren hasiera egunak Espainiako Gizarte Segurantzaren emandako altan agertzen dena izan behar du edo, bestela, jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legeria aplikatzea ahalbidetzen duen dokumentazioan jasotakoa. Egingo den jardueraren azalpen zehatza ere jasoko da.

Era berean, agiri hauek aurkeztu behar dira:



a) Espainian kokatutako enplegu-emaile batekin lan-harreman bat (arrunta zein berezia) edo estatutu-harreman bat hasiz gero, enplegu-emaileak luzatutako ziurtagiria aurkeztu behar da, bertan honako hau adierazita: zergadunarekin lan-harreman bat edo estatutupeko bat hitzartuta dagoela; zergaren foru arauko 4.3.a) artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen direla; Espainiako Gizarte Segurantzaren altan agertzen den jardueraren hasiera eguna; lantokia eta helbidea; lan-kontratuaren iraupena; eta lana Espainian egingo dela.

b) Lekualdaketa enplegu-emaileak agindu badu zerbitzuak Espainian egoitza duen enpresa edo entitate bati edo lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor bati emateko, azken horiek luzatutako ziurtagiria aurkeztu behar da, bertan honako hau adierazita: zerbitzuak haientzat egiten direla; zerbitzu horiek emateko zergaren foru arauko 4.3.a) artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen direla; enplegu-emaileak luzatutako lekualdatze agiriaren kopia; jardueraren hasiera eguna, zeinak izan behar baitu Espainiako Gizarte Segurantzaren altan edo jatorrizko herrialdeko Gizarte Segurantzaren legeria aplikatzea ahalbidetzen duen dokumentazioan ageri dena; lantokia eta helbidea; lekualdatzeko aginduaren iraupena; eta lana Espainian egingo dela.

2. Aurkeztutako komunikazioa aztertu ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuak, hala dagokionean, araubide berezi hau aplikatzea hautatu izanaren frogagiria bidaliko dio zergadunari, 10 egun balioduneko epean gehienez, komunikazioa aurkezten duenetik aurrera.

Frogagiri horren bitartez, zergadunak araubide berezi honetan dagoela frogatuko die atxikipena edo konturako sarrera egitera behartutako pertsona edo entitateei, eta horretarako agiriaren ale bana emango die.

3. 3.4 artikuluan aipatzen diren zergadunen kasuan, hau da, beste lurralde batetik etorriak izanik (foraletik zein erkidetik) zerga egoitza Gipuzkoan ezartzen dutenek, frogatu behar dute Gipuzkoarako egoitza aldaketak ondorioak izan aurreko zergaldian titulu honetan aurreikusitakoaren pareko araubide berezia aplikatu zaiela, eta titulu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen dituztela. Orobat, frogatu behar dute zein lurraldetatik, foral edo erkidetik, aldatu duten egoitza Gipuzkoara.

II. TITULUA

ERRENTA SALBUETSIK

7. artikulua. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik jasotzen diren kalte-ordainak.²

² Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua lehenengo ordinalaren bat apartatuak berridatzi du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



Zergaren foru arauak 9.5 artikuluan aipatzen duen salbuespenaz gozatzeko, ezinbestekoa izango da langileak inolako loturarik ez izatea enpresarekin. Bestelakorik frogatzen ez den artean, presuntzio egingo da lotura hori ez dela apurto baldin eta, kaleratua edo kargugabetua izan ondorengo hiru urteetan, langilea lanean hasten bada berriro enpresa berarentzat edo harekin lotuta dagoen beste batentzat (Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 42.3 artikuluan ezarritako eran egon behar du lotuta).

8. artikulua. Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte edo zientziarekin lotutako sari garrantzitsuak zergan salbuestea.

1. Zergaren foru arauak 9.8 artikuluan aurreikusitako salbuespenaren ondorioetarako, hauek definitzen dira:

a) Giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin lotutako sari garrantzitsua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko herri erakundeek pertsona bati edo batzuei ondasunak edo eskubideak ematea giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren alde egindako lana saritu edo aitortzeko, Gipuzkoa zuzenago eta kohesionatuago bat egiten laguntzen duelako.

b) Literatura, arte edo zientzia sari garrantzitsua: pertsona bati edo batzuei inolako kontraprestaziorik gabe ondasunak edo eskubideak ematea obra literario, artistiko edo zientifikoen balioa edo arlo horietan oro har egindako jarduera edo lanaren meritua saritu edo aitortzeko.

2. Sari-emaileak ezin du saritutako lana edo lanak ekonomikoki ustiatu, ez eta horretan interesatuta egon ere.

Zehazki, sariak ezin du berekin ekarri edo exijitu saritutako lanaren edo lanen gaineko jabetza eskubideak, jabetza intelektual edo industrialetik eratorritakoak barne, lagatzea edo mugatzea.

Obraren zabalkunde publiko hutsak ez du baldintza hori urratuko irabazi asmorik gabe eta gehienez sei hilabeteko epean egiten bada.

3. Deialdia egin aurretik amaitu diren obrei edo egindako jardueri eman behar zaie beti saria.

Bekak, laguntzak eta, oro har, 1. apartatuan aipatu diren obra edo lanak egin aurretik edo egin ahala finantzatzera zuzenduriko zenbatekoak ez dira sari salbuetsizat hartuko.

4. Deialdiak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Parte hartzen dutenei ez zaie inolako mugarik ezarri behar sariaren berezko funtsari ez dagozkion arrazoiengatik.

b) Deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean, deialdia egiten duen autonomia erkidegoko aldizkari ofizialean edo beste lurralde historiko batekoan argitaratu behar da.

Salbuespena eskuratu ahal izateko, atzerrian edo nazioarteko erakundeetan deitzen diren literatur, arte edo zientzia sari garrantzitsuek apartatu honetako a)



letran aipatu den baldintza baino ez dute bete behar, eta, gainera, saria garrantzitsua dela eta iragarkia argitaratu dela frogatu behar dute.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak aitortu behar du. Aitorpena pertsona hauek eskatu behar dute, aurreko apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuta:

a) Oro har, saria deitu duen pertsonak edo entitateak.

b) Saritutako pertsonak, baldin eta 1.b) apartatuko sariak izanik Gipuzkoatik kanpo deitu badira.

Eskaera saria eman aurretik egin behar da edo, bestela, apartatu honetako b) letraren kasuan, saria lortu den ekitaldia autolikidatzeko arauzko epea hasi baino lehen.

Espedientea ebazteko, bidezko irizten diren txostenak eskatu ahal izango dira.

Prozeduraren ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo ahal izango da.

Aitorpenak hurrengo deialdietarako ere balioko du, betiere deialdi horiek ez badute ezertan aldatzen salbuespena emateko kontuan hartutakoa.

Hurrengo deialdiek aldaketaren bat badakarte edo haietan ez bada betetzen salbuespena aplikatzeko exijitutako baldintzetakoren bat, zerga Administrazioak adieraziko du zergadunak salbuespena aplikatzeko eskubidea galdu duela aldaketa gertatu denetik edo betekizuna betetzeari utzi zaionetik.

Aurreko 1.b) apartatuan aipatutako sarien kasuan, salbuespena beste zerga Administrazio batek aitortu badu, aitorpenak Lurralde Historiko honetan izango ditu ondorioak.

6. Behin zerga Administrazioak saria salbuetsita dagoela aitortuta, 5.a) apartatuan aipatzen diren pertsonak edo entitateek datu hauek jakinarazi behar dizkiote zerga Administrazioari, saria eman eta hurrengo hilaren barruan: zein unetan eman den saria, zein sari den eta zeintzuk izan diren saridunak.

Salbuetsizat jo diren sarien salbuespena hurrengo deialdietan ere aplikatzen jarraitzeko, nahikoa izango da aurreko paragrafoan aipatu den komunikazioa aurkeztea sariaren deialdia arautzen duten oinarrien ale bat erantsita. Behar denean, 4.b) apartatuan jasotako baldintza betetzeari buruzko frogagiria ere aurkeztuko da.

9. artikulua. Kirolariei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak salbuestea.

Zergaren foru arauak 9.15 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira, urtean 60.100 euroko mugarekin, kirolariei prestaketa programekin lotuta ematen zaizkien laguntza ekonomikoak, baldintza hauek betetzen badituzte:



- a) Onuradunek goi mailako kirolarien izaera aitorturik izatea aplikaziozko legeriaren arabera.
- b) Laguntza horiek kirol gaietan eskudun diren erakundeek finantzatzea, zuzenean edo zeharka.

10. artikulua. Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan parte hartzeagatik jasotako aparteko haborokinak eta prestazio publikoak salbuestea.

Zergaren foru arauak 9.16 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan dihardutenei ordaintzen zaizkien diru kopuru publikoak salbuetsita egongo dira, gisa honetakoak badira:

- a) Nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan aritzeagatik jasotzen diren aparteko haborokinak, edozein motatakoak.
- b) Nazioarteko bake misioan edo misio humanitarioan jasandako kalte fisiko edo psikikoengatik jasotzen diren kalte-ordainak eta prestazioak.

11. artikulua. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak salbuestea.

1. Zergaren foru arauak 9.17 artikuluan 1. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako, gertatzen bada lanen entitate hartzaileak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituenarekin, ulertuko da lan horiek entitate ez-egoiliarrarentzat egin direla baldin eta, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 44.1 artikuluan jasotakoarengatik, esan baldin badaiteke entitate ez-egoiliarrari talde barruko zerbitzu bat eman zaiola aipatutako zerbitzuak abantailaren bat edo erabilgarritasunen bat dakarkiolako edo ekar diezaiokeelako entitate hartzaileari.

2.³ Atzerrian egindako lanei dagokien ordainsaria kalkulatzeko, kontuan hartuko dira langileak atzerrian benetan eman dituen egunak eta atzerrian egindako lanari dagozkion berariazko ordainsariak.

Atzerrian egindako lanek egunean zenbateko etekinak sortu dituzten kalkulatzeko, lan horiei dagozkien berariazko ordainsariak aparte utzita, proportzionaltasunezko banaketa irizpidea erabiliko da, urteko egun kopurua kontuan hartuta.

3.⁴ Salbuespen hau bateraezina da, atzerrian dauden zergadunentzat, erregelamendu honen 13.A.3.b) artikuluan tributaziotik salbuetsitako

³ Apartatu hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikuluan bigarren ordinalaren bat apartatuak birzenbatu du (lehen 3. apartatua osatzen baitzuen). Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



soberakinetarako jasotzen den araubidearekin, zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak zilegi izango du salbuespen honen ordeztu soberakinen araubidea aukeratzea.

12. artikulua. Lurralde mailako herri administrazioen laguntza publikoak salbuestea.

1. Zergaren foru arauak 9.27 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten laguntza publikoak salbuetsita egongo dira ondoren aipatzen diren xedapenen, laguntza programa zein planen edo haien ordeztuoen babesean ematen direnean:

a) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

b) Eusko Jaurlaritzaren 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, euskal kooperatzaileei Garapenerako Lankidetzeta eta Laguntza Funtzaren kargura emango zaizkion laguntzak arautzen dituena.

c) Eusko Jaurlaritzaren 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak arautzen dituena.

d) Eusko Jaurlaritzaren 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.

e) Eusko Jaurlaritzaren Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herrilan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza neurriei buruzkoa.

f) Eusko Jaurlaritzaren Agindua, 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzkoa.

g) 58/1989 Foru Dekretua, abenduaren 5koa, etxez etxeko zerbitzu intentsiboa arautzen duena.

h) 33/2004 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, egoera zailean dauden haurren babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei buruzkoa.

i) 89/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mendetasun egoeran daudenen familia harreraren programa eta hura garatzeko behar diren diru laguntzak arautzen dituena.

⁴ Apartatu hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikuluen bigarren ordinalaren bat apartatuak birzenbatu du (lehen 4. apartatua osatzen baitzuen). Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



j) 35/1999 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, adingabeen babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei eta gizarte arriskuan dauden pertsona edo familienei buruzkoa.

k) 87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen zuzendutako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituena.

l) 03-086/2013 Foru Agindua, abenduaren 27koa, etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duena.

m) Ibilgailuen parkea berritzeko onartutako 2000 E eta MOTO E planak, 2000 Euskadi Plana, eta beste autonomia erkidegoek helburu berberarekin ezartzen dituztenak edo xede horrekin haien ordezkodirenak.

n)⁵ + Euskadi 09' Plana, leihoak, etxetresnak, galdarak, aurrezpen energetiko handiko turismoak eta altzariak berritzeko Renove Planei dagokienez, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorraren alorreko Renove Plana, bai eta xede berarekin haien ordezkodirenak ere.

ñ) Lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten bestelako laguntza publikoak, haien xedea ondasunak zein instalazioak berritzen laguntzea bada eta aurreko m) eta n) letretan adierazitako helburu bera badute.

o) 31/2012 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzen duena.

p)⁶ ZenN proiektua (energia kontsumo ia deuseza duten auzoak), Europar Batasunaren Ikerketako Zazpigarren Programa Esparruan oinarritua.

2. Era berean, salbuetsita daude beste lurralde historikoek salbuetsitaz hartutako antzeko laguntzak.

III. TITULUA ERRENTAREN ZEHAZTAPENA

I. KAPITULUA. Lanaren etekinak

⁵ Letra hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua lehenerdialak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).

⁶ Letra hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua lehenerdialak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



13. artikulua. Lokomozio gastuetarako eta mantenu eta egonaldi gastu arruntetarako dietak eta diru-esleipenak.

A.- Erregela orokorrak:

1. Lanaren etekintzat hartuko dira bidai gastuetarako dietak eta diru-esleipenak, salbu eta lokomozio gastuak eta ostalaritza establezimenduetan arruntak diren mantendu eta egonaldikoak artikulua honetan ezarritako betekizun eta mugak betetzen dituztenean.

2. Lokomozio gastuetarako diru-esleipenak.

Enpresak edo enplegu-emaileak ematen dituen diru kopuruak fabrika, lantegi, bulego edo lantokitik kanpo lan egin behar duen enplegatu edo langilearen lokomozio gastuak konpentsatzeko badira, zergapetu gabe geratuko dira baldintza eta zenbateko hauetan:

a) Enplegatuak edo langileak garraiobide publikoak erabiltzen baditu, faktura edo agiri baliokidearen bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

b) Beste edozein kasutan, 0,29 euro konputatuko da egindako kilometro bakoitzeko, betiere joan-etorria egin dela frogatzen bada, eta, gainera, bidesari eta aparkaleku gastuak gehitu dira, horiek frogatuz gero.

3. Mantenu eta egonaldi gastuetarako diru-esleipenak.

Jatetxe, hotel eta gainerako ostalaritza establezimenduetako mantenu eta egonaldi gastu arruntak konpentsatzeko enpresak edo enplegu-emaileak ematen dituen diru kopuruak zergapetu gabe daude baldin eta gastuak jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerrian ez beste batean sortu badira.

Hurrengo b) letran aurreikusitako kasuetan izan ezik, toki batera joan eta bertan segidan bederatzi hilabetetik gorako egonaldia egiten bada, diru esleipen horiek ez dira egongo salbuetsita. Ondorio horietarako, oporraldiak, gaixoaldiak eta destino aldaketarik ez dakarten bestelako gorabeherak ez dira deskontatuko.

a) Honako hauek bakar-bakarrik joko dira hotel, jatetxe eta gainerako ostalaritza establezimenduetako mantenu eta egonaldi gastu arruntetarako diru esleipentzat:

1.a Gaua jasotzaileak lan egin ohi duen eta bizi den udalerritik kanpo eman denean, honako hauek:

— Egonaldi gastuengatik, frogatzen diren kopuruak. Merkantzien errepide bidezko garraioan ari diren gidariek ez dute egonaldiko gastuen zenbatekoa frogatu behar eguneko gastua 15 eurotik beherakoa bada, bidaiaria espainiar lurraldearen barruan egin denean, edo eguneko 25 eurotik beherakoa, bidaiaria atzerrira egin denean.

— Mantenu gastuengatik, 53,34 euro egunean, bidaiaria lurralde espainiarraren barruan egin bada, edo 91,35 euro egunean, atzerrira egindako bidaiaria izanez gero.



2.a Gaua jasotzailearen ohiko lantokiari eta bizilekuari dagokien udalerrian eman denean, mantenu gastuetarako esleipentzat hartuko dira ez badira egunean 26,67 eurotik gorakoak, bidaia espainiar lurraldean egin denean, edo 48,08 eurotik gorakoak, atzerrira egindako bidaia denean.

Aire konpainietako hegazkinetako langileen kasuan, mantenurako gastu arruntetarako esleipen gisa hartuko dira eguneko 36,06 euro arteko zenbatekoak, bidaia espainiar lurraldearen barruan egin denean, edo eguneko 66,11 euro artekoak, atzerrira egindako bidaia izanez gero. Egun berean bi zirkunstantziak gertatzen badira, egindako hegaldi kopuru handienari dagokion zenbatekoa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondorioetarako, ordaintzaileak bidaiaren eguna eta tokia frogatu behar ditu, eta haren zergatia edo arrazoia zehaztu.

b) Honako zenbateko hauek zergapetu gabeko dietatzat hartuko dira:

1.a Atzerrian destinaturik dauden Espainiako funtzionario publikoek, indarrean dagoen legeria aplikatuta eta zerbitzu arrazoiengatik ematen diren kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 25. artikuluko 1. eta 2. apartatueta jasotako kalte-ordainaren ondorioz, Espainian destinaturik baleude osotara lortuko lituzketen ordainsarien gainean jasotzen duten soberakina.

2.a Herri administrazioetako langileek, atzerrian destinaturik daudenean, Espainian destinaturik egonez gero soldata, hirurteko, osagarri edo pizgarriengatik lortuko lituzketen ordainsari guztien gainean jasotzen duten soberakina. Ondorio horietarako, ordainsari gaietan eskumena duen organoak erabakiko du zer parekatze dagozkien ordainsarietan langile horiei, Espainian destinaturik baleude.

3.a Beste herri administrazio batzuetako funtzionario eta langileek jasotzen duten soberakina, baldin eta haren helburua destinoa atzerrian duten funtzionarioen ordainsarien araubidea arautzen duen urtarilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuko 4., 5. eta 6. artikuluetan araututakoa bada, edo zenbatekoak ordainsarien parekatzeak gainditzen ez baditu.

Tratamendu hori bera emango zaio, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionario edo kontratupeko langileek, Euskadik atzerrian dituen ordezkarietan destinaturik, jasotzen duten soberakinari.

4.a Enpresetako enplegatuek, atzerrian destinaturik egonik, beraien kargu, lanpostu, kategoria edo lanbidea dela-eta, lansari, eguneko soldata, antzinatasun, aparteko lansari, mozkinena barne, familia laguntza edo beste edozein kontzepturengatik Espainian destinaturik egonez gero osotara lortuko lituzketen ordainsarien gainean jasotzen duten soberakina.

Letra honetan ezarritakoa bateraezina izango da 11. artikulua atzerrian egindako lanengatik jasotako lan etekinetarako aurreikusten duen salbuespenarekin.

4. Aurreko apartatueta aurreikusitako araubidea lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako esleipenei ere aplikatuko zaie, haiek jasotzen dituzten



langileak berariaz kontraturik baldin badaude zerbitzuak emateko lantoki mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetan, eta beti ere, esleipen horiek langilearen ohiko bizilekua ez den udalerrri batera egindako bidaiei badagozkie.

5. Artikulu honetan zergapetu gabe uzten diren zenbatekoak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak berrikus ditzake.

6. Lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako diru-esleipenek artikulu honetan aurreikusitako mugak gainditzen dituztenean, lanaren etekin gisa zergapetuko dira.

B.- Erregela bereziak:

1. Enpresek ez badizkiete ordaintzen lokomozio eta mantenu gastuak zerbitzuak egiten dizkietenei, menpekotasunezko lan harreman batetik eratorritako lan etekinak lortzen dituzten zergadunek, izan dituzten etekin garbiak zehazteko, honako zenbatekoak kendu ditzakete beren sarreretatik, betiere bidaiak egin direla frogatzen badute:

a) Lokomozio gastuengatik:

- Garraiobide publikoak erabiltzen badira, faktura edo agiri baliokidearen bidez frogatzen den gastuaren zenbatekoa.

- Beste edozein kasutan, 0,29 euro egindako kilometro bakoitzeko, gehi bidesari eta aparkaleku gastu, horiek frogatuz gero.

b) Mantenu gastuengatik, 26,67 edo 48,08 euro egunean, bidaiaria lurralde espainiarraren barruan egin den edo atzerrira egin den.

Ondorio horietarako, ezinbestekoa da mantenu gastuak enpresak ordainduta egotea, eta A.3.a) artikuluan jasotakoaren arabera arautuko dira.

2. Lanpostua beste udalerrri batera aldatzeagatik zergadunari ordaintzen zaizkion zenbatekoak zergapetu gabe egongo dira, baldin eta aldaketa horrek egoitza aldatzea badakar, eta zenbateko horiek zergadunak eta haren senideek lekualdaketa izandako bidai eta mantenu gastuetarako eta altzari eta tresnak tokiz aldatzeko bakarrik erabiltzen badira.

3. Zergapetu gabe egongo dira hauteskunde mahaietako kideek jasotzen dituzten zenbatekoak, legeria aplikagarrian xedatutakoaren arabera.

14. artikulua. Denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako lan etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldia.

1. Zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan aurreikusitako 100eko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, ondoko hauek bakarrik hartuko dira denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako lan etekintzat, betiere zergaldi bakar batean egozten badira:

a) Enpresak enplegatuei beste lantoki batera aldatzeagatik ordaindutako zenbatekoak, erregelamendu honen 13. artikuluan aipatzen diren kopuruak gainditzen dituztenean.



b) Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren kalte-ordainak, eta, era berean, umezurtzen eskolek eta antzeko erakundeek ordaintzen dituzten prestazioak, ordainketaren zenbatekoa oroharrekoa denean eta elbarritasunik ez dakarten lesioak direnean.

c) Elbarritasunik ez dakarten lesioengatik edo ezintasun iraunkorragatik, bere maila guztietan, enpresek eta entitate publikoek ordaintzen dituzten prestazioak.

d) Langileen edo funtzionarioen heriotzagatik eta ehorzketa gastuengatik ematen diren prestazioak, bai publikoak, bai umezurtzen eskolek edo antzeko erakundeek, enpresek eta ente publikoek ordaindutakoak, zergaren foru arauak 9.22 artikuluan aipatutako muga salbuetsia gainditzen dutenean.

e) Iraupen mugagabeko lansari osagarri, pentsio edo urtekoak konpentsatzeko edo erreparatzeko ordaindutako zenbatekoak, edo lan baldintzak aldatzeagatik ordaindutakoak.

f) Lan harremana elkarren arteko adostasunez amaitzeagatik enpresak langileei ordaindutako zenbatekoak. Ondorio horietarako, lan harremanekin parekatzen dira harreman estatutarioak eta bazkide langileak eta lan bazkideak euren kooperatibekin lotzen dituztenak.

Dena den, letra honetan aipatutako kontzeptuarengatik jasotzen diren lehen 60.000 euroei 100eko 40ko integrazio portzentajea aplikatuko zaie.

g) Literatura, arte edo zientzia lanengatik emandako sariak, zerga honetan salbuetsita ez daudenean. Ondorio horietarako, ez dira saritzat hartuko jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzetik datozen kontraprestazio ekonomikoak edo haien ordezkotakoak.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, lan etekinak denboran modu irregular nabarmenean lortutakotzat joko dira orobat, eta, horregatik, zergaren foru arauaren 19.2.a) artikuluan ezarritako 100eko 50eko integrazio portzentajea aplikatuko zaie, etekin horiek kopuru handikoak direnean eta zergadunek, egiten duten jardueraren zirkunstantzia objektiboengatik, epe laburretan lortu dituztenean, betiere baldin eta epe hori igaro ondoren jarduera horregatik etekin gehiago lortzerik ez badago.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa Diputatuen Kontseiluak erabakitako eran eta baldintzen arabera aplikatuko da.

3. Lan etekinen sorrereldia bi urtetik gorakoa bada eta etekin horiek zatika jasotzen badira, zergaren foru arauak 19.2.a) artikulua lehen paragrafoan aipatzen dituen integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikagarriak izango dira bakar-bakarrik baldin eta sorrereldiko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen zergaldi kopuruaz zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarreanean.

Etekinak zatika jasotzen diren kasuan aplikagarria gertatzen bada zergaren foru arauak 19.2.a) artikulua hirugarren eta laugarren paragrafoetan aipatzen duen 300.000 euroko muga, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoen arabera.



4. Sorreraldia bi urtetik gorakoa dela jakin arren zenbatekoa den zehazki esaterik ez dagoenenean, etekinak hiru urteko epean sortu direla ulertuko da.

5. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik errenta moduan jasotzen diren kalte-ordainen zenbatekoei ez zaizkie inoiz aplikatuko zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan aipatzen dituen integrazio portzentajeak, zenbateko horiek zerga honetan salbuetsita dauden kopuruak gainditzen dituztenean.

15. artikulua. Lan etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio portzentajeak.

1. Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluan aipatzen diren prestazioak era mistoan jasotzen badira, hau da, edozein motatako errentak kapital moduan kobratutako kopuruarekin batera jasotzen badira, 19.2. artikuluko b) eta c) letretan aurreikusitako portzentajeak kapital moduan kobratzen diren kopuruei bakarrik aplikatuko zaizkie. Zehazki, prestazioak errenta moduan behin kobratzen hasi ondoren errenta modu aurreratuan berreskuratzen bada, azken etekin horri aplikatuko zaizkion integrazio portzentajeak prima edo ekarpen bakoitzak errenta eratzean zeukan antzinatasunaren arabera izango dira.

2. Aseguru kolektiboei egindako ekarpenak prestazioa ezarrita duten pertsonen egotzi bazaizkie, eta zergaren foru arauak 19.2.c) artikuluko a) eta b) letretan jasotako 100eko 25eko portzentajea aplikatzeko, ulertuko da kontratuaren indarraldian zehar ordaindu diren primen aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen dutela baldin eta, aurreneko prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro ondoren primen batez besteko iraunaldia lau urtetik gorakoa izan bada.

Primen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko, prima bakoitza bere iraunaldiko urte kopuruarekin biderkatu behar da, guztiak batu, eta emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatitu.

3. Aseguru kolektiboei egindako ekarpenak prestazioa ezarrita duten pertsonen egotzi bazaizkie, zergaren foru arauak 19.2.c) artikuluko b) letretan ezarritako 100eko 25eko integrazio portzentajea aplikagarria izango da edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutuagatik eta baliaezintasun handiagatik jasotzen diren kalte-ordainetan, kasu bietan pentsio plan eta funtsen araudian ezarritakoaren arabera.

4. Kapital moduan jasotako prestazioak zergaren foru arauak 18.a).6. artikuluan aipatutako bizitza aseguruaren kontratuetatik datozenean eta kontratu horiek aldizkako nahiz aparteko primak dituztenean, etekin osotik prima bakoitzari zein zati dagokion kalkulatzeko, etekin osoa ondorengo zatiduratik ateratzen den haztapen koefizientearekin biderkatuko da:

— Zatikizunean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

— Zatitzailean, prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura jarriko da.



5. Zergaren foru arauak 19.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, entitate aseguratzaileak banaka adierazi behar du ordaindutako kopuruetatik zer zati dagokion prima bakoitzari.

16. artikulua. Etekin irregularren muga.

100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak, zergaren foru arauaren 19. artikuluan aipatuak, aplikatzeko garaian, 300.000 euroko gehieneko kopurua independenteki konputatuko da etekin mota hauen artean:

a) Zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluan aipatzen dituen etekinak.

⁷b) Zergaren foru arauak 19.2) artikuluko b) eta c) letretan aipatzen dituen etekinak.

17. artikulua. Akzioen gaineko aukerak: integrazio portzentajea aplikatzeko berariazko muga.

Zergaren foru arauak 19.2.a) artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusten duen muga eragotzi gabe, lanaren etekinak lortzen badira zergaren foru arauak 20.1 artikuluan aipatutako akzioen gaineko aukerak baliatzeagatik, 20.000 euroko kopurua bider etekinaren sorrereldiko urte kopurua eginez ateratzen den zenbatekotik gorako etekinari ez zaio aplikatuko 100eko 60 edo 100eko 50eko integrazio portzentajea.

Aurreko paragrafoan aipatu den kopurua gainditzen bada, soberakina bere osoan konputatuko da.

II. KAPITULUA. Jarduera ekonomikoen etekinak

1. sekzioa: arau orokorrak.

18. artikulua. Jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementuak.

1. Zergadunak jardueraren xedeetarako erabiltzen dituenak, horiexek bakarrik hartuko dira jarduera ekonomiko bati atxikitako ondare elementutzat.

Ez dira atxikita egongo:

1.a Aldi berean jarduera ekonomikoetarako eta premia pribatueterako erabiltzen direnak. Azken kasu horretan, baina, atxikitat joko dira, erabilera pribatu hori osagarria eta garrantzirik gabea bada. Jarduera ekonomikoa garatzeko eskuratutako ibilgetuko ondasunak premia pribatueterako erabiltzen direla eta erabilera hori osagarria eta guztiz garrantzirik gabea dela joko da, baldin eta

⁷ Letra hau aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluaen ordinal lehenaren hiru apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



zergadunak bere erabilerarako baliatzen baditu egun edo ordu baliogabeetan, jardueraren garapena etenda dagoen bitartean.

2.a Zergadunaren titulartasunekoak izanik ere, zergadunak jarduera ekonomikoari buruz eraman behar duen kontabilitatean edo erregistro ofizialetan agertzen ez direnak, kontrako frogarik ezean.

2. Ondare elementuak jardueraren xederako partzialki baino erabiltzen ez direnean, jardueran benetan erabiltzen den zatia bakarrik egongo da atxikita. Alde horretatik, ondare elementuen zatiak atxikitzat joko dira bakar-bakarrik gainerakoetatik bereizita eta independenteki aprobetxa daitezkeenean. Ondare elementuak zatietan ezin dute inoiz atxikipen partzialik izan.

3. Aurreko 1.1 eta 2. apartatuetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko turismo ibilgailuei, euren atoei, ziklomotorrei eta motozikletei, horiek guztiak zergaren foru arauak 27. artikuluko 5. erregelari aurreikusitakoaren arabera arautuko baitira; orobat, ez zaie aplikatuko ez aisiarako edo ur kiroletako itsasontziei ez aireontziei ere, horiek aipatutako 27. artikuluko 6. erregelaren arabera arautuko direlako.

19. artikulua. Amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua eta baterako amortizazioa.

1. Sozietateen gaineko zergaren foru arauak 21. artikuluan arautzen dituen amortizazio askatasunaz eta amortizazio azkartuaz baliatu daitekeen zenbatekoa eskurapen prezioaren eta gutxieneko amortizazio-kuoten (edo benetan aplikatutako amortizazioen) arteko diferentzia izango da.

Baldin eta zergaldi batean edo bat baino gehiagotan etekin garbia kalkulatu bada zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren arabera edo amortizazio kuoten berariazko kengarritasuna onartzen ez duen metodo edo modalitatearen bat erabilia, zergaldi horietako gutxieneko amortizazioak benetan aplikatutako kuotatzat hartuko dira.

Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira gutxieneko amortizazio-kuotatzat: ondare elementuari, sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoaren arabera, gehieneko amortizazio-alditik eratortzen den koefizientea aplikatuta ateratzen direnak.

2. Zergadunek betetzen dituztenean sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 13. artikulua mikroenpresatzat hartzeko ezartzen dituen baldintzak, zilegi dute foru arau horren 21.3 artikuluan arautzen den baterako amortizazioa aplikatzea. Ondorio horretarako, metodo hau aplikatzen den lehen ekitaldian baterako amortizaziorako hartzen diren ondare elementuen zerga-balio garbia kalkulatzeko, kenketa hau egin behar da: eskurapen prezioa ken gutxieneko amortizazio-kuotak edo, bestela, benetan aplikatutakoak, aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatuak.

Baterako amortizazioa aplikatzeko garaian, kontuan eduki behar dira sozietateen gaineko zergaren foru arauak ezarriak dituen mugak, hain zuzen ere 21. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoan, artikulua 4. apartatuan, eta hamaseigarren xedapen iragankorrean jasotakoak.



20. artikulua. Eragiketa bolumena.

Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa bolumentzat hartuko da zergadunak bere jardueran egindako ondasun entrega eta zerbitzu prestazioengatik lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, betiere balio erantsiaren gaineko zerga eta, halakorik bada, baliokidetasun errekgarga kanpoan utzita.

21. artikulua. Jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuen eskualdaketan lortutako ondare irabaziak kalkulatzea.

Jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuen eskualdaketan lortutako ondare irabaziei aplikagarri bazaie sozietateen gaineko zergaren foru arauak 40.9 artikuluan xedatutakoa, erregela hauek hartuko dira kontuan:

a) Ondare elementuak haiek eskuratu ondorengo momentu batean atxiki bazaizkie jarduera ekonomikoei, sozietateen gaineko zergaren foru arauak 40.9.a) artikuluan jasotakoa geroago aplikatzearen ondorioetarako, haiei zein momentutan geratu diren atxikita, eta une hori hartuko da eskurapen unetzat.

b) Jardueraren etekin garbia kalkulatzeko zergadunek amortizazioen berariazko kenkaririk onartzen ez duen metodo edo modalitateen bat erabili duten zergaldietan, sozietateen gaineko zergaren foru arauak 40.9.a) artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, amortizaziotzat hartuko da dena delako ondare elementuari sozietateen gaineko zergaren araudian ondare elementu horretarako ezartzen den gehieneko amortizazio-alditik eratorritako koefizientea aplikatuzetik ateratzen dena.

22. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.

1. Gertatzen bada zergadunak aldatzen duela zergaren foru arauaren 25.3 artikuluan aurreikusita dagoen berrinbertsioaren aukera sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 36. artikuluan berrinbertsioa egiteko ezarrita dagoen epean, eta eskualdaketan lortutakoaren pareko zenbatekoa ez berrinbertitzea erabakitzen badu, integratu gabeko errenta zatia errenta lortu den zergaldian egotzi behar du.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera zerga oinarrian integratu behar den errentari kuota osoan dagokion zatia, erabaki hori hartzen den zergaldiko kuotarekin batera ordaindu beharko da, berandutza interesak gehituta, hala badagokio.

2. Zergaren foru arauaren 25.3 artikuluko berrinbertsioa ez bada egiten sozietateen gaineko zergaren foru arauak 36. artikuluan ezarritako epean, zergadunak errenta hori lortu den zergaldiari egotzi behar dio integratu gabeko errenta zatia, 100eko 15 gehituta.

Errentari kuota osoan dagokion zatia eta aurreko paragrafoaren arabera zerga oinarrian integratu behar den zenbateko gehigarria, berrinbertitzeko epea amaitzen den zergaldiko kuotarekin batera ordainduko dira.

23. artikulua. Errentak esleitzen dituzten entitateak mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat hartzea.



Sozietateen gaineko zergaren foru arauak mikroenpresei, enpresa txikiei eta enpresa ertainei dagokienez xedatutakoa aplikatzeko, eta arau bereko 13. artikuluan ezarritako betekizunak betetzeko, entitate horiek egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

24. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinak: bi edo bost urtetik gorako epean sortutakoak, denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutakoak, eta zatika jasotakoak.

1. Zergaren foru arauak 25.4 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, jarduera ekonomikoek bi edo bost urtetik gorako epean ematen dituzten etekin garbietarako hurrenez hurren ezarrita dauden 100eko 60 eta 100eko 50eko integrazio portzentajeak ez zaizkie etekinei aplikatuko, horrelako etekinak erregularri eta ohikotasunez lortzen dituen jarduera ekonomiko batetik badatoz, ezta banaka hartuta artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen epealdi batean egindako jardueren ondorioz lortu direnean ere.

2. Zergaren foru arauak 25.4 artikuluan aurreikusten duen 100eko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, jarduera ekonomikoen honako etekin hauek bakarrik hartuko dira denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutakotzat, betiere zergaldi bakar batean egozten badira:

- a) Ibilgetuko elementu amortizaezinak eskuratzeko kapital diru-laguntzak.
- b) Jarduera ekonomikoak uzteagatik jasotako kalte-ordainak eta laguntzak.
- c) Literatura, arte edo zientzia sariak, zerga honetan salbuetsita ez daudenean. Ondorio horietarako, jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak lagatzen dituzten kontraprestazio ekonomikoak edo haien ordezkotzat direnak ez dira sarritzat hartuko.
- d) Iraupen mugagabeko eskubide ekonomikoen ordezkotzat jasotako kalte-ordainak.

3. Jarduera ekonomikoen etekinek bi urtetik gorako epean sortu direnean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauak 25.4 artikuluan aipatzen dituen integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikagarriak izango dira bakar-bakarrik baldin eta sorreraleko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen zergaldi kopuruaz zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarrenean.

4. Sorreraleko bi urtetik gorakoa dela jakin arren zenbatekoa den zehazki esaterik ez dagoenean, etekinak hiru urteko epean sortu direla ulertuko da.

5. Etekinak zatika jaso badira 3. apartatuan aipatzen den bezala, eta horrelakoetan zergaren foru arauak 25.4 artikuluan aurreikusten duen 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoen arabera.

25. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.

Zergaren foru arauak 27. artikuluan 7. erregelaren xedatutakoaren ondorioetarako, bertan aipatzen diren gastuen zati bat bakarrik ordaindu bada eskudirutan, horrela ordaindutako zatia izango da ez-kengarria.



26. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergarekiko koordinazioa.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko zergadunak erabiltzen duen modalitateak ez du eraginik izango zergadun horrek balio erantsiaren gaineko zerga kalkulatzeko aukeratzen dituen araubideei dagokienez.

2. sekzioa: Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzea.

1. azpisekzioa: erregela orokorrak.

27. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko arau orokorrak.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek modalitate erraztua aplikatu ahal izango dute jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Zergadunak egindako jarduera ekonomiko guztien eragiketa bolumena ezin da izan urtean 600.000 euro baino handiagoa.

b) Zergadunak berariaz hautatu behar du modalitate erraztua jarduera guztien etekin garbia zehazteko.

2. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko muga gisa ezartzen den eragiketa bolumena modalitate hau aplikatuko den urtea hasi aurrekoari dagokiona izango da.

Aurreko urtean jarduerarik egin ez bada, etekin garbia modalitate honen arabera kalkulatu da baldin eta zergadunak haren aplikazioa hautatzen badu hurrengo artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurreko urtean jarduera bat hasi bada, dagokion eragiketa bolumena urtera eramango da.

3. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitakoarekin bat eginez, aurreko 1.a) apartatuan aipatutako magnitudea ez da aplikagarria izango honako jarduerak direnean: lehen sektoreko jarduera ekonomikoak, eta zehatzago esanda, erregelamendu honetako 31. artikuluan ezarritakoa aplikatu dezaketen nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak, basogintza jarduerak eta baxurako arrantzari dagozkionak.

4. Zergaren foru arauaren 25.5 artikuluan aurreikusitakoa zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuari ere aplikatu dakioke.

28. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua hautatzea.

1. Modalitate erraztua aplikatu nahi izanez gero, ondorioak izan behar dituen urte naturaleko martxoaren 1a baino lehen hautatu behar da haren aplikazioa. Jarduera bati ekiten bazaio, zentsuan alta emateko aitortzean adierazi behar da hautua.



2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den hautua indarrean egongo da modalitate hau aplika daitekeen hurrengo urteetarako ere, non eta zergadunak, aipatutako 1. apartatuan jasotako epean, ez duen berariaz adierazten bertan behar uzten duela zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzeko hautua.

3. Modalitate erraztua hautatzeko eta hautua bertan behera uzteko, zentsu aitortena bete beharko da, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, eta 32. artikuluan jasotako erregela berezien aplikazioa hautatzera doan momentuan soil-soilik, baso jarduera egiten duen zergadunak ekitaldi bakoitzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztean hautatu ahal izango du zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren aplikazioa.

29. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.

1. Modalitate erraztua aplikagarria izango da zergaren foru arauak 11. artikuluan aipatzen dituen entitateen jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko, baldin eta:

1.a Bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiak zerga honengatik zergapetutako pertsona fisikoak badira.

2.a Entitateak erregelamendu honetako 27. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen baditu.

2. Bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek hautatu behar dute modalitate erraztua aplikatzea edo haren aplikazioa bertan behera uztea, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztiek erregela orokor zein berezi berberak aplikatu behar dituzte etekin garbia zuzeneko modalitate erraztuan zehazteko.

Etekin garbia zuzeneko modalitate erraztuaren arabera kalkulatzeko ez badira arau berberak aplikatu bazkide, oinordeko, erkide edo partaide guztientzat, etekin garbia modalitate erraztuaren erregela orokorren arabera zehaztuko da.

3. Modalitate erraztua aplikatuko da bazkide, oinordeko, erkide edo partaideen banakako zirkunstantziak zeinahi direla ere.

4. Etekin garbia kasu bakoitzean aplikatu beharreko arau edo itunen arabera esleituko zaie bazkide, oinordeko, erkide edo partaideei. Itunen kasuan, Administrazioak haien berri sinesgarririk ez duenean, zati berdinetan esleituko zaie etekina.

30. artikulua. Zuzeneko zenbatespeneko modalitate erraztuaren eta modalitate arruntaren arteko bateraezintasuna.



1. Beren jardueretako baten etekin garbia modalitate arruntaren bidez zehazten duten zergadunek modalitate hori erabiliz zehaztu behar dute gainerako jarduera guztien etekin garbia ere.

Alabaina, urtean zehar jarduera ekonomikoren bat hasi bada, aurreko paragrafoan jasotako erregelak ez du urte horretarako ondorioz izango jarduera horri dagokionez.

2. Modalitate erraztua aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten zergadunek modalitate horren arabera kalkulatu nahi badute haien jardueretako baten etekin garbia, modalitate hori hautatu behar dute jarduera guztietarako.

2. azpisekzioa: erregela bereziak.

31. artikulua. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan zehazteko erregela bereziak.

1. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan xedatutakoa garatzearen, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan zehazteko, zergaren foru arauak 28.1.b) artikuluan aipatzen den portzentajea 100eko 35 izango da.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako, hauek dira nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak: abeltzaintza independentea; ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak; BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubide berezitik baztertutako nekazari eta abeltzainek egiten dituzten lan eta zerbitzu osagarriak; eta BEZaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza araubide berezian sartu daitekeen nekazaritza eta abeltzaintza jarduera.

2. Aurreko 1. apartatuko erregela bereziak nekazaritzako turismo ostatuaren jarduerari ere aplikatuko zaizkio, haren titularrak egiten duen nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jardueraren jarduera osagarri deklaraturik badago.

Ondorio horietarako, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza ustiatzearen titularrek nekazaritzako turismo ostatuaren zerbitzuak egiten badituzte, zerbitzu horiek osagarriak direla frogatu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den departamentuaren ziurtagiria aurkeztuta.

Nekazaritzako turismo ostatuaren zerbitzuak horrelako ziurtagiririk eskuratu gabe egiten dituztenek ezingo dute kalkulatu jarduera horren etekin garbia artikulu honetan aurreikusitako erregela bereziak aplikatuta.

3. Orobat, 1. apartatuko erregela bereziak aplikagarriak izango zaizkie produktu naturalak, landareenak zein animalienak, eraldatu, prestatu edo manufacturatzeko jarduerari, baldin eta Jarduera Ekonomikoen Zergaren Tarifetan industria jarduerari dagokien epigrafe batean alta eman beharra eskatzen badute eta produktu natural horiek lortzen diren ustialekuen titularrek eginak badira.

32. artikulua. Baso-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak.



1. Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzearen, baso-jardueren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan kalkulatzeko, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu behar dira zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta, betiere jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak kanpoan utzita.

b) Gastu kengarriak, frogatzen eta baloratzen zailak direnez, konputatu behar dira aurreko a) letran aipatutako sarreraren 100eko 65eko portzentajea aplikatuta.

Ustiatutako azalerak zergadunak hostozabal autoktonoen espeziekin basoberritzen dituenean, aurreko paragrafoan adierazitako gastu kengarrien portzentajea aurreko a) letran aipatu diren sarreraren 100eko 75 izango da.

Basoberritzea 2. apartatuan ezarritako baldintza eta epeetan egin behar da.

Baztertuta dago beste edozein gastu kengarriztat hartzea.

c) Aurreko letretan aipatutako sarreraren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da.

Bidezkoa den kasuetan, diferentzia horri zergaren foru arauan bi edo bost urtetik gorako sorrereldia duten eta aldizka edo noizean behin lortu ez diren jarduera ekonomikoen etekin garbietarako ezarritako tratamendua emango zaio.

d) Azkenik, gehitu edo kendu behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, kasuan kasukoa, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituta, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

2. Mozketarako baimena ematen denetik hasi eta bi urteko epean basoberritu behar dira ustiatutako azalerak. Basoberritzea justifikatzeko, bidezko ziurtagiria aurkeztuko da, Gipuzkoako Foru Aldundian gaia dela-eta eskudun den departamentuak egina.

Gertatzen bada basoberritzea ez dela egiten ustiatutako azaleraren mozketan egiten den urte berean, aurreko paragrafoan xedatutako eran, zergadunak mozketan egiten den ekitaldiko autolikidazioan adierazi behar du basoberritzea ezarrita dauden baldintzetan eta epeetan egiteko asmoa duela.

3. Ustiatutako azalerak basoberritzeko aurreko apartatuan ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du zergaduna behartuta geratzea autolikidazio osagarri bat aurkeztera 1.b) apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako gastu kengarriaren portzentajea aplikatu den zergaldiari dagokionez.

Ondorio horietarako, zergadunak berriro kalkulatu behar du aurreko paragrafoan aipatu den urtean baso-jarduerak eman duen etekin garbia, eta horretarako, 1.b) apartatuko lehen paragrafoan ezarritako gastu kengarriaren portzentajea aplikatu behar du. Ateratzen den kuotarekin batera, berandutza interesak ere ordaindu beharko ditu.



Autolikidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunean hasi eta ez-betetzea gertatu den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epearen azken egunean amaituko da.

33. artikulua. Baxurako arrantza jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko erregela bereziak.

Zergaren foru arauak hogeita bigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa garatzearen, baxurako arrantza jardueraren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan kalkulatzeko, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu behar dira zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta, betiere jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabaziak eta galerak kanpoan utzita.

b) Gastu kengarriak, frogatzen eta baloratzen zailak direnez, konputatu behar dira aurreko a) letran aipatutako sarreraren 100eko 90eko portzentajea aplikatuta.

Baztertuta dago beste edozein gastu kengarriztat hartzea.

c) Aurreko letretan aipatutako sarreraren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da.

d) Azkenik, gehitu edo kendu behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, kasuan kasukoa, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituta, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

III. KAPITULUA. Kapitalaren etekinak

1. sekzioa: Kapital higiezinaren etekinak.

34. artikulua. Etxebizitzetik datozen kapital higiezinaren etekintzat hartzea.

Zerga honen ondorioetarako, etxebizitzetik datozen kapital higiezinaren etekinen artean sartu behar dira –zergaren foru arauaren 32.1 artikuluan aipatzen dira etekin horiek–etxebizitzen edo haien gaineko gozamen-eskubide errealen titularrek lortzen dituzten etekinak, baldin eta titular horiek etxebizitza hutsen errentamendua sustatzen eta bultzatzen duten Eusko Jaurlaritzaren dekretuetan xedatutakoari atxikita badaude.

Era berean, zergaren foru arauaren 32.1 artikuluan aipatzen diren etekinen artean sartu behar dira sozietateei etxebizitzak lagatzeagatik edo alokatzeagatik eskuratzen diren etekinak, betiere baldin eta sozietate horiek, sozietateen gaineko zergaren foru arauko 115. artikuluan ezarritakoaren indarrez, higiezin errentamenduko jarduera kualifikatua egiten duten entitateentzat ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzen bazaie. Horretarako, baina, ezinbesteko baldintza da entitate horiek etxebizitzen errentamendu eragiketak jasotzea sozietatetik. Ondorio horietarako, etxebizitza-errentamendutzat bakar-bakarrik hartuko da Hiri



Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

35. artikulua. Kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen gastuak etekinak etxebizitzetatik ez datozenean.

Zergaren foru arauak 32.2. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, etekin garbia kalkulatzeko ondoko hauek hartuko dira gastu kengarritzat: etekinak lortzeko beharrezkoak izan diren gastu guztiak eta etekin horien iturburu diren ondasun eta eskubideek erabilera edo denbora dela-eta jasandako narriaduraren zenbatekoa. Guztiarekin ere, gastu kengarrien baturak ezin du ekarri, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

Zehazki, honako hauek sartuko dira aurreko paragrafoan aipaturiko gastuetan:

a) Etekinen iturburu diren ondasunak, eskubideak edo erabilera zein gozamen ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesak, eta gainerako finantzaketa gastuak.

b) Estatuarenak ez diren tributuoak eta errekarquak, bai eta estatuaren tasak eta errekarquak ere, haien izena edozein dela ere, baldin eta konputatutako etekinetan edo haiek sortu dituzten ondasun eta eskubideetan eragiten badute eta zehapen izaerakoak ez badira edo zerga obligazioak berandu betetzeagatik ezarrita ez badaude.

c) Hirugarrenek, zuzeneko edo zeharkako kontraprestazio gisa, edo zerbitzu pertsonalak direla-eta, hala nola administrazio, zaintza, atezaintza edo antzekoak, sortutako zenbatekoak.

d) Errentamendua, azpierrementamendua, lagapena edo eskubideen eraketa formalizatzeko sortutakoak, eta ondasun, eskubide eta etekinen defentsa juridikoak eragindakoak.

e) Artapen eta konponketa gastuak. Ondoko hauek hartuko dira halakotzat:

- Ondasun materialen ohiko erabilera mantentzeko erregulari egiten direnak, hala nola instalazioen margoketa, entokadura edo konponketa.

-Berogailuak, igogailuak, segurtasun ateak eta antzeko elementuak aldatzeko egiten direnak.

Ondasunak handitzeko edo hobetzeko erabilitako kopuruak ez dira kontzeptu honengatik kengarriak izango.

f) Etekinak sortzen dituzten ondasun edo eskubideak aseguratuzeko kontratuengatik, dela erantzukizun zibilekoak, suteen aurkakoak, lapurretakoak, kristal apurketakoak eta antzekoak, ordaintzen diren primak.

g) Zerbitzu eta horniduretan gastatutako kopuruak.

h) Amortizaziorako erabilitako zenbatekoak, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzetan.



36. artikulua. Kapital higiezinaren etekinetatik ken daitezkeen amortizazio gastuak etekinak etxebizitzetatik ez datozenean.

1. Zergaren foru arauak 32.2. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko, gastu kengarritzat hartuko dira ondasun higiezina eta harekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeke erabilitako kopuruak, betiere haien benetako balio-galerari erantzuten badiote.

2. Ulertuko da amortizazioek benetako balio-galerari erantzuten diotela baldin eta:

a) Ondasun higiezinaren kasuan, urtean amortizatutako kopurua ez bada eskurapen balioari 100eko 3 aplikatuta ateratzen dena baino handiagoa, lurzoruaren balioa zenbatu gabe.

Lurzoruaren balioa zein den ezagutzen ez bada, ordaindutako eskurapen kostua lurzoruaren eta eraikuntzaren urteko balio katastralen artean hainbanatuz kalkulatu da.

b) Ondasunak higigarriak direnean, urtebete baino gehiago erabili eta higiezinarekin batera laga daitezkeenak: urtean amortizatutako kopuruak ez badu gaintzen ordaindutako eskurapen kostuei sozietateen gaineko zergaren araudian aipatutako gehieneko amortizazio-aldietatik ondorioztatzen diren gutxieneko koefizienteak aplikatuta ateratzen den emaitza.

Egiten diren amortizazioen batura ezin da inoiz izan dena delako ondare elementuaren eskurapen balioa baino handiagoa.

3. Etekinak sortzen badira haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealean edo ahalmenen titulartasunarengatik, ordaindutako eskurapen kostua amortizatu daiteke.

Amortizazioa, horrelakoetan, erregela hauen emaitza izango da:

a) Eskubidea edo ahalmena iraupen jakinekoa denean, amortizazioa kalkulatu da eskubide edo ahalmenaren eskurapen kostua iraupen urte kopuruaz zatituta.

b) Eskubidea edo ahalmena biziartekoa denean, amortizazioa kalkulatu da ordaindutako eskurapen kostuari 100eko 3ko portzentajea aplikatuta.

Egiten diren amortizazioen batura ezin da inoiz izan dena delako ondare elementuaren eskurapen balioa baino handiagoa.

37. artikulua. Etxebizitzetatik ez datozen kapital higiezinaren etekinak: denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldiaren zehaztapena.

1. Zergaren foru arauak 30.3 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusten duen 100eko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, jarraian aipatzen direnak eta horiek bakarrik joko dira denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako kapital higiezinaren etekintzat, betiere zergaldi bakar batean egozten badira:



a) Negozio-lokalen errentamendu kontratua eskualdatu edo lagatzeagatik lortutako kopuruak.

b) Higiezinan eragindako kalteak direla-eta errentari, azpierrenerari edo lagapen-hartzailearengatik jasotako kalte-ordainak.

2. Zergaren foru arauak 32.2 artikuluan aipatzen dituen kapital higiezinaren etekinek bi urtetik gorako sorrereldia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauaren 30.3 artikuluko lehen paragrafoan ezarritako integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikatuko dira, baldin eta sorrereldiko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen zergaldi kopuruaz zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarrean.

3. Sorrereldia bi urtetik gorakoa dela jakin arren zenbatekoa den zehazki esaterik ez dagoenean, etekinak hiru urteko epean sortu direla ulertuko da.

4. Etekinak zatika jaso badira 2. apartatuan aipatzen den bezala, eta horrelakoetan zergaren foru arauak 30.3 artikuluan aurreikusten duen 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoen arabera.

2. sekzioa: kapital higigarriaren etekinak.

38. artikulua. Erabilpen partziala aseguru kontratuetan

Aseguru kontratuetan erabilpen partziala egiten denean, kapital higigarriaren etekina kalkulatzeko ulertuko da berreskuratutako kopurua lehenbizi ordaindutako primei dagokiela, haien errentagarritasuna barne.

39. artikulua. Errenta geroratuak eratu arte lortutako errentagarritasuna zergapetzea.

Zergaren foru arauak 36.1.d) artikulua lehen paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, errenta geroratuak eratu arte lortutako errentagarritasuna erregela hauen arabera zergapetuko da:

1.a Errentagarritasuna eratzen den errentak egun duen balio finantzario-aktuarialaren eta ordaindutako primen zenbatekoaren arteko aldea izango da.

2.a Errentagarritasun hori linealki banatuko da biziarteko errenta kobratzen den lehenbiziko 10 urteetan. Errenta aldi baterakoa bada, linealki banatuko da iraupen urteen artean, 10 urtez gehienez.

40. artikulua. Erretiro edo elbarritasun prestazioak errenta moduan ematen dituzten aseguru kontratu jakin batzuek bete beharreko baldintzak.

Zergaren foru arauak 36.1.d) artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

1.a Prestazioak jasotzea ekar dezaketen kontingentziak Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002



Legegintzako Errege Dekretuaren 8.6 artikuluan aurreikusitakoak izango dira, plan horietarako ezarritakoren arabera.

2.a Aseguru kontratuaren horniduretan mugimenduak izan direla joko da baldin eta Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eta hura garatzen duen araudian eskubide ekonomikoez baliatzeko ezartzen dituzten mugak betetzen ez badira, enpresen pentsio konpromisoak gauzatzeko aseguru kolektiboetarako dagokienez.

41. artikulua. Gastu kengarriak kapital higigarriaren zenbait etekinetan.

Kapital higigarriaren etekina laguntza teknikoa emateagatik, ondasun higigarri, negozio edo meategiak errentan emateagatik edo azpierrengandik egiteagatik lortzen direnean –kanpoan uzten dira etxebizitzaren azpierrengandik, 39.2 artikuluko hirugarren paragrafoan aipatuak–, zergaren foru arauaren 39.2 artikuluan aipatzen den etekin garbia kalkulatzeko, gastu kengarritzat hartuko dira erregelamendu honen 35. eta 36. artikuluetan ezarritakoak eta, horiez gainera, behar bezala justifikatuta dauden kobrantza zalantzagarriko saldoak.

Honako kasuetan egongo dira behar bezala justifikatuta kobrantza zalantzagarriko saldoak:

- Zorduna konkurtso egoeran dagoenean.

- Zergadunak kobratzeko egin duen lehen kudeaketatik zergaldiaren amaiera bitartean sei hilabete baino gehiago igaro denean eta kreditua berritu ez denean.

Kobrantza zalantzagarriko saldo bat kenkaria egin ondoren kobratzen bada, sarrera gisa konputatuko da kobratzen den ekitaldian.

Gastu kengarrien baturak ezin du inoiz ekarri, lehen paragrafoan aipatutako negozio juridiko bakoitzerako, etekin garbia negatiboa izatea.

42. artikulua. Zergaren foru arauak 37. artikuluan aipatzen dituen kapital higigarriaren etekinak: denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako etekinak, zatika jasotako etekinak, eta sorreraldiaren zehaztapena.

1. Zergaren foru arauak 39.3 artikuluan lehen paragrafoan aurreikusten duen 100eko 50eko integrazio portzentajea aplikatzeko, jarraian aipatzen direnak eta horiek bakarrik joko dira denboran zehar modu irregular nabarmenean lortutako kapital higigarriaren etekintzat, betiere zergaldi bakar batean egozten badira:

a) Errentamendu kontratua eskualdatu edo lagatzeagatik lortutako zenbatekoak.

b) Errentamendu kasuetan, kalteak direla-eta errentariarengandik edo azpierrengandik jasotako kalte-ordainak.

2. Kapital higigarriaren etekinek bi urtetik gorako sorreraldia dutenean eta zatika jasotzen direnean, zergaren foru arauaren 39.3 artikuluko lehen paragrafoan ezarritako integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikatuko dira,



baldin eta sorrereldiko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen zergaldi kopuruaz zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarreanean.

3. Sorrereldia bi urtetik gorakoa dela jakin arren zenbatekoa den zehazki esaterik ez dagoenean, etekinak hiru urteko epean sortu direla ulertuko da.

4. Etekinak zatika jaso badira 2. apartatuan aipatzen den bezala, eta horrelakoetan zergaren foru arauak 39.3 artikuluan aurreikusten duen 300.000 euroko muga aplikatu behar bada, muga hori proportzionalki banatuko da zatikapen ekitaldi bakoitzean jasotako zenbatekoen arabera.

IV. KAPITULUA. Ondare irabazi eta galerak

43. artikulua. Eskurapen balioaren zehaztapena.

1. Eskualdatutako ondare elementuen eskurapen baliotik amortizazio kengarrien zenbatekoa kendu behar da, halakorik baldin badago, eta gutxieneko amortizazioa konputatu behar da beti, amortizazio hori gastutzat hartu edo ez.

Ondorio horietarako, kopuru hau hartuko da gutxieneko amortizaziotzat: ondare elementuari sozietateen gaineko zergaren araudian aipatutako gehieneko amortizazio-aldiari dagokion portzentajea, edo kasuan kasuko portzentaje finkoa, aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

2. Ondare elementuak eskualdatu badira zergaren foru arauko 26. artikulua aipatzen duen desafektazioa egin eta gero, eskurapen balioa eguneratuko da desafektazioaren datari dagokion eguneratze-koefizientea aplikatuta.

3. Ondare irabazien edo galeren zenbatekoa zergaren foru arauak 47. artikuluan ezartzen dituen balorazio arau bereziak aplikatuz zehazten denean, aplikatu behar diren eguneratze koefizienteak eskurapen balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar diren zenbateko positiboak eta negatiboak gertatu diren urteetakoak izango dira. Koefiziente horiek aipatutako foru arauaren 45.2 artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatuko dira.

44. artikulua. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabazien hautazko tributazio araubide. Aplikazio eremua.

1. Zergaren foru arauak hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz, foru arau horren 47.1.a) artikuluan aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek hautatu dezakete artikulua horretan eskualdaketa ondare irabazia kalkulatzeko xedatutakoa aplikatzea edo, bestela, eskualdaketa balioari ehuneko 3ko karga berezia aplikatzea, betiere baldin eta ekitaldian zehar kostu bidez eskualdatutako horrelako balore guztien eskualdaketa balioa 10.0000 euro baino txikiagoa bada.

Karga berezia aplikatzea hautatuz gero, karga hori aplikatuko zaie 47.1.a) artikuluan aipatutako baloreen kostu bidezko eskualdaketa guztiei, hain zuzen ere zergadunak ekitaldiaren barruan egindakoei.



2. Zergaren foru arauak hogeigarren xedapen gehigarrian aipatzen duen karga berezia aplikatzeko, eskualdaketa baliotzat hartuko da zergaren foru aruaren 47.1.a) artikuluan ezarritako erregelak aplikatuzetik ateratzen dena.

3. Zerga Administrazioak zilegi izango du autolikidazio proposamenak bidaltzea haietan zergaren foru arauak hogeigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuta. Ondorio horietarako, bidalitako autolikidazio proposamena izenpetzeak edo berresteak berekin ekarriko du ulertzea zergadunak tributazio mota hau berariaz onartzen duela.

45. artikulua. Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziaz zergapetu gabe geratuko dira, baldin eta eskualdaketa lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat erosteko berrinbertitzen bada artikulua honetan ezarritako baldintzetan. Eskualdatutako etxebizitza erosteko zergadunak besteren finantzaketa erabili behar izan badu, lortutako zenbateko osotzat hartuko da, ondorio horietarako eta ez bestetarako, eskualdaketa unean amortizatzeke dagoen maileguaren tronkoa eskualdaketa baliotik gutxituta ateratzen dena.

Ondorio horietarako, etxebizitza birgaitzea erosketarekin parekatzen da, zergaren foru arauak 87.6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Etxebizitza ohikotzat hatzeko, zergaren foru aruaren 87.8 artikuluan eta erregelamendu honen 64. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Orobat, familiaren etxebizitzaren eskualdaketa lortutako ondare irabaziaz zergapetu gabe gera daitezke baldin eta, etxebizitza hori aurreko momentu batean zergadunaren ohiko etxebizitza izan ondoren, zergadunak bertan bizitzeari utzi badio senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean epaileak hala erabaki duelako.

Apartatu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, eskualdaketa egin behar da etxebizitza familiaren etxebizitzatzat hartzen den bitartean, eta, gehienez ere, bi urteko epean izaera hori galtzen duenetik aurrera.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, familiaren etxebizitzatzat hartuko da ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak eta, halakorik bada, ondorengo ahaideek, bizitzeko erabiltzen dutena, senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean epaileak hala erabaki eta gero.

3. Salmentan lortutako zenbateko osoa bi urteko epea igaro aurretik berrinbertitu behar da, eskualdaketa egin den egunetik aurrera, aldi bakarrean edo ondoko ondoko alditan.

Salmenta epeka edo prezio geroratuaz egiten denean, berrinbertsioa epe barruan egin dela ulertuko da baldin eta epeen zenbatekoa adierazitako helbururako erabiltzen bada epeak jasotzen diren zergaldiaren barruan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada salmentaren urte berean egiten, zergadunak, ondare irabazia lortzen den



ekitaldiko autolikidazioa egitean, agerian utzi behar du adierazitako baldintza eta epeetan berrinbertitzeko asmoa duela.

Era berean, salmentan lortutako zenbatekoek berrinbertsioagatik salbuespenerako eskubidea emango dute baldin eta salmenta egin baino bi urte lehenagoko epean erositako ohiko etxebizitza berri baten prezioa ordaintzeko erabiltzen badira.

4. Berrinbertsioaren zenbatekoa salmentan lortutakoa baino txikiagoa denean, artikulua honetako baldintzetan inbertitutako kopuruari dagokion ondare irabaziaren zati portzionala bakarrik salbuetsiko da zergatik.

5. Artikulu honetan ezartzen diren baldintzetako edozein ez betetzeak dagokion ondare irabazia zergapetzea ekarriko du berekin.

Horrelakoetan, zergadunak ondare irabazia lortu den urteari egotziko dio salbuetsi ez den zatia, eta horretarako, autolikidazio osagarria egingo du, dagozkion berandutza interesak sartuta. Autolikidazio osagarria aurkezteko epea baldintzak bete ez diren egunetik ez-betetze hori gertatu den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu bitartekoa izango da.

46. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide kopurua, ondarea eta gehieneko partaidetza portzentajea frogatzea.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeek sozietate gisa eratuta daudenean zergaren foru arauaren 48. artikulua arabera izan behar duten gutxieneko akziodun kopurua honela zehaztuko da:

a) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituen erakundeak direnean (zergaren foru arauaren 48.1 artikuluan aipatuak), hartuko da kasuan kasuko erakundeak, eskualdaketa edo itzulketaren aurretik, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak xedatutakoa betez Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari azken hiru hilekoari buruz bidalitako txostenean agertzen den akziodun kopurua.

b) Zergaren foru arauko 48.2 artikuluan aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeak direnean, akziodun kopurua izango da inbertsio kolektiboko erakundeak edo haren entitate kudeatzaileak horretarako izendatu duen entitate merkaturatzaile bakar batek, egoitza Espainian daukanak, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari eskualdaketa edo itzulketaren aurretik atal edo azpifunts bakoitzari buruz bidali dion urteko azken komunikazioan ageri dena. Aurrekoaren ondorioetarako eta hurrengo apartatuan xedatutakoari begira, komunikazio horrek datu hauek jaso behar ditu: atal edo azpifunts bakoitzeko akziodun kopurua, erakunde, atal edo azpifuntsaren ondare osoa, eta aurreko datuen data. Komunikazioak urtebeteko balioa izango du gehienez, aipatutako datatik aurrera.

Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak jendaurrean jarriko du informazio hori, eta letra honetan aipatutako informazioaren beharkizun teknikoak eta komunikazio prozedurak zehaztuko ditu.

2. Zergadunek aplikatu nahi badute zergaren foru arauak sozietate izaera duten inbertsio kolektiboko erakundeek esku-hartutako eragiketarako 48. artikuluan



ezartzen duen gerorapen araubidea, agiri bidez adierazi behar diete eskualdaketa, itzulketa, erosketa edo harpidetza eragiketetan bitartekari diren entitateei eragiketa egin aurreko hamabi hilabeteetan ez dutela eduki 100eko 5etik gorako partaidetzarik inbertsio kolektiboko erakundearen kapitalean. Entitate horiek zerga Administrazioaren esku gorde behar dute zergadunek jakinarazitako dokumentazioa, zerga betebeharrak preskribitzeko epea amaitu arte.

V. KAPITULUA. Balore edo partaidetza homogeneousak

47. artikulua. Balore edo partaidetza homogeneousen kontzeptua.

Zerga honen ondorioetarako, ez beste ezertarako, balore edo partaidetza homogeneousak dira jaulkitzaile batengandik finantza eragiketa berean eta xede berberarekin, baita finantzaketa modu sistematikoan lortzea ere, datozenak, baldin eta haien izaera eta eskualdaketa araubidea berberak badira, eta titularrei, funtsean, antzeko eskubide eta betebeharrak egozten badizkiete.

Dena den, balore multzo baten homogeneousotasuna ez da eraginda gertatuko haien artean diferentziak ageri direnean zenbateko unitarioan; baloreak zirkulazioan jartzeko, materiala entregatzeko edo prezioak finkatzeko datetan; haiek merkaturatzeko prozeduretan, inbertsiogile kategoria jakinentzako tarte edo blokeen existentzia barne; edo bestelako alderdi osagarritan. Zehazki, jaulkipena hainbat epealditan zatikatzeak edo zabalkuntzak aurreikusteak ez du eraginik izango homogeneousotasunean.

VI. KAPITULUA. Denboran egozteak

48. artikulua. Etekinak denboran egozteak.

1. Etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuaren bitartez kalkulatzen duten jarduera ekonomikoetan kobrantzen eta ordainketen irizpidea hautatu bada, hain zuzen ere zergaren foru arauaren 57.2.d) artikuluan aurreikusia, hautapen horrek eraginkortasuna galduko du baldin eta, hautu hori egin ondoren, zergadunak zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera zehaztu behar badu etekin garbia.

2. Etekinak egile eskubideen ustiapena lagatzetik datozenean eta hainbat urtetan sortu direnean, eskubideak sortu ahala egotzi ahal izango du zergadunak haien konturako aurrerakina.

3. Denboran egozteko irizpidea edo etekin garbia zehazteko metodoa aldatzeak ez du inolaz ere ekarriko gastu edo sarreraren bat konputatu gabe geratzea edo beste ekitaldi bati berriro egozteak, eta aurretik bidezko erregularizazioa egitea ezinbestekoa izango da egozpen irizpidea aldatzeko.

4. Zergadun batek egoitza atzerrira aldatu eta horregatik zergadun izateari uzten badio zergaren foru arauak 57.3 artikuluan jasotakoaren arabera, egotzi gabe dauden errenta guztiak zerga honengatik aitortu beharreko azken zergaldiko zerga oinarrian integratu behar dira. Gainera, hala badagokio, autolikidazio osagarri bat egin behar du, zehapenik, berandutza interesik eta errekar gurik



gabe, hiru hilabeteko epean zergadunak egoitza aldatzeagatik zergadun izateari uzten dionetik aurrera.

VII. KAPITULUA. Gauzazko errentak

49. artikulua. Enpresen jantokiko gastuak, gauzazko ordainsariak ez direnak.

1. Zergaren foru arauak 17.2.a) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzua zuzenean eta zeharka emateko formulak, lan arloko legeriak onartuak, enpresako jantokietan enplegatuei prezio beheratuan egindako produktu entregatzat hartuko dira baldintza hauek betetzen dituztenean:

1.a Zerbitzua ematea enplegatu edo langilearentzat baliodunak diren egunetan.

2.a Zerbitzua ez ematea enplegatu edo langilearentzat 13. artikuluaaren arabera salbuetsita dauden mantenu dietak sortzen diren egunetan.

2. Zerbitzua zeharkako formulen bidez ematen denean, aurreko apartatuan eskatutako baldintzez gainera, beste hauek ere bete beharko dira:

1.a Zeharkako formulen zenbatekoa ezin da izan 9 eurotik gorakoa egunean. Eguneko zenbatekoa handiagoa bada, soberakina gauzazko ordainsaria izango da. Zenbateko hori Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aldatu ahal izango du.

2.a Zerbitzua emateko enplegatu edo langileari otordu-bonoak edo antzeko agiriak, txartelak edo ordainbide elektronikoren bat ematen bazaizkio, hau hartu beharko da kontuan:

a) Zenbakituta eta dagokionaren izenean luzatuta egon behar dute, enpresa jaulkitzailearen izena ere bertan jarrita. Eta paperean ematen direnean, zenbateko nominala ere agertuko da.

b) Eskualdaezinak izango dira, eta egun batean kontsumitzen ez den zenbatekoa ezin izango zaio gehitu beste egun batekoari.

c) Zenbatekoa ezin izango da berreskuratu ez enpresatik ez hirugarrenengandik.

d) Ostalaritza establezimenduetan baino ez dira erabiliko.

e) Ematen dituen enpresak enplegatu edo langile bakoitzari emandakoen zerrenda eduki eta gorde behar du, eta bertan informazio hau adierazi:

- Otordu-bonoen edo antzeko agirien kasuan, agiri zenbakia, emate eguna eta zenbateko nominala.

- Txartelen edo beste edozein ordainbide elektronikoren kasuan, agiri zenbakia eta egun bakoitzean emandako kopurua (egun horiek adierazita).

50. artikulua. Langileen seme-alaben haur hezkuntzako lehen ziklora bideratutako kopuruak.



Zergaren foru arauaren 17.2.b) artikuluan langileen gizarte eta kultur zerbitzuetara bideratutako ondasunei buruz aurreikusten diren zeharkako formulen ondorioetarako, urtean 1.000 euroko kopurua gainditzen ez duen zenbatekoa ez da gauzazko ordainsaritzat hartuko.

51. artikulua. Langileak egunean jartzeko, trebatzeko eta birziklatzeko erabilitako kopuruak.

Zergaren foru arauak 17.2.c) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, erakundeek, enpresek edo enplegu-emaeleek beren langileak egunean jarri, trebatu eta birziklatzeko xedatzen eta beraiek zuzenean ordaintzen dituzten ikasketak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko beren jardueren garapenagatik edo lanpostuen ezaugarriengatik beharrezkoak gertatzen direnean, baita ikasketa horiek beste pertsona edo entitate espezializatu batzuek ematen dituztenean ere. Horrelakoetan, lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako ematen diren kopuruak 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz arautuko dira.

52. artikulua. Sozietateen sortzaile edo sustatzaileen eskubideak.

Sozietateen sortzaile edo sustatzaileek zerbitzu pertsonalen ordainsari gisa eurentzat gordetzen dituzten eskubide ekonomiko bereziak entitatearen mozkinetan portzentaje bat izatea denean, jasoko duten gutxieneko balorazioa izango da eskubide horiei mozkinen onartzen zaien partaidetza bera ahalbidetzen duen kapital sozialaren balioaren 100eko 35.

53. artikulua. Langileak teknologia berrietan trebatzeko kopuruak.

Enplegatzaileek langileak teknologia berrietan trebatzeko erabiltzen dituzten kopuruak ez dira gauzazko ordainsaritzat hartuko, zergaren foru arauak 17.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Kopuru horien artean sartzen dira Interneteko konexioa emateko, ahalbidetzeko edo finantzatzeko bideratutako kopuruak, eta Internet erabiltzeko behar diren ekipo informatikoak eta terminalak (softwarea eta periferikoak barne) dohainik edo prezio beheeratuan entregatzeak edo haiek eskuratzeko maileguak eta diru-laguntzak emateak sortutakoak, baita enplegatuek lantokitik eta lan-ordutegitik kanpo erabil ditzaketenean ere.

54. artikulua. Arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboko primak heriotza eta elbarritasun kasuan.

Zergaren foru arauak 17.2.f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, arrisku soileko aldi baterako aseguru kolektiboak heriotza edo elbarritasun kasuetarako kontratatzen direnean, primen zenbatekoa 500 euroraino ez dira hartuko gauzazko ordainsaritzat.

VIII. KAPITULUA. Aurrezpenaren errenta

55. artikulua. Aurrezpenaren errenta, eta zergadunarekin lotutako entitateei kapital propioak lagatzeagatik lortutako etekinak.

Zergaren foru arauak 63.b) artikuluan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, foru arau horren 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak zergadunarekin lotuta dauden entitateei kapital propioak lagatzeagatik lortu



badira, etekin horiek aurrezpenaren errentan sartuko dira baldin eta haien zenbatekoak ez baditu gainditzen kapital lagapena zergadunak entitatearen funts propioetan duen partaidetza hiru halakoa balitz lortuko liratekeenak. Soberakina errenta orokorraren parte izango da.

Muga hori zehazteko, kontuan hartuko da, alde batetik, zergadunarekin lotuta dagoen entitatearen zenbat funts propio dauden islatuta zergaren sortzapena gertatu aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzean, eta, bestetik, zergadunak zer partaidetza portzentaje duen data horretan.

⁸ Lotura ez bada zehazten bazkide edo partaideen eta entitatearen harremanaren arabera, 100eko 25eko partaidetza portzentajea hartuko da kontuan.

IV. TITULUA.

OINARRI LIKIDAGARRI OROKORRA

56. artikulua. Erretiro egoera.

1. Zergaren foru arauak 70.5 eta 71.3 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, erretiro egoera gertatuzat joko da bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguruak dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean edo araubide horren ordezkioak diren entitateetan erretiroa hartu duenean. Ondorio horietarako, erretiro aurreratua, erretiro malgua, partziala eta, bere kasuan, onartzen diren beste formula baliokideak, erretirotzat hartuko dira.

Hala ere, baldin eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguruak erretiro partzialari heltzen badio, zilegi izango da erretiro osorako egindako ekarpenak eta kontribuzioak zerga oinarritik murriztea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erretiroari heltzerik ez dagoenean, erretiroaren kontingentzia gertatuko da gizarte aurreikuspeneko planaren estatutuetan ezarritako adinean, zeina ezin baita izan 60 urtetik beherakoa; eta estatutuetan erretiratzeko adinik zehaztu ez bada, orduan Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean ezarritako adinera iristean gertatuko da erretiroa.

3. Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean erretiratzeko ezarritako adinetik aurrera ezindurik dauden zergadunak erretiratutzat joko dira artikulua honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

57. artikulua. Aurreikuspen plan aseguruak.

1. Zergaren foru arauak 70.1.5.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da aseguru kontratu baten estaldura nagusia erretiroa dela, baldin eta

⁸ Paragrafoa, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua lehengo ordinalaren bi apartatuak berridatzi du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunear jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



urte bakoitzaren bukaeran erretirorako eta mendetasunerako pilatutako hornikuntza matematikoen balioa gutxienez plana hasi denetik heriotzaren edo ezintasunaren kapitalerako ordaindutako primen batura halako hiru bada.

2. Pentsio planen araudian jasota dauden kasuetan baino ez da baimenduko aurreikuspen plan aseguratuetako kopuruak aurrez baliatzea.

Aurrez baliatzeko eskubidea hornidura matematikoaren zenbatekoari erreparatuta baloratuko da, eta hornidura horri ezin izango zaio aplikatu ez zehapenik, ez gasturik ez deskonturik.

Hala ere, entitateak lotutako inbertsioak baditu, aurrez baliatzeko eskubidea atxikitako aktiboen merkatuko balioaren arabera baloratuko da.

3. Aurreikuspen plan aseguratutako baten hartzaileak hornidura matematiko osoa edo haren zati bat mugitu dezake bera hartzaile duen beste aurreikuspen plan aseguratutako batera edo batzuetara, edo bera partaide gisa ageri den pentsio plan batera edo batzuetara (sistema indibidual zein elkartukoetara). Behin kontingentzia gertatuta, bakarrik planaren baldintzek horretarako aukera ematen badute aldatu ahal izango da hornidura.

Horretarako, hartzaileak edo onuradunak hornidura jasoko duen entitate aseguratzaile edo kudeatzaileara jo behar du, eta eskaera aurkeztearekin batera adierazi behar du aseguratutako zein aurreikuspen planetatik mugitu behar den hornidura eta zein den sorburuko aseguru-entitatea. Beharrezkoa izanez gero, mugituko den zenbatekoa ere adieraziko da. Eskaerarekin batera, sorburu aseguru-entitateari zuzendutako komunikazioa aurkeztu behar da, horniduraren mugimendua egiteko agindu dezan. Horrez gain, hartzaileak edo onuradunak baimena eman behar dio aseguru-entitateari haren izenean sorburuko aseguru-entitateari eskatu diezaion hornidura matematikoa mobilizatzeko, eta hori egiteko beharrezkoa den informazio finantzario eta fiskal guztia ere emango dio.

Izenpetutako hitzarmen edo kontratuen ondorioz posible bada mugimenduen eskaerak bitartekarien bidez edo beste entitate batzuetako sare komertzialen bitartez kudeatzea, haietako edozeinetan aurkezten diren eskaerak entitate aseguratzaile edo kudeatzailean aurkeztutzat joko dira.

Hornidura jasoko duen aseguru-entitateak edo entitate kudeatzaileak beharrezko dokumentazio osoa eskuratu eta gehienez bi egun balioduneko epean, hornidura mugitzeko arauko baldintzak betetzen direla egiaztatzeaz gainera, eskaera jakinarazi behar dio sorburuko aseguru-entitateari, eta jakinarazpen horretan ondoko datuak adierazi behar dizkio, gutxienez: hornidura aseguratutako zer aurreikuspen-planek jasoko duen, zein den aseguru-entitatea, eta transferentzia jasoko den kontuaren datuak; edo, bestela, hornidura zer pentsio-planek jasoko duen, hura zein pentsio-funtsari dagoen atxikita, zein den funts horren entitate kudeatzailea eta gordailuzaina, eta transferentzia jasoko duen kontuaren datuak.

Eskaera eta beharrezko dokumentazioa jasotzen dituenetik bost egun baliodun pasatu baino lehen, sorburuko aseguru-entitateak banku-transferentzia agindu behar du eta hornidura plan batetik bestera aldatzeko behar den finantza-informazio eta zerga-informazio guztia bidali behar dio hura jasoko duen aseguru-entitateari edo entitate kudeatzaileari.



Sorburuko aseguru-entitatea hornidura jasoko duen aurreikuspen-plan aseguruaren entitate aseguratzailea edo hornidura jasoko duen pentsio-planaren entitate kudeatzailea bada, hartzaileak ondoko datuak zehaztu behar ditu eskaeran: zer zenbateko mugitu nahi duen eta hornidura aseguraturako zer aurreikuspen planek edo zer pentsio-planek jasoko duen (pentsio-planen kasuan, baita zein pentsio-funtsi atxikituta dagoen ere). Sorburuko aseguru-entitateak hiru egun balioduneko epea izango du transferentzia agintzeko, eskaera aurkezten denetik aurrera.

Hornidura matematikoa baloratzeko, mobilizazioa gauzatzen den eguna hartuko da kontuan. Dena den, aseguru kontratuak ezarri ahal izango du balorazioa egiteko mobilizazioa egin aurreko egun balioduna hartuko dela.

Entitateak lotutako inbertsioak baditu, mugitu beharreko hornidura matematikoaren balioa atxikitako aktiboen merkatuko balioa izango da.

Mugitzen den zenbatekoari ezin izango zaio aplikatu ez zehapenik, ez gasturik ez deskonturik.

Martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 49.3 artikulua azkenaurreko paragrafoan propio baimentzen duen sistemaren bitartez egin ahal izango dira apartatu honetan aipatzen diren mugimenduak.

1. apartatuan ezarritako baldintza betetzeko, hornidurak mugitzen badira aurreikuspen plan aseguru batetik beste aurreikuspen plan aseguru batera edo pentsio plan batetik aurreikuspen plan aseguru batera, aseguru kontratu berriaren primak eta hornidura matematikoa bakarrik konputatuko dira. Horretarako, sorburuko aurreikuspen plan aseguruaren, 1. apartatuan jasotako baldintza mugimendua egiten den momentuan ere bete behar da.

4. Orobat, aurreikuspen plan aseguruaren hartzaileak enpleguko pentsio plan batera edo enpresen gizarte aurreikuspeneko plan batera mugitu dezake hornidura matematiko osoa edo haren zati bat. Bete beharreko baldintza da lehenengoan partaide izatea edo bigarrenengan aseguru gisa agertzea. Hornidura hori mugitzeko, aurreko 3. apartatuan ezarritako eran jokatu behar da, eta helmugako tresna posibleak beti izango dira enpleguko pentsio plana edo enpresen gizarte aurreikuspeneko plana, dagokionaren arabera.

58. artikulua. Jarduera ekonomikoaren titularrak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak.

Zergaren foru arauak 71.1.b) artikuluko azken paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, banakako enpresariak enplegu modalitateko borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpen propioak kontribuzio enpresarialtzat hartuko dira, baldin eta jardueraren titularra, aldi berean, bazkide babeslea eta onuraduna bada.

59. artikulua. Autolikidazio osagarriak aurkezteko epea, gizarte aurreikuspeneko sistemen eskubide kontsolidatuak baliatzen direnean.

Zergaren foru arauak 70.4 artikuluan, 72. artikuluko 4. eta 3.c) apartatuetan eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuko azken paragrafoan



aurreikusitakoaren ondorioetarako, gizarte aurreikuspeneko sistemetako eskubide kontsolidatuak modu aurreratuan baliatzeagatik zerga oinarrian bidegabeki aplikatu diren murrizpenak berrezartzeko egin beharreko autolikidazio osagarriak eskubideak baliatu direnetik baliatze hori egin den zergaldiko autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu arte aurkeztu behar dira.

60. artikulua. Prestazioak kapital moduan jasotzen diren zergaldian gizarte aurreikuspeneko sistemei egingako ekarpenen murrizpena mugatzea.

Zergaren foru arauak 70.6 artikuluan ezartzen duen muga aplikatzearen ondorioetarako, erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1.a Ekarpenak zergaldian jasotako prestazioaren zenbatekoa gainditzen badu, soberakinari ez zaio aplikatuko muga hori.

2.a Kopuru horretaraino, zergaldiko zerga oinarrian etekin gisa konputatutakoa gainditzen ez duen ekarpenaren zenbatekoa murriztu ahal izango da.

61. artikulua. Ekitaldiko zerga oinarrian murriztu ez diren soberazko ekarpen eta kontribuzioen tratamendu fiskala.

1. Partaideek, mutualistek, aseguratuek eta bazkideek eskatu dezakete ezen zergaren foru arauaren 71.3. eta 72.2 artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarriko 3.b) apartatuan ezarritakoaren arabera zerga oinarri orokorrean murriztu ez diren ekarpen eta kontribuzioak hurrengo bost ekitaldietan murriztu daitezela.

Mugak gainditzeagatik edo zerga oinarri orokorra nahikoa ez izateagatik ekarpenak eta kontribuzioak murriztu ezin izan diren ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan egin behar da eskaera.

2. Pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenerako ordainketak zerga oinarri orokorretik kenduta emaitza positiboa ateratzen den hurrengo bost ekitaldietako lehenengoan murriztuko dira soberakinak. Ondorio horietarako, soberakinak antzinasunaren arabera murriztuko dira, hau da, zaharrenak murriztuko dira lehenik. Zergaldiko ekarpenak eta kontribuzioak azken tokian murriztuko dira.

Hurrenkera kronologiko horretan, murrizpena egiterakoan ekitaldiko kontribuzioen soberakinak lehentasuna izango du ekitaldi bereko ekarpenen soberakinarekiko.

Artikulu honetan aurreikusitako murrizpenak zergaren foru arauak 70., 71. eta 72. artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen baldintzak eta mugak errespetatuz egingo dira.

V. TITULUA KUOTAKO KENKARIAK

I. KAPITULUA. Kenkari familiar eta pertsonalak



62. artikulua. Ondorengo ahaideen kenkaria gurasoak epailearen erabakiz bananduta dauden kasuetan.

Zergaren foru arauak 79.3.b) artikuluan aurreikusten duen zirkunstantzia, alegia, beste familia unitate bateko kideek, ondorengo ahaidea bera kenduta, urtean lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta handiagoak lortzea, ez da kontuan hartuko, baldin eta, aipatutako 79. artikulua 5. apartatuan ezarrikoarengatik, beste familia unitate hori ondorengo ahaideak edo ahaideek eta gurasoetako batek eratzten badute.

63. artikulua. Desgaitasun eta mendetasun maila frogatzea.

1. Zergaren foru arauak 23. eta 82. artikuluetan aipatzen duen desgaitasuna zerga Administrazioari frogatzeko, zuzenbidean onartuta dauden frogabideetako edozein erabili daiteke.

Dena den, pertsonaren legezko desgaitasuna frogatutzat joko da kasu hauetan:

a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo autonomia erkidegoetako tokian tokiko organoak ziurtatzen duenean.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea. Izan ere, aipatutako organoek eginiko beste edozein agirik ere balio izango du, baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada desgaitasun maila zein den eta nolako lotura duen zergaren foru arauko 23. eta 82. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatzen diren baremoekin.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Erregimen Bereziak ezintasun iraunkorra dela-eta aitortutako prestazioa jasotzen denean, baldin eta egoera hori aitortzeko zergaren foru arauak 23. eta 82. artikuluetan aipatzen duen desgaitasun maila exijitzen bada.

Zehazki, ondoko kausotan frogatutzat joko da 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa: Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, ezintasun iraunkor osoarengatik, absolutuarengatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat aitortua dutenean, eta klase pasiboetako pentsiodunen kasuan, zerbitzurako ezintasun iraunkorrarengatik edo baliaezintasunagatik erretiro pentsio bat aitortua dutenean.

Nolanahi ere, ezintasunari buruzko adierazpen judiziala Kode Zibilean ezarritako arrazoiengatik ematen bada, aplikagarriak izango dira zerga honek 100eko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna dutenentzat ezartzen dituen berariazko xedapenak.

2. Pertsonak mendetasun egoeran daudela joko da, zergaren foru arauak 82. artikuluan jasotako eran, baldin eta mendetasuna aitortzeko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua aintzat hartu bada, hain zuzen ere Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean mendetasuna baloratzeko ezarrita dagoen baremoa onartzen duena.



Mendetasuna eta dagokion maila zerga Administrazioaren aurrean frogatzeko, Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia erkidegoetako tokia tokiko organoak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea. Izan ere, aipatutako organoek eginiko beste edozein agirik ere balio izango du, baldin eta bertan argi eta garbi adierazten bada mendetasun maila zein den eta nolako lotura duen apartatu honetan aipatutako baremoekin.

3. Zergaren foru arauak 82. artikuluan aipatzen duen kenkaria aplikatzeko, ezinbestean frogatu behar da desgaitasuna edo mendetasuna eragiten duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla.

Dena den, desgaitasunak edo mendetasunak berariaz adierazita badauka iraunkorra dela, edo haren kalifikazioaren balio epean zergaren sortzapen data sartuta badago, ez da exijituko desgaitasunaren edo mendetasunaren frogagiria sortzapen datari buruzkoa izatea.

4. Langile aktibo desgaitua izateagatik zergaren foru arauaren 23.3 artikuluan aipatzen diren hobariak aplikatu ahal izateko, ezinbestean frogatu behar da langilea aktiboa eta desgaitua dela aldi berean.

II. KAPITULUA. Ohiko etxebizitza eskuratzeagatik aplikatzen den kenkaria

64. artikulua. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua.

⁹1. Oro har, ohiko etxebizitzat hartuko da zergadunak gutxienez hiru urteko epe jarraituan egoitza gisa daukan eraikina.

Hala ere, etxebizitza ohikoa izan dela joko da, epe hori igaro ez arren, zergaduna hiltzen denean, edo ezinbestez etxebizitzaz aldatzera behartzen duten bestelako zirkunstantziak gertatzen direnean, esate baterako hauek: Etxebizitza ez egokitzea zergadunaren edo harekin bizi den ondorengo edo aurreko ahaidearen, ezkontidearen edo izatezko bikote lagunaren desgaitasun mailara edo zergaren kuota osoan kenkaria egiteko eskubidea ematen duen pertsonarenera, senar-emaztegaiak ezkontzea, senar-emazteak banantzea, izatezko bikotea desegitea, lantokia aldatzea, lehen enplegua edo beste enplegu bat lortzea, zirkunstantzia ekonomikoengatik etxebizitza epe barruan ezin ordaintzea, eta antzeko beste egoera batzuk gertatzea.

⁹ Apartatu hau aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluaen ordinal lehenaren lau apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



4. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe, zergadunak ohikotzat hartu den etxebizitzan bizitzeari uzten badio, une horretatik beretik etxebizitza horrek izaera hori galduko du.

Ohiko etxebizitzaren kontzeptutik kanpo geratzen dira lorategiak, parkeak, igerilekuak eta kirol instalazioak, garajeak eta, oro har, eranskinak edo etxebizitza ez diren bestelako elementuak, etxebizitzarekin finka erregistral bakarra eratzen dutenean izan ezik.

Familia unitateko kideak ondasun higiezin hiritar baten baino gehiagoren titularrak direnean, ondasun horietako bat bakarrik hartuko da ohiko etxebizitzatzat. Horretarako, familia unitateak bere bizitza interesen eta harreman pertsonal, sozial eta ekonomikoen gune nagusitzat duena hartuko da ohikotzat.

2. Etxebizitza bat zergadunaren ohiko bizilekua izan dadin, ezinbestekoa da zergaduna bertan modu iraunkorrean bizitzen jartzea hamabi hilabeteko epean, etxebizitza erosten edo obrak amaitzen direnetik aurrera.

Dena den, etxebizitzak ez dio ohikoa izateari utziko honako zirkunstantziak gertatzen direnean:

a) Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitza okupatzea galarazten duten bestelako zirkunstantziak gertatzen direnean, 1. apartatuan aurreikusitako moduan.

b) Zergadunak karguarengatik edo enpleguarenagatik daukanean ohiko etxebizitza, eta eskuratutako etxebizitza erabiltzen ez denean. Horrelakoetan, lehen aipatutako hamabi hilabeteko epea kargua edo enplegua uzten den egunetik aurrera kontatu behar da.

Lokalak etxebizitza gisa erabiltzeko gaitzen badira, etxebizitza lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia ematen denetik aurrera hasi behar da kontatzen apartatu honen lehen paragrafoan aipatutako hamabi hilabeteko epea.

3. Aurreko apartatuetan adierazitako egoera bereziak gertatzen direnean, ohiko etxebizitza eskuratzeagatik arautzen den kenkaria aplikatuko da etxebizitza nahitaez aldatzera behartzen duten edo hura okupatzea galarazten duten zirkunstantziak gertatu arte, salbu eta zergadunak karguarengatik edo enpleguarengatik erabiltzen duenean ohiko etxebizitza. Azken kasu horretan, zilegi izango du kontzeptu honengatik kenkariak aplikatzen jarraitzea egoera horrek dirauen bitartean eta etxebizitza erabiltzen ez bada.

Ondorio horietarako, aurrekoarekin parekatuko dira etxebizitzaren beharra konpentsatzeko zergadunak kopuruak jasotzea eta, gainera, etxebizitza familia unitatetik kanpoko pertsonak ez erabiltzea.

4. Zergaren foru arauak 42. artikuluko b) eta c) letretan eta 49. artikuluan jasotako salbuespenak aplikatzeko, ez beste ezertarako, ulertuko da zergaduna ohiko etxebizitza eskualdatzen ari dela baldin eta, artikulua honetan xedatutakoaren arabera, une horretan eraikin hori bere ohiko etxebizitza bada edo eskualdaketa egin aurreko bi urteetako edozein egun iritsi arte halakoa izan bada.



65. artikulua. Etxebizitza ohiko etxebizitzatzat hartzeko aukera, seme-alaben zaintza gurasoek partekatzen dutenean epaiaren erabakiz.

1. Zergaren foru arauak hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, gurasoek seme-alaben zaintza eta ardura partekatu behar badute epaiaren erabakiz, eta erabaki horretan ezarrita badago seme-alabek familiaren etxebizitzan bizi behar dutela eta gurasoak txandaka arduratuko direla haien zaintzaz etxebizitza horretan, zergadunaren ohiko etxebizitza zein den zehaztearen ondorioetarako, gurasoek adierazi behar dute zergaldian okupatu dituzten etxebizitzetatik zein aukeratzen duten zergaldi horren barruan egoitza gisa.

2. Aukera banakakoa izango da, guraso bakoitzarena.

3. Aukera egiteko, jarraian zehazten diren baldintzak eta ondorioak hartu behar dira kontuan:

a) Zergaldi bakoitzean egin behar da aukera, zergaren autolikidazioa aurkezten denean.

b) Zergaldi baterako egiten den aukerak ez du lotuko hurrengo zergaldietarako.

Aurrekoa gorabehera, zergaren foru arauak 49. eta 87. artikuluetan aurreikusitakoa aplikagarria izan dadin, alegia, hurrenez hurren berrinbertsioa salbuesteko eta ohiko etxebizitza eskuratzeagatik zilegi den kenkaria aplikatzeko, ezinbestekoa da aukeratzen den etxebizitzak erregelamendu honen 64.1 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzea. Aipatutako 64.1 artikuluan aurreikusten den epea konputatzeko, kontuan hartuko dira seme-alaben zaintza partekatuen ondorioz zergadunak familia-etxebizitza ohiko etxebizitza gisa aukeratu duen zergaldietan kanpoan emandako denboraldiak.

c) Ohiko etxebizitzari buruz artikulua honetan aurreikusitako eran egiten den hautua beste zerga batzuen ondorioetarako ere hartuko da kontuan.

d) Egindako hautuaren indarrez, etxebizitza ez bada gurasoaren bizilekua, etxebizitza horri erregelamendu honen 69. artikuluan jasotakoa aplikatu ahal izango zaio, hala badagokio.

66. artikulua. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuak.

1. Ondoko kasuak ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen dira:

a) Etxebizitza handitzea, bizitzeko azalera handitzen denean estali gabeko zatiren bat itxiz edo beste edozein moduz baliatuta, modu iraunkorren eta urteko sasoi guztietan.

b) Etxebizitza eraikitzea, subjektu pasiboak zuzenean ordaintzen dituen obren gastuak, edo haien sustatzaileari konturako zenbatekoak ordaintzen dizkionean, baldin eta obrak gehienez ere lau urteko epean amaitzen badira inbertsioa hasi denetik aurrera.

c) Ohiko etxebizitzan egokitze lan eta instalazioak egitea, finka urbanotik bide publikora joateko eraikinak dituen elementu komunak aldatzea, hala nola



eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo bestelako elementu arkitektonikoak, edo desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen komunikazio sentsorialaren oztopoak gainditzeko edo haien segurtasuna areagotzeko balio duten dispositibo elektronikoak jartzea.

Era berean, kontzeptu honen barruan sartuta daude letra honetako azken paragrafoan aipatu diren pertsonen errentari, azpierrenerari edo usufuktudun gisa okupatutako etxebizitzak egokitzeko egiten dituzten obrak eta instalazioak.

Egokitze obrak eta instalazioak beharrezkoak izan behar dira desgaitasun edo mendetasun egoeran daudenen irisgarritasunerako eta komunikazio sentsorialerako, haien bizimodua duina eta egokia izatea errazteko. Alde horretatik, ezinbestekoa izango da behar hori frogatzea 63. artikuluko 1.a) eta 2. apartatuetan aipatzen diren organoetako batek emandako ziurtagiria aurkeztuta.

Obra horiek zergadun desgaituak edo mendetasun egoeran dagoenak egin behar ditu, edo, bestela, desgaitasuna edo mendetasuna duen aurreko ahaide, ondorengo ahaide, ezkontide edo izatezko bikote-lagunarekin bizi den zergadunak, zergaren foru arauak 82. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea ematen dion desgaitu edo mendeko pertsona batekin bizi den zergadunak, edo ohiko etxebizitzaren elementu erkideak aldatzeko lanak ordaintzera behartuta dauden jabekideek.

2. Epaileak onartutako konkurtsoaren ondorioz, sustatzaileak ez baditu amaitzen eraikuntza lanak 1.b) apartatuan aipatutako lau urteko epea igaro aurretik, edo etxebizitzak ezin baditu entregatu epe horretan, epe hori beste lau urtez luzatuko da.

Horrelako kasuetan, 64. artikulua 2. apartatuko lehen paragrafoan aipatzen den hamabi hilabeteko epea etxebizitza entregatzen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen.¹⁰

Apartatu honetan aurreikusitako epe luzapenak ondorioak izan ditzan, ezinbestekoa da zergadunak honako dokumentazioa aurkeztea hasierako epea bete ez den zergaldiko autolikidazioarekin batera: etxebizitzan egin dituen inbertsioen frogagiriak eta adierazitako egoeretako edozein gertatu dela frogatzen duen agiria.

Apartatu honetan aipatutako kasuetan, zergadunak ez du izango zertan diru sarrerarik egin eraikuntza lanak amaitzeko lau urteko epe orokorra ez betetzeagatik.

3. Zergadunari leporatu ezin zaizkion aparteko zirkunstantziengatik obrak gelditu behar badira eta, horren ondorioz, haiek ezin badira amaitu 1.b) apartatuan

¹⁰ Paragrafo hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua 1. artikulua bigarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatutako diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



adierazitako lau urteko epea igaro aurretik, zergadunak epea luzatzeko eskatu diezaiotke zerga Administrazioari. Lau urteko epea bete ez den egunetik aurrerako hilabetean egin behar du eskaera.

Eskaeran epea zergatik ez den bete adierazi behar da, bai eta zehaztu ere eraikuntza lanak amaitzeko zenbat denbora beharko den. Azken hori ezin da izan lau urtetik gorakoa.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, zergadunak bidezko frogagiriak aurkeztu behar ditu.

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, zerga Administrazioak erabakiko du zilegi den epea luzatzea eta zenbat luzatu daitekeen, eta luzapenak ez du zertan bat etorri zergadunak eskatutakoarekin.

Luzapen eskaerak ez badira berariaz ebazten hiru hilabeteko epean, ezetsizat hartuko dira.

Luzapena ematen bada, ez-betetzea gertatu ondorengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

4. Ez dira etxebizitza erosketatzat hartuko:

a) Artapen edo konponketa gastuak, 35. artikuluan ezarritako eran.

b) Hobekuntzak.

c) Garaje-plazak, lorategiak, parkeak, igerileku eta kirol instalazioak eta, oro har, eranskinak edo beste edozein elementu erostea, baldin eta, 64.1 artikuluan jasotakoaren arabera, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartzen ez badira.

5. Zergaren foru arauak 87.5.a) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergadunak bere jabetzako lokal batean obrak egiten baditu hura etxebizitza gisa gaitzeko, obra horiek ere ohiko etxebizitzaren birgaiketatzat hartuko dira, baldin eta haren xedea zergadunaren ohiko etxebizitza izatea bada 64. artikuluan jasotakoaren arabera.

67. artikulua. Etxebizitza kontuak.

1. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatuko dira kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen mota batetik bereizitako kontuetan, gordailatutako diru kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira sei urte baino lehen.

Dena den, gordailatutako kopuruak beste etxebizitza kontu batean ezarri arren ez da betetzat hartuko azken baldintza hori.

2. Kenkarirako eskubidea honako kasu honetan galduko da:

a) Zergadunak kenkarirako eskubidea sortu duten eta etxebizitza kontuan gordailatu diren kopuruak haren ohiko etxebizitza erostea ez diren helburuetarako erabiltzen dituen eta, zergaren sortzapena gertatu baino lehen, kopuru horiek kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste



kontu batean osorik birjarri edo aldatzen ez direnean. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailatutakoak direla ulertuko da.

b) Kontua ireki zenetik sei urte igaro direnean eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnean.

c) Ohiko etxebizitza geroago erostean kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez direnean.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bakarra izan dezake.

4. Etxebizitza kontuak berezita identifikatuko dira zergaren autolikidazioan, gutxienez datu hauek jarrita:

- Zer entitatetan ireki den kontua.
- Kontuaren zenbakia.
- Kontuaren irekitze data.
- Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza.

68. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik, eta salbuespena berrinbertitzeagatik.

Zergaren foru arauak 87.3 artikuluan jasotako 36.000 euro gutxitzeko, zergadunak zergaren foru arauaren 49. artikuluan eta erregelamendu honetako 45. artikuluan jasotako ohiko etxebizitzako berrinbertsioari lotutako salbuespen aukeratzen duenean, ondare irabazi salbuespenaren 100eko 18 egotzi beharko du behartuta egongo da ekitaldiaren barruan etxebizitza saltzen duen ekitaldian.

69. artikulua. Familiaren etxebizitzara zuzendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, epaileak erabakita.

1. Epailearen erabakiz, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitza dela-eta zergaren foru arauak 87.1 artikuluan aipatutako diru kopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, zergadunak bere autolikidazioan egin ahal izango du artikuluko horretan aipatzen den kenkaria.

Kasu horretan, kenkariak zergaren foru arauak 87. artikuluan aipatu eta zergadun horri dagozkion 36.000 euroko zifra gutxituko dute. Orobat, zergaren foru arauan eta erregelamendu honetan ezarrita dauden gainerako baldintzak eta mugak aplikatuko dira.

2. Betebehar hori bi zergaduneri ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autolikidazioan egingo da norberari dagokion proportzioan, 87. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan jasotako portzentajeak eta muga aplikatuta.



III. KAPITULUA. Kenkaria enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeagatik

70. artikulua. Enpresa berrietan edo sortu berrietan inbertitzeko kenkaria aplikatzeko baldintzak.

Zergadunak, enpresaren akzioak edo partaidetzak harpidetzearekin batera, jarduera garatzeko egin dezakeen eta zergaren foru arauak 89. bis artikuluan jasota dagoen ezagutza enpresarial edo profesional egokien ekarpena ezin izango da bideratu enpresak zergadunari lan kontratu bat eginez.

IV. KAPITULUA. Kenkarirako eskubidea galtzea

71. artikulua. Kenkarirako eskubidea galtzea.

Zergaren foru arauak 87. eta 88. artikuluetan jasotako kenkarietan, horiek aplikatu ondorengo zergaldietan aurretik egindako kenkarirako eskubidea osorik edo partzialki galtzen bada, zergaduna behartuta egongo da beharkizunak bete ez diren ekitaldian sortutako kuota likidoari honako kopuru hauek gehitzera: okerreko kenkariaren zenbatekoak eta Zergen Foru Arau Orokorrek aipatzen dituen berandutza interesak.

VI. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA. Autolikidazioak

72. artikulua. Autolikidatzeko betebeharra.

1. Zergadunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu eta sinatzera behartuta daude zergaren foru arauaren 101. artikuluan eta erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

2. Autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo berezien erabilera, era berean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartuko ditu, eta horrexek finkatuko ditu aurkezpen modu, tokiak eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko kasuak eta baldintzak.

Zergadunek beraiei buruz eskatzen diren datu guztiak bete beharko dituzte autolikidazioetan, bai eta finkatuta dauden eta finkatzen diren dokumentu eta frogagiriekin batera aurkeztu ere.

3. Baterako tributazioa hautatuz gero, autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztu behar dute; kide horiek familia unitateko seme-alaben ordezkari gisa jardungo dute, Zergen Foru Arau Orokorreko 45. artikuluan ezarri den bezala.

4. Autolikidazioak bitartekoak, prozesu informatikoak edo beste mota batekoak eta zerbitzuak erabiliz edo baliatuz egin daitezke, Foru Administrazioaren



eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak jasotakoari jarraituz, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehaztutako moduan.

73. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.

1. Zergadunak ez daude behartuta zergaren autolikidazioa aurkeztera, lortu dituzten errenten jatorria honako hauek bakarrik direnean:

a) Lanaren etekin gordinak, 12.000 euroko mugarekin urtean, banakako tributazioan, salbu ondorengo artikulua 1.h) apartatuan aipatutako kasuetako batean sartuta daudenean. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) 12.000 eurotik gorako eta 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banaka aitortzekotan, ondorengo artikuluan jasotako kasuetako batean sartuta daudenean izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

¹¹c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, batera hartuta haien urteko kopurua 1.600 eurokoa baino handiagoa ez bada.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultze-agatik lortutako ondare irabaziei dagokienez, baldin eta haien atxikipen oinarria, 110.2 ezartzen denari jarraikiz, ez bada zehaztu behar zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa kontuan hartuta.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, konturako ordainketen itzulketa lortzeko, autolikidazioa derrigorrez aurkeztu behar da.

74. artikulua. Autolikidatzeko betebeharraren kasu bereziak.

1. Aurreko artikulua 1.b) apartatuan jasotako kasuetan, honako kasu hauetako batean dauden zergadunak behartuta daude pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztera:

a) Zergaldiaren barruan ordaintzaile batetik baino gehiagotik edo ordaintzaile beretik lan etekinak jasotzen dituzten zergadunak, baldin eta atxikipena egiterakoan etekin horiek ez badira metatzen kontzeptu berdinen edo desberdinen ondorioz ordainduak izateagatik, bai eta zergaldiaren barruan lan kontratu bat baino gehiago edo harreman laboral, administratibo edo antzeko bat baino gehiago izenpetu dutenak ere.

¹¹ Letra hau aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua 1. artikulua 1. artikulua ordinal lehenaren bost apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko uztarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



b) Kontratu edo lan harreman batean aurreikusitako epea behin amaiturik, enplegu emaila berarentzat lanean jarraitzen duten zergadunak edo zergaldiaren barruan berriro lanean hasten direnak, eta, halaber, beren lan kontratua edo harreman laboral, administratibo edo beste edozein motatakoa luzatu dutenak.

c) Epaileen aginduz, ezkontidearengandik edo izatezko bikote lagunarengandik pentsio konpentsagarriak jaso edo gurasoenak ez diren urteko mantenurako ordainketak eskuratzen dituzten zergadunak, haiek lan etekintzat hartzen direnean.

d) Lana dela-eta atxikipenak edo konturako sarrerak izan dituzten zergadunak, foru erakundeek onartu gabeko araudien arabera kalkulatu direnean edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan ordaindu ez direnean.

e) Ordainsariak egunbeteko lanagatik jasotzen dituzten zergadunak.

f) Arrantza ontzietako langileak, baldin eta jasotzen dituzten ordainsariak, osorik edo partzialki, lortutako arrantzaren balioaren partaidetza bat badira.

g) Emaizten edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorrek jasotzen dituzten zergadunak, betiere ordainsari horiek atxikipen portzentajea edo konturako sarrera zergaren foru arauak 107. artikuluan jasotako moduan kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.

h) Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat betetzen ez duten zergadunak, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

2. Aurreko apartatuko a) letratik g) letrara jasotako egoeretako batean egoteagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan autolikidazioa aurkeztera behartuta dauden zergadunek bi aukera izango dituzte:

- Zergaren xedapen orokorrei jarraituz tributatzea, edo

- Lan etekinak bakarrik kontuan hartuz tributatzea, honako erregela hauen arabera:

a) Lan etekinetarako ezarritako atxikipen portzentajeen taulak lan etekin osoen gainean aplikatuko dira, salbu zergaren foru arauak 9. artikuluari jarraituz salbuetsita badaude. Horretarako, atxikipenari lotutako etekinen zenbatekoa zehazteko erregelak hartuko dira kontuan, bai eta zerga sortzen den egunean indarrean dauden atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko erregelak ere.

b) Lan etekinei egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa gutxituko zaio aurreko a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren ateratzen den kopuruari. Hortik ateratzen den kopurua ordainduko zaio Foru Aldundiari, eta 76.2 artikuluan jasotakoaren arabera zatikatu ahal izango da. Tributatzeko prozedura hau erabiliz gero, inoiz ez da itzulketarik egingo.



c) Inoiz ez da aplikatuko gastu kenkagarririk, hobaririk, murrizpenik, kenkaririk, baterako tributazioaren erregelarik edo zergaren araudian jasota dagoen beste edozein pizgarririk.

75. artikulua. Autolikidazio proposamenak.

1. Foru Aldundiak autolikidazio proposamena bidal diezaieke ofizioz autolikidatzera behartutako zergadunei.

Proposamena ez jasotzeak ez du zergaduna salbuetsiko autolikidazioa aurkezteko betebeharretik.

2. Zergadunak uste badu bidalitako autolikidazio proposamenak ongi jasotzen duela bere zerga egoera dagokion zerga honen ondorioetarako, proposamena izenpetu edo baieztatu dezake telematikoki edo telefonoz.

Apartatu honetan jasotakoaren arabera izenpetu edo baieztatutako proposamena aurkeztutako autolikidaziotzat hartuko da ondorio guztietarako, bereziki 76. eta 77. artikuluetan jasotako ondorioetarako.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak baimendu ahal izango du, autolikidazio proposamena onartzeko prozedura ezartzeaz gain, zergadunak berari bidalitako autolikidazio proposamenaren alderdi jakin batzuk aldatzea, horrek berari bidalitako autolikidazio proposamenaren alderdi jakin batzuk bere zerga egoerarekin bat ez datozela uste duenerako. Zergadunari bidalitako autolikidazio proposamena telematikoki edo telefonoz zuzendu ahal izango da.

4. Zergadunak ez badu sinatzen, ez badio adostasunik ematen edo aldatzen badu aurreko artikulua 2. eta 3. apartatuetan jasotakoaren arabera bidalitako autolikidazio proposamena, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak autolikidazioa aurkeztu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak horretarako erabaki dituen beste prozeduretako bat erabilia.

5. Autolikidazio proposamena sinatu, adostasuna eman edo aldatu duen zergaduna ezin izango da zigortu autolikidazio horretan jasotako datuei dagokienez, salbu zergadunak aldeztu aurretik aldatu dituen datu horiei dagokienez.

76. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.

1. Zergadunek zerga zorra zehaztu behar dute, autolikidazioa aurkeztearekin batera, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaindu.

2. Zilegi da autolikidaziotik ateratzen den zenbatekoa bi zatitan ordaintzea, batere interesik eta errekargurik gabe, eta horrek ez du eragotziko ordainketa geroratzea edo zatikatzea 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 64. artikuluan dioen moduan eta Zerga-bilketaren Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/20065 Foru Dekretuak 36. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraituz, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zergaldi bakoitzerako ezarritakoaren arabera. Honela zatikatuko da:



b) Lehen zatia, zenbateko horren 100eko 60, autolikidazioa aurkeztu behar den urteko uztailaren 10ean beranduenik.

b) Bigarren zatia, gainerako 100eko 40a, autolikidazioa aurkeztu behar den urteko azaroaren 10ean beranduenik.

Ordainketa prozedura honetara biltzeko, ezarrita dagoen autolikidaziorako borondatezko epearen barruan aurkeztu behar da autolikidazioa. Apartatu honetan jasotakoaren arabera ezingo da zatitu autolikidazio osagarrietatik ateratzen den zenbatekoaren ordainketa.

77. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

Zergaren foru arauak 111. artikuluan aipatutako itzulketak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak egoki deritzen ordainketa prozedurak eta moduak erabiliz egingo dira.

II. KAPITULUA. Betebehar formalak, kontabilitatekoak eta erregistralak

1. sekzioa: zergadunen betebehar formalak.

78. artikulua. Betebehar formal orokorrak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak behartuta daude preskripzioaren gehieneko epean edo, bestela, bereziki jarritako epean, euren autolikidazioetan jaso beharreko edozein motatako eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizpen eta kenkarien frogagiri eta egiaztagiria gordetzera, hala dagokionean horiek autolikidazio horiekin eta komunikazioekin batera ematera eta, horretarako eskatzen zaienean, Zerga Administrazioako organo eskudunei erakustera.

2. sekzioa: jarduera ekonomikoen titularren kontabilitate eta erregistro betebeharrak.

79. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate arrunta aplikatzen duten zergadunen betebeharrak.

Etekin zuzeneko zenbatespen metodoaren modalitate arruntaren bitartez zehazten zaien jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen araubideko entitateek Merkataritza Kodean xedatutakoari lotutako kontabilitatea eraman beharko dute, eta baita sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako finkatu edo finkatzen diren erregistro osagarriak ere.

80. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztura bilduta dauden edo merkataritza izaerarik gabeko jarduera ekonomikoak egiten duten zergadunen betebeharrak.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen araubidean dauden entitateek, baldin eta etekina zuzeneko zenbatespen metodoaren modalitate erraztuaren bitartez zehazten badute edo beren jarduera



ekonomikoak Merkataritza Kodearen arabera merkataritza izaerarik ez badu, honako erregistro liburu hauek eraman beharko dituzte:

a) Salmenta eta sarreren erregistro liburua. Liburu horretan, jardueraren ondorioz izandako sarrerak jarriko dira eta, gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

- Oharpenaren zenbakia.
- Salmenta edo sarrera bakoitzaren sortzapen eguna, denboraren araberako egozpenari buruzko irizpideari jarraituz.
- Salmenta edo sarrera jasotzen duen fakturaren zenbakia. Faktura egiteko betebeharririk ez dagoenean, salmentak eta sarrerak elkarren segidan zenbatuko dira, eta erregistro liburuan dagokien zenbakia jarriko da.
- Oharpenaren kontzeptua.
- Sarreraren zenbatekoa, betiere eragiketan sortutako balio erantsiaren gaineko zerga berezita.

b) Erosketen eta gastuen erregistro liburua. Liburu horretan jardueran izandako gastuak jarriko dira, eta, gutxienez, datu hauek adieraziko dira:

- Oharpenaren zenbakia.
- Erosketa edo gastu bakoitzaren sortzapen eguna, denborazko egozpenari buruzko irizpidearen arabera.
- Faktura egilearen izen-deiturak edo sozietate izena.
- Gastua sortu duen kontzeptua, behar bezala zehaztuta.
- Haien zenbatekoa, eragiketan jasandako balio erantsiaren gaineko zerga berezita.

c) Inbertsio ondasunen erregistro liburua. Liburu horretan jasoko dira, behar bezala banakatuta, kontuan hartu gabe erosketen eta gastuen erregistro liburuko inskripzioa, zergadunak egiten duen jarduerari lotuta dauden ibilgetu materialeko elementuak, inbertsio higiezinak elementuak edo ibilgetu ukiezinak elementuak. Gutxienez elementu hauek jaso behar dira:

Ibilgetu materialari eta higiezinak inbertsioei dagokienez, datu hauek jasoko dira ondasun bakoitzeko:

- Oharpenaren zenbakia.
- Ondasunaren deskripzioa, hori behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adierazita.
- Eskurapen balioa.
- Erabilpenaren hasierako eguna.
- Amortizazio kuota eta, hala badagokio, errebertsio funtsaren zuzkidura.



Ibilgetu ukiezinari dagokionez, datu hauek jasoko dira elementu bakoitzeko:

- Oharpenaren zenbakia.
- Elementuaren deskripzioa, behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adierazita.
- Eskurapen balioa.
- Elementuaren eman edo eskuratu den eguna.
- Hala badagokio, amortizazio kuota.

Ibilgetu materialari dagokionez nahiz higiezinetakako inbertsioei eta ibilgetu ukiezinari dagokienez, ondasun edo eskubidearen baja jasota utziko da, horren data eta arrazoia adierazita.

d) Kutxa liburua.

Liburu horretan berezita idatziko dira kutzako mugimenduak eta jarduera bakoitzerako erabilitako banku kontu korronte bakoitzeko mugimenduak.

Nolanahi ere, datu hauek jasoko dira:

- Kobrantza edo ordainketa bakoitzaren data.
- Kobrantzen eta ordainketen arteko bereizketa.
- Mugimendu bakoitzaren zenbatekoa.
- Eragiketaren jatorria edo helburua modu nahiko batean identifikatzen duen kontzeptua.
- Kontu bakoitzaren saldoa.

Era berean, kutxaren eta kontu bankarioen arteko traspasoak ere erregistratuko dira. Horretarako, helburuko kontua, sorburuko kontua nahiz jardueraren titularrak egindako erabilpenak edo sarrerak identifikatuko dira.

Kutzako liburuan, mugimendu bakarrean erregistratu ahal izango da eskudiruz egun batean jasotako kobruen zenbatekoa.

Kutzako liburuan kontu korronteei buruz oharpenak jasotzeko dagokionez, horien ordezkariak emandako laburpenak erabil daitezke, baldin eta laburpen horiek letra honetan jasotako beharkizunak bete eta kontua jarduera bakarrean egindako eragiketarako oso-osorik erabiltzen bada.

81. artikulua. Jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunen betebeharrak.

1. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan jasotako sailkapenaren arabera jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunak eta errenten esleipen araubidean dauden entitateak behartuta egongo dira sarreren erregistro liburua,



gastuen erregistro liburuak, inbertsio ondasunen erregistro liburuak eta kutzako liburuak aurreko artikuluan jasotako arauak jarraituz eramatea.

2. Era berean, jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunak eta errenten esleipen araubidean dauden entitateak behartuta egongo dira funts horniduren eta osakinen erregistro liburuak eramatea, datu hauek adierazita:

- Oharpenaren zenbakia.
- Eragiketaren izaera (funtsen hornidura edo osakina).
- Funtsen horniduren edo osakinen sorrera edo ordainketa eguna.
- Funtsen horniduren eta osakinen zenbatekoa.
- Horniduraren ordaintzailearen edo osakinaren jasotzailearen izen-deiturak edo bere sozietatearen izena.
- Eragiketa jasota dagoen fakturaren zenbakia. Faktura egiteko betebeharririk ez dagoenean, funtsak eta osakinak elkarren segidan zenbatuko dira, eta erregistro liburuan bakoitzaren zenbakia jasoko da.

82. artikulua. Erregistro liburuak eramateko beharrezko salbuespena.

Kontabilitatea Merkataritza Kodean jasotakoaren arabera eramatean duten zergadunak eta errenta esleipeneko araubidean dauden entitateak ez daude behartuta kapitulu honetako aurreko artikuluetan jasotako erregistro liburuak eramatea.

3. sekzioa: erregistro liburuak eramateko modua eta diligentzia.¹²

83. artikulua. Liburuak bitarteko informatikoez eramatea.

Zerga ondorioetarako eskatzen diren liburuak, fakturazioa eta erregistroak informatikaren bidez eramatean badira, aurrekoek gain, fitxategi informatiko hauek gorde behar dira:

- a) Aplikazio informatikoez sortutako datuen fitxategiak, hala historikoak nola jatorrizkoak, baldin eta haietatik diligentziatu beharreko liburuak erortzen badira.
- b) Programen fitxategiak, aurreko datuen fitxategiak prozesatzen dituztenak.

84. artikulua. Liburuetako oharpenak.

¹² Sekzioaren ordinala aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluaen ordinal lehenaren bat apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



1. Oharpenak edozein prozedurari jarraituz egin ahal izango dira orrietan eta, ondoren, orri horiek hurrenez hurren koadernatu beharko dira, derrigorrezko erregistro liburuak osatzeko.

2. Kapitulu honetan aipatutako erregistro liburuetakoa oharpenak denboraren arabera egingo dira, tarte zuririk, tartekadurarik, ezabaketarik eta harraskadurarik gabe, eta hiruhilekoei eta urte naturalei jarraikiz zenbatuko dira beti. Ondoren, konturatu ahala, oharpenetan izandako okerrak edota hutsegiteak zuzendu beharko dira.

3. Enpresari eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharrari buruzko araudiak jasotakoaren arabera faktura egiteko obligaziorik ez dagoenean, eguneko idazpen laburgarri bat egin ahal izango da fakturatu gabeko eragiketa guztiak bertan jasotzeko.

Idazpen horretan datu hauek jasoko dira gutxienez:

- Oharpenaren zenbakia.

- Idazpenaren data.

- Fakturarik gabeko eragiketen idazpen laburgarria dela aipatzea.

- Zenbatekoa. Eragiketan sortutako balio erantsiaren gaineko zerga bereizita adieraziko da.

4. Egun berean egindako fakturak idazpen orokor laburgarri batean idatzi ahal izango dira, baldin eta zenbateko osoa, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita, 6.000 eurotik gorakoa ez bada. Idazpen horretan fakturen data, zenbakia, zerga oinarri orokorra, zerga tasa eta kuota osoa agertuko dira.

5. Egun berean jasotako fakturak idazpen laburgarri batean adierazi ahal izango dira, baldin eta haien zenbateko osoa 6.000 eurotik gorakoa ez bada, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita, eta faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen banakako zenbatekoak, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita, 500 euroko kopurua gainditzen ez badu. Idazpen horretan honako datu hauek adierazi beharko dira: jasotako fakturei hartzaileak esleitutako zenbakiak, zerga oinarrien batura osoa eta jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuota osoa.

85. artikulua. Erregistro oharpenen epea.

Erregistroan azaldu behar diren eragiketak erregistro liburuetan jaso behar dira idatzita, erregelamendu honek VII. tituluaren V. kapituluaren aipatutako ordainketa zatikatuak autolikidatu eta ordaintzeko epea amaitu baino lehen.

Dena den, zergadunak egindako eragiketak, horiei buruzko fakturarik egin ez denean, zazpi eguneko epean jaso beharko dira erregistro liburuetan, eragiketak egiten direnetik edo agiriak luzatu direnetik aurrera, baldin eta epe hori aurreko paragrafoan aipatutakoa baino txikiagoa bada.

86. artikulua. Elkarri lotu gabeko jarduerak.



Jarduera bat baino gehiago egiten dituzten zergadunek eta errenten esleipen araubidean dauden entitateek jarduera horietako bakoitzeko aparteko liburuak egingo dute, eta lehen orrian zein jarduerari dagozkion adieraziko dute.

87. artikulua. Bateragarritasuna beste liburu batzuekin

Balio erantsiaren gaineko zergan jasotako erregistro edo kontabilitate betebeharrak konpliz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta errenten esleipen araubidean dauden entitateek eraman behar dituzten liburuak edo erregistroak zerga honen ondorioetarako erabili ahal izango dira, baldin eta kapitulu honetan jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

88. artikulua. Erregistro liburuaren diligentziatua.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 113. artikuluan jasotakoaren arabera diligentziatu beharreko erregistro liburuak aurkeztu behar dituzten zergapekoek, beren betebeharra konplitzeko, komunikazio bat aurkeztuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari, liburu mota bakoitzeko eta elkarri lotu gabeko jarduera bakoitzeko. Datu hauek emango dituzte:

- Ale kopurua.
- Erabilitako orri kopurua.
- Zergaldian egindako idazpen kopurua.
- Azken idazpenaren data.

Datuen komunikazioa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioan egingo da

Ondorio horietarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazio ereduari atal berezi bat gehituko zaio, zergadunak erregistro liburuaren diligentziatuaren betebeharra konplitzeko erabili beharko duena.

4. sekzioa: bestelako informazio betebeharrak. ¹³

89. artikulua. Bestelako informazio betebeharrak.

1. Gizarte Segurantzako organo edo entitate kudeatzaileek eta mutualitateek hainbat informazio eman behar dute, hilero eta urtero, beren afiliatu edo mutualistei buruz. Informazio horretan datu hauek jasotzea eskatu daiteke:

- a) Haien izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta afiliazio zenbakia.

¹³ Sekzioaren ordinala aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluaen ordinal lehenaren bat apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko uztarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



b) Kotizazio erregimena, eta altaren denbora tartea.

c) Kotizazioak eta sortutako kuota osoak.

2. Erregistro Zibilean jaiotzei, adopzioei eta heriotzei buruz dauden datuak Zerga Administrazioari eman beharko zaizkio, eta horrek informazio hau jasotzea exijitu ahal izango du, ondorio horietarako:

a) Informazioan aipagai den pertsonaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Amaren eta, hala badagokio, aitaren izena, deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, jaiotza eta adingabeen adopzioa eta heriotza gertatzen denean.

3. Kreditu entitateek urteko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute zergaren foru arauak 87.5.b) artikuluan aipatutako etxebizitza kontuei buruz, datu hauek jasota:

a) Etxebizitza kontuaren titularren izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Zergadun bakoitzak etxebizitza kontuan duen titulartasun ehunekoa.

c) Noiz ireki den etxebizitza kontua.

d) Etxebizitza kontuaren ekitaldi bakoitzeko hasiera eta amaiera saldoa.

e) Horretarako onartzen den ereduan jasotako beste datu batzuk.

4. Langileen sindikatuak urteko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute. Aitorpenean, datu hauek jaso behar dituzte:

a) Afiliatuen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako urteko kuota sindikalaren zenbatekoa.

Aitorpen informatibo hau aurkeztekotan, afiliatuak ados egon behar dira horrekin.

Zergaren foru arauak 92.3 artikuluan jasotakoaren arabera, apartatu honetan aipatutako eredu informatiboan sartutako zergadunek bakarrik egin dezakete langileen sindikatuen aldeko kuoten kenkaria.

5. Alderdi politikoek urteko aitorten informatiboa aurkeztu behar dute, eta bertan honako datu hauek adierazi:

a) Erakunde politikoari afiliazio kuotak ordaindu edo borondatezko zein derrigorrezko ekarpenak egin dizkioten pertsona fisikoen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Ordaindutako afiliazio kuotaren edota egindako ekarpenaren zenbatekoa.

Ekarpen egileak ados egon behar du aitorten informatibo honetan sartzearekin.



Zergaren foru arauak 22.b) eta 92.3 artikuluetan jasotakoaren arabera, apartatu honetan aipatutako eredu informatiboan sartutako zergadunek aplikatu ahal izango dute bakarrik lan etekinen gastu kengarria edo kuotako kenkaria.

6. Zergaren foru arauaren 89. bis artikuluan jasotako entitateek urteko aitorten informatibo bat aurkeztu beharko dute 89. bis artikuluko horren 5. zenbakian jasotakoaren arabera egindako ziurtagiriei buruz. Aitorpen horretan, identifikazio datuaz, eraketa datuz eta funts propioen zenbatekoaz gain, honako informazio hau jasoko da akzioen edo partaidetzen eskuratzaileriei buruz:

- a) Izen-deiturak.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Eskurapenaren zenbatekoa
- d) Eskurapen data.
- e) Partaidetza portzentajea.

7. Lurralde administrazio publikoek urteko aitorten informatibo bat aurkeztu beharko dute beraiek, beren organismo autonomoek edo beren menpeko entitateek emandako diru laguntza, prestazio, subentzio eta kalte-ordain guztiei buruz, betiere zergaren foru arauak 115.k) artikuluan jasotakoari jarraituz. Betebehar horretatik kanpo gelditzen dira hirugarrenekin egiten diren eragiketei buruzko urteko aitorpenean eta nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jardueretatik eratorritako diru laguntzei edo kalte-ordainei buruzko urteko aitorpenean jasotzen direnak.

Aitorpenean jaso behar dira, aitortzailearen identifikazio datuez gain eta aitorpenean jasotako laguntza, prestazio, subentzio edo kalte-ordainei dagokienez esku hartzen den izaeraz gain, jasotzaileen izenen zerrenda bat eta dena delako ereduari buruzko foru aginduan eskatutako informazioa.

¹⁴**8.** Epe luzerako aurrezki planak merkaturatzen dituzten aseguru edo kreditu entitateek aitorten informatibo bat aurkeztu behar dute, bertan beren identifikazio datuak adierazi behar dituzte, eta, gainera, ekitaldian epe luzerako aurrezki planaren titular izan direnei buruzko informazio hau ere jaso behar dute:

- a) Izen-abizenak, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Titularraren epe luzerako aurrezki planaren identifikazioa.
- c) Zein egunetan ireki den epe luzerako aurrezki plana. Planaren baliabideak mobilizatu badira, jatorrizko data hartuko da kontuan, hau da, erreferentzia data

¹⁴ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bat apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den eguneari jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



planerako ekarpenak bideratzeko sortutako lehen aseguruari ordaindutako lehen primarena izango da.

d) Ekitaldian zehar epe luzerako aurrezki planari egindako ekarpenak, plana mobilizatu aurrekoak barne (halakorik badago).

e) Ekitaldian lortutako kapital higigarriaren etekin positiboak eta negatiboak.

f) Epe luzerako aurrezki plana iraungi bada, adierazi behar da zein egunetan iraungi den, kapital higigarriaren zer etekin positibo eta negatibo lortu diren plana ireki zenetik, eta, konturako ordainketarik egin behar izanez gero, haren oinarria zein den.

¹⁵9. Kapital murriztapenak ekarpenak itzuliz egiten dituzten entitateek, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan, finantza-tresnen merkatuei buruzkoan, zehaztutako balore merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartu gabeko baloreen jaulkipen prima banatzen dutenek –sozietateen edo entitateen funts propioetan parte-hartzea adierazten dutenena–, aitorpen informatibo bat aurkeztu behar dute erregelamendu honen 94. artikuluko i) letraren arabera atxikipenari lotuta ez dauden eta pertsona fisikoen alde egindako eragiketei dagokienez, eta aitorpen horretan datu hauek jaso behar dituzte:

a) Eragiketa horien ondorioz zenbateko, ondasun edo eskubideren bat jasotzen duten bazkide edo partaideen identifikazio osoa, haien identifikazio fiskaleko zenbakia eta entitate aitortzailean duten partaidetza portzentajea.

b) Murriztapenak ukitutako ekintzen edo partaidetzen identifikazio osoa edo, jaulkipen primaren banaketa kasuan, aitortuak dituen ekintzen edo partaidetzen identifikazio osoa, honako hauek barne: Mota, zenbakia, balio nominala eta, izanez gero, identifikazio kodea.

c) Data eta eragiketan jasotako ondasunak, eskubideak edo zenbatekoa.

d) Kapital murriztapenak ukitutako akzioei edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbatekoa, edo, jaulkipen primaren banaketa kasuan, aitortuak dituen akzioen funts propioen zenbatekoa, kapitala murriztu edo jaulkipen prima banatu aurretik itxitako ekitaldiari dagokiona, zenbateko hauek kenduta: Eragiketa egin aurretik banatu diren etekinak –aipatutako funts propioetan sartutako erreserbetatik datozenak–, eta funts propio horietan sartuta dauden eta legez baliaezinak diren erreserbak.

Hala ere, kapital murriztapenak ekarpenak itzuliz egiten dituzten entitateak edo jaulkipen primak banatzen dituztenak ez daude behartuta apartatu honetan aipatzen den aitorpen informatiboa aurkeztera, baldin eta eragiketa horietan esku

¹⁵ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bat apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den eguneari jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



hartzen dutenen artean abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak, zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzekoak, 51. artikuluan aipatzen duen aitorten informatiboa aurkeztera behartutako subjekturik baldin badago.

¹⁶10. Aurreko apartatueta aipatutako aitorten informatiboa zer eredutan zer epetan eta nola eta non aurkeztu behar den Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du, bai eta bitarteko telematikoez noiz aurkeztu behar den ere.

90. artikulua. Babespeko ondareen titular diren zergadunen informazio betebeharrak.

Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, Auzibideratze Zibilaren Legeak eta horri buruzko zerga araudiak erregulatutako ondare babestuaren titularrak diren zergadunek eta, horiek pertsona desgaituak badira, ondare haien administratzaileek aitorten informatibo bat aurkeztu behar dute urte natural bakoitzean jasotako ekarpenei eta egindako erabilpenei buruz. Gainera, identifikazio datuekin batera, honako informazio hau jaso behar dute aitorpenean:

a) Ekarpenei egileen eta ondare erabilpenen onuradunen izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

¹⁷b) Zergaldian zehar jasotako ekarpenei eta egindako diru baliatzeen mota, zenbatekoa eta identifikazioa, barruan sartuta bai diru gastua eta bai ondare babestuan integratutako ondasun suntsikorren kontsumoa.

Artikulu honetan aipatutako aitorten informatiboa zer eredutan, zer epetan eta nola eta non aurkeztu behar den Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du, bai eta bitarteko telematikoez noiz aurkeztu behar den ere.

VII. TITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK

¹⁶ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bat apartatuak birzenbakitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamendua aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

¹⁷ Letra hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua lehenengo ordinalaren hiru apartatuak berridatzi du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamendua aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



I. KAPITULUA. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Arau orokorrak

91. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateek titulu honetan ezarritakoa aplikatuko dute, baldin eta zenbateko horiek Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu behar badira hurrengo 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Dena den, titulu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, entitate ordaintzaileari Gipuzkoako sozietateen gaineko zergaren araudiari lotuta dagoenean, honako hauen gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei:

- Administrazio kontseiluetako, horien ordezeko batzordeetako eta beste ordezkari organoetako administratzaile eta kide izateagatik jasotzen diren ordainsariak.

- Edozein entitatearen funts propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, eta obligazio eta antzeko tituluen interesak zein bestelako kontraprestazioak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, autolikidazioak non, nola eta zer epetan aurkezteko arauak zerga ordainarazteko eskumena duen administrazioak ezarriko ditu.

2. Atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dira haiei lotutako etekinak honako hauek direnean:

a) Gipuzkoan egindako lan edo zerbitzuetatik datozenak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Gipuzkoan edo Gipuzkoan eta beste lurralde historikoetako edozeinetan egiten badira, zerbitzuak Gipuzkoan egiten direla ulertuko da, aurkako frogarik ezean, langilearen lantokia lurralde horretan kokatuta dagoenean.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen Erregimen Publikoetatik, Enpleguaren Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pensio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik datozen pensio, hartzeko pasibo eta prestazioak, edo enpresen eta beste entitate batzuen prestazio pasiboak, jasotzailearen ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean.

c) Administrazio-kontseiluetako, horien ordezeko batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaile eta kide izateagatik jasotako ordainsariak, entitate ordaintzailearen zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

Entitateak Gipuzkoan exijitzen den sozietateen gaineko zergaren zergadunak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Gipuzkoari dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, sozietateen gaineko zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.



d) Atxikipenak eta konturako sarrerak jarduera ekonomikoen etekinengatik egin badira, Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dira atxikitza eta kontura sartzea behartutakoaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean. Edozein kasutan ere, atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako etekinei badagozkie, berak exijituko ditu.

e) Edozein entitatearen funts propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak nahiz obligazio eta antzeko tituluen interes eta bestelako kontraprestazioak, etekin horiek ordaintzen dituzten entitateek sozietateen gaineko zerga Gipuzkoan bakarrik ordaintzen dutenean.

Entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiak exijitzen duen sozietateen gaineko zergaren zergadunak badira eta zerga hori eragiketa bolumenaren arabera exijitzen bazaie, Gipuzkoari dagozkion atxikipenak bolumen horren proportzioan egingo dira. Horretarako, sozietateen gaineko zergaren azken autolikidazioan adierazitako proportzioa aplikatuko da.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalek eta Gipuzkoako lurralde administrazioko eta erakunde administrazioko gainerako entitateek jaulkitako zor eta jesapenen interes eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere.

g) Banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta antzeko entitateek egindako eragiketa pasiboen interesak eta gainerako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu etxetan edo finantza etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekina jaso duenaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan badago.

h) Kapitalizazio eragiketetatik eta bititza edo elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak, baldin eta horien onuradunak edo, erreskate kasuan, aseguruhartzaileak Gipuzkoan badu ohiko bizilekua edo zerga helbidea.

i) Kapital ezarpenen ondorioz jasotzen diren bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk, onuradunaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

j) Jabetza intelektualetik datozen etekinak, jasotzailea egilea ez bada, eta edozein kasutan, jabetza industrialetik eta laguntza teknikoa ematetik eratorritakoak, horiek ordaintzen dituen pertsonaren bizilekua edo entitatearen zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

k) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoak errentan ematetik datozenak, Gipuzkoan kokatuta badaude.

l) Ondasun higiezinaren hipoteka bidez bermatutako maileguren interesak badira, berme modura erabilitako ondasunak Gipuzkoan kokatuta daudenean.

Hipotekatutako ondasunak Gipuzkoan eta lurralde erkidean edo beste edozein lurralde historikotan kokaturik badaude, Gipuzkoako Foru Aldundiak atxikipena exijitzeko garaian interesak hainbanatuko ditu hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan, non eta lehendik berme asignazio berezirik ez den egin. Halakorik badago, hainbanaketa egiteko orduan zifra hori erabiliko da oinarri modura.



m) Ondasun higigarrien hipotekaz edo lekualdaketarik gabeko bahiaz bermatutako maileguen interesak badira, bermea Gipuzkoan inskribatzen denean.

n) Mailegu soilen interesen kasuan, salerosketan geroratutako prezioen kasuan eta kapitalak merkaturatzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua Gipuzkoan kokatzen denean edo atxikitza behartutakoaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea lurralde horretan dagoenean.

ñ) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikpenak badira, akziodunaren edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

o) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikpenak eta konturako sarrerak badira -sari guztiak ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon edo ez-, ordaintzen dituenaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean. Edozein kasutan ere, atxikpenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako sariei dagozkienean, berak exijituko ditu.

p) Ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emateagatik lortutako etekinen atxikpenak eta konturako sarrerak badira, atxikitza eta kontura sartzera behartutakoaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

q) Atxikpenak eta konturako sarrerak egitearen arrazoia entitateei ordaindu baina, errentak egozteko araubidearen indarrez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei egotzi behar zaizkien zenbatekoengatik egiten badira, atxikitza edo kontura sartzera behartutakoaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

¹⁸r) Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazien atxikpenak, akziodunaren edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean.

3. Atxikpenak ez dira Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko, honako etekin hauek direnean:

a) Funtzionarioek eta lan nahiz administrazio kontratupeko langileek Estatuko Administrazioetik jasotzen dituzten ordainsari aktibo zein pasiboak, jasotzailea ez den beste pertsona batek sortutako pentsioak barne, salbu erakunde autonomoetako eta enpresa entitate publikoetako funtzionario eta langileek jasotakoak.

¹⁸ Letra hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egun jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



b) Kapitalak ezartzearen ondorioz jasotzen diren biziarteko nahiz aldi baterako errentak, horietarako eskubidea sortu duen pertsona jasotzailea ez denean eta Estatuko Administrazioak ordaintzen dituztenean.

4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egindako ordainketa zatikatuak titulu honetan jasotakoaren arabera exijituko dira, zergadunaren ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

92. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharra.

1.¹⁹ 95. artikuluan aipatzen diren pertsona edo entitateek ondorengo artikuluan adierazten diren errentak ordaintzen dituztenean, behartuta daude atxikipena egitera eta zenbateko hori Foru Aldundiari ordaintzera, jasotzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, erregelamendu honetan jasotako arauei jarraituz.

Atxikitze eta kontura sartzeko obligazioa egongo da, orobat, erregelamendu honetan ezarritako baldintzen arabera, aktibo finantzarioak eskualdatzen direnean, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, eta harpidetza eskubideak eskualdatzen direnean.

2. Aipatutako errentak gauza bidez ordaintzen direnean, 95. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateek konturako sarrera bat egin beharko dute, erregelamendu honetan jasotzen diren arauei jarraituz, jasotzaileari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa

3. Erregelamendu honetan jasotakoaren ondorioetarako, atxikitzaileari buruzko erreferentziak konturako sarrerak egitera behartutakoari ere egiten zaizkiola ulertuko da bi konturako ordainketak batera arautu behar direnean.

93. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak.

1. Honako errenta hauek atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta egongo dira:

a) Lanaren etekinak.

b) Kapital higigarriaren etekinak.

c) Jarduera ekonomiko hauen etekinak:

- Jarduera profesionalen etekinak.

- Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etekinak.

¹⁹ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egun jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



- Baso jardueren etekinak.
- Hamargarren xedapen gehigarrian jasotako jarduera enpresarialen etekinak.
- d)²⁰ Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaide-tzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabaziak, eta harpidetza eskubideen eskualdaketatik datozenak.

2. Honako errenta hauek ere atxikipenari edo konturako sarrerari egongo dira lotuta, beren kalifikazioa edozein dela ere:

- a) Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematek datozen etekinak.

Ondorio horietarako, errentan emateari buruzko erreferentziak azpierrean emateari ere egiten zaizkiola ulertuko da.

- b) Jabetza intelektual nahiz industrialetik datozen etekinak, laguntza tekniko ematek datozenak, ondasun higiezin, negozio eta meategiak errentan emateagatik lortutakoak, aurreko ondasunak azpierrean ematek datozenak eta irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik eskuratutakoak.

- c) Jokoetan, sariketetan, zozketetan edo konbinazio aleatorioetan parte hartzeagatik ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon ala ez.

3.²¹ Konturako ordainketa bat egiteko obligazioa egongo da zergaren foru arauko hogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan aurreikusitako kasuak betetzen direnean, baldin eta kapital higigarriaren etekin positiboak lortu badira eta etekin horiei aipatutako foru aruaren 9. artikuluko 34. zenbakian jasota dagoen salbuespena aplikatu bazaie.

94. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra salbuestea.

Ez da derrigorrezkoa izango ondoko errenten gainean atxikipenik edo konturako sarrerarik egitea:

²⁰ Letra hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

²¹ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bost apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



a) Errenta salbuetsiak, alde batera utzita zergaren foru arauak 9.24 artikuluan jasotakoa, eta joan-etorrien gastuetarako eta mantenu gastu arruntetarako ematen diren zergapetu gabeko dietak eta diru-esleipenak.

b) Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak, baldin eta moneta merkatuko esku hartzea arautzeko tresna badira, eta Altxorreko Letren etekinak.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin Altxorreko Letren eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

c) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

d) Atzerriko kontuen etekinak, lurralde espainiarrean egoitza duten kreditu entitateek nahiz establezimendu finantzarioek establezimendu iraunkorren bidez atzerrian ordaindu dituztenean.

e) Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak gardentasun fiskaleko araubidean tributatu badu.

f) Etekin esplizitua duten aktibo finantzarioak eskualdatzeak edo itzultzeak sortutako etekinak, baldin eta beharkizun hauek betetzen badituzte:

1.- Kontuko oharpenen bitartez adierazita egotea.

2.- Espainiako bigarren mailako balore merkatu batean negoziatuak izatea.

Aktibo finantzario horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzean esku hartzen duten entitate finantzarioak behartuta egongo dira balorearen titularrari egotzitako etekina kalkulatzera eta horren berri titularrari nahiz Zerga Administrazioari ematera. Era berean, lehenago aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonen buruzko datuak emango dizkiote Zerga Administrazioari.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak letra honetan araututako atxikipen salbuespena gauzatzeko behar den prozedura ezar dezake.

Dena den, f) letra honetan jasotakoa jasota ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin aurreko baloreei buruzko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

Era berean, atxikipenari lotuta geratuko da kupoiaren mugaeguna iritsi aurreko lehen 30 egunen barruan egindako aktibo finantzarioak eskualdatzeko eragiketetan kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia, honako beharkizun hauek betetzen direnean.

- Eskuratzailea lurralde espainiarrean egoiliarra ez den pertsona edo entitatea izatea, edo sozietateen gaineko zergaren zergaduna izatea.

- Balore eskualdatuetatik eratorritako etekin esplizituak atxikitzeko betebeharretik salbuetsita egotea eskuratzaileari dagokionez.



g) Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren Legeak edo Zori, enbido eta adur jokoaren eta apustuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak arautzen dituen 1977ko otsailaren 25eko 16/77 Errege Dekretu Legeak jasotakoaren babesean antolatutako jokoaren ondorioz ematen diren sariak, bai eta 300 eurotik gorako atxikipen oinarriak ez duten sariak ere.

h) Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematek datozen etekinak, honako kasu hauetan:

- Enpresek beren langileentzat errentan hartutako etxebizitzak direnean.

- Errentariak errentatzaile berberari urtean ordaindutako errentak 900 eurotik gorakoak ez direnean.

- Errentatzailearen jardura 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak, Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duenak, jasotako tarifen lehen sekzioaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrean emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrean ematen diren ondasun higiezinaren balio katastralari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuta zero kuota ateratzen ez denean.

Ondorio horietarako, errentatzaileak beharkizun hori bete duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duenaren arabera.

i) Akzio edo partaidetzen jaulkipen prima itzultzearen eta ekarpenak bueltatuz kapitala murriztearen ondorioz sortutako etekinak, salbu banatu gabeko mozkinetatik badatoz, zergaren foru arauak 41.2.a) artikularen bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera.

j) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen, pentsio planen, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateen alde egindako kontribuzio edo ekarpen enpresarialak, erregelamendu honetan jasotakoaren arabera.

k) Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

l) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik sortutako ondare irabaziak, zergaren foru arauak 48. artikuluan jasotakoaren ondorioz konputatu behar ez direnean, eta, orobat, 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak 79. artikuluan araututako funts edo sozietateetako partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik sortutakoak.

95. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuak.



1. Izaera orokorrez, honako hauek daude atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta, betebeharrak honi lotutako errentak ordaintzen dituzten heinean:

a) Pertsona juridikoak eta gainontzeko entitateak, jabekideen komunitateak eta errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak barne.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak egiten dituztenean eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen dituztenean.

c) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, bertan establezimendu iraunkorraren bidez aritzen direnean.

d) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta 1999ko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 23.2 artikuluan aipatutako errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Ordainketa batean bitartekari soila izatera mugatzen denean, ezingo da ulertu pertsona edo entitate batek errentak ordaintzen dituenik.

Ordainketa batean bitartekari soila dela ulertuko da hirugarren baten kontura eta horren aginduz diru kopuru bat ordaintzen denean.

Jarraian adierazten diren kasuak ez dira hartuko ordainketako bitartekaritza soiltzat eta, beraz, kasu horietan lehenago aipatu diren pertsona eta entitateek egin beharko dute atxikipena eta konturako sarrera:

- Lurralde espainiarrean egoiliarren diren atzerriko baloreak gordailatzen dituztenean edo balore horietatik eratorritako errenten kobrantzaz arduratzen direnean, baina betiere errenta horiek aldeztu aurretik atxikipenik izan ez badute Espainian.

- Beren langileei Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzen dizkietenean.

- Beren langileei hirugarren batek emandako eskupekoak, zerbitzuen ordainsariak edo antzekoak ordaintzen dizkietenean.

- Nekazaritza kooperatiben kasuan, beren bazkideen ustialekuetan ekoiztutako produktuak banatu edo komertzializatzen dituztenean.

2. Bereziki, atxikitzen eta kontura sartzera behartuta egongo dira:

a) Entitate egoiliarren edo establezimendu iraunkorren, zergadunak horientzat aritzen direnean, baldin eta zergadun horiei ordaintzen zaizkien lan etekinak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 42. artikuluan jasotakoaren arabera haiei lotuta dagoen beste entitate batek, egoiliarra izan ala ez, ordaintzen baditu, edo lurralde espainiarrean kokaturiko establezimendu iraunkorren atzerrian duen titularrak ordainduak badira.



b) Aktibo finantzarioei buruzko eragiketetan, honako hauek:

1.- Aktibo finantzarioak amortizatuz edo itzuliz lortutako etekinak direnean, entitate edo pertsona jaulkitzaileak. Alabaina, eragiketa horiek egitea finantza entitate baten esku uzten denean, finantza entitate horrexek egin beharko du atxikipena.

Beren jaulkipena egin ondoren aktibo finantzario bihurtu diren igorpen baliabideak direnean, horien epemuga behin iritsita, fede emaileak egingo du atxikipena edo, bestela, haien kobrantzaz arduratzen den finantza entitateak.

2.- Aktibo finantzarioak, aurreko zenbakian aipatuako igorpen baliabideak barne, eskualdatzean lortutako etekinak direnean, eta eskualdaketa hori finantza entitate batek edo gehiagok bideratu dutenean, eskualdatzailearen izenean diharduen bankuak, aurrezki kutxak edo finantza entitateak egingo du atxikipena.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da eskualdatzailearengandik aktibo finantzarioak saltzeko agindua jasotzen duen banku, aurrezki kutxa edo finantza entitatea diharduela haren izenean.

3.- Aurreko apartatuetan aipatzen ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez esku hartu behar duen fede-emaile publikoak egingo du atxikipena.

c) Estatuko Zorraren baloreak eskualdatzen direnean, eskualdaketa esku hartzen duen Oharpen bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzailea.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitate hauek:

1.- Inbertsio funtsen partaidetzak itzultzen badira, sozietate kudeatzaileak, salbu eta entitate merkaturatzaileek beren izenean eta partaideen kontura erregistratutako partaidetzengatik, horrelakoetan entitate merkaturatzaileak egongo baitira atxikitsera edo kontura sartzera behartuta.

2.- Kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek, ez burtsan ez baloreak negoziatzeko beste merkatu edo sistema antolatu batean akziorik kotizatzen ez duenak, berriro erosten baditu zergadunak bere kabuz zein merkaturatzaile baten bitartez sozietateari aurrez erositako akzioak, sozietatea bera. Dena den, sozietate kudeatzaile batek esku hartzen badu, horixe izango da.

3.- Atzerrian helbideraturik dauden inbertsio kolektiboko erakundeak badira, atxikipena edo konturako sarrera akzio edo partaidetzak komertzializatzen dituzten entitateek nahiz komertzializatzeko ahalmena duten bitartekariak egingo dute, eta subsidiarioki, baloreak harpidedun posibleen artean merkaturatu nahiz banatzen dituzten entitateek, betiere itzulketa egiten dutenean.

4.- Zerbitzuen prestazio libreko araubidean jarduten duten kudeatzaileak badira, 2004ko apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera izendatutako ordezkaria egongo da horretara behartuta.



5.-²² Atxikipena ez bada egin behar aurreko zenbakietan adierazitakoaren arabera, eskualdaketa egin duen edo dirua itzuli zaion bazkide edo partaidea egongo da behartuta konturako ordainketa bat egitera. Konturako ordainketa hori 109., 110.1 eta 111. artikuluetan jasota dauden arauei jarraituz egingo da.

e)²³ Eragiketak Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean helbideratuta dauden aseguru entitateek egiten badituzte zerbitzu prestazio librean jardunez, aseguru entitateak berek egingo dute atxikipena edo konturako sarrera.

f)²⁴ Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden pentsio funtsek egindako eragiketetan, zeinetan garatzen baitira Espainiako legeriari lotutako enpleguko pentsio planak, Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EEE Zuzentarauak, enpleguko pentsio funtsen jardueri eta ikuskapenari buruzkoak, ezarritakoarekin bat, atxikipena edo konturako sarrera pentsio funtsek berek edo, hala badagokio, haien entitate kudeatzaileek egingo dute.

g)²⁵ Zergaren foru arauko hogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan adierazitako kasuetan, epe luzerako aurrezki plana zergadunari kontratatu dion kreditu edo aseguru entitatea. Konturako ordainketa hori erregelamendu honetako 103. artikuluan, 106. artikuluko 7. apartatuan eta 107. artikuluko 3. apartatuan jasotako arauei jarraituz egingo da.

²² Zenbaki hau aldatu du abenduaren 22ko 47/2014 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua ordinal lehenaren sei apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2014-12-30ko GAO). Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²³ Letra hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua hirugarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).

²⁴ Letra hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua hirugarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).

²⁵ Letra hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren sei apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



h)²⁶ Harpidetza eskubideen eskualdaketetan, entitate gordailuzaina, eta, haren ezean, eskualdatzailearen kontura jarduten duen finantza bitartekaria edo eskualdaketan esku hartu duen fede-emaile publikoa.

3. Atxikipena egitera behartuta dauden subjektuek hura ordaintzeko obligazioa ere hartuko dute beren gain, eta ez dira obligazio horretatik salbuetsita geldituko atxikitzeko obligazioa bete ez arren.

Etekinak Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen duenean, atxikipena eta sarrera zuzenean egingo da.

96. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko, atxikipen oinarriari ondorengo II. kapituluan jasotakoaren arabera dagokion atxikipen tasa aplikatuko zaio. Ordaintzen den zenbateko osoa izango da atxikipen oinarria, eragotzi gabe 99. artikuluan lan etekinatarako jasotakoa, 103. artikuluan kapital higigarriaren etekinatarako xedatutakoa eta 109. artikuluan inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazietarako jasotakoa.

2. Gauza bidez jasotzen diren ordainketengatik egin behar den konturako sarrera kalkulatzeko, erregelamendu honetako arauei jarraituta zehaztutako balioari ondorengo III. kapituluan jasotakoaren arabera dagokion portzentajea aplikatuko zaio.

97. artikulua. Atxikitzeko edo kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.

1. Izaera orokorrez, errentak ordaintzen diren unean sortuko da atxikitzeko edo kontura sartzeko betebeharra.

2.²⁷ Kapital higigarriaren etekinetan, 107. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

3.²⁸ Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik sortutako ondare irabazietan, eta harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik eratorritakoetan, 111. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

²⁶ Letra hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren sei apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

²⁷ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren zazpi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

²⁸ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren zazpi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko



98. artikulua. Atxikipenen edo konturako sarreren denboraren araberako egozpena.

Atxikipena edo konturako sarrera izan duten errentak egozteko erabili den zergaldiari egotziko dizkiote zergadunek atxikipenak edo konturako sarrerak, noiz egin diren alde batera utzita.

II. KAPITULUA. Atxikipenen kalkulua

1. sekzioa: lanaren etekinak.

99. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. Lan etekinen gainean egin beharreko atxikipena lan etekinen zenbateko osoari ondokoan artean dagokion portzentajea aplikatuz ateratzen den emaitza izango da:

a) Izaera orokorrez, zergadunaren etekinen eta zirkunstantzia pertsonalen arabera ondorengo artikuluan jasotako taulari eta jarraibideen arabera egokitzen den portzentajea.

b) Ordainsariak administrazio kontseiluetako edo horien ordezkoko batzordeetako administratzaile eta kideek nahiz beste ordezkari organoetako partaideek jasotzen dituztenean, atxikipen portzentajea 100eko 35 izango da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, lan errenta jakin batzuei aplikagarri bazaizkie zergaren foru arauak 19., 19. bis edo 20. artikuluetan aipatutako portzentajeak, errenta horien zenbateko osoa portzentaje horiek aplikatuz kalkulatu da.

Ordaintzaile bera duten lan errentetan, 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak ez dira aplikagarriak izango zergaren foru arauko 19.2 artikuluan aurreikusitako mugak gainditzen dituzten errenten zenbatekoen gainean.²⁹

3. Jasotzaile berberari diruz eta gauzen bidez ordaintzen zaizkionean lan errentak, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da.

4. Atxikipenaren portzentajea aurreikus daitezkeen diruzko nahiz gauzen bidezko ordainsari finko nahiz aldakorrek kontuan hartuz kalkulatu da.

Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

²⁹ Paragrafo hau, abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua hiru ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



Alabaina, atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartu behar den oinarrian ez dira sartuko borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen bazkide babesleek egindako kontribuzioak, ez eta enpresariak pentsio planei, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako kontribuzioak ere, baldin eta zerga oinarri orokorra murrizten badute zergaren foru arauak 71.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz ateratzen den gehieneko mugaraino.

Era berean, atxikipen oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

Aurreko paragrafoetan aipatutako portzentajea kontraprestazio eta onura guztiei aplikatzean lortzen den zenbatekoa ordaindutako diruzko etekinetatik gutxituko da.

100. artikulua. Atxikipen portzentajeen taula eta aplikaziorako arauak.

1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra:

Urteko etekina (€)		Ondorengo ahaideen kopurua						
Behe muga	Goi muga	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,00	11.690,00	0	0	0	0	0	0	0
11.690,01	12.160,00	1	0	0	0	0	0	0
12.160,01	12.670,00	2	0	0	0	0	0	0
12.670,01	13.220,00	3	1	0	0	0	0	0
13.220,01	13.820,00	4	2	0	0	0	0	0
13.820,01	14.480,00	5	3	0	0	0	0	0
14.480,01	15.210,00	6	4	2	0	0	0	0
15.210,01	16.010,00	7	5	3	0	0	0	0
16.010,01	17.210,00	8	6	4	0	0	0	0
17.210,01	18.620,00	9	7	5	2	0	0	0
18.620,01	19.960,00	10	9	7	4	0	0	0
19.960,01	21.470,00	11	10	8	5	1	0	0
21.470,01	22.960,00	12	11	9	6	3	0	0
22.960,01	24.350,00	13	12	10	8	4	1	0
24.350,01	26.650,00	14	13	11	9	6	3	0
26.650,01	29.160,00	15	14	13	10	8	4	0



29.160,01	32.190,00	16	15	14	12	10	6	0
32.190,01	36.300,00	17	16	15	13	11	8	0
36.300,01	39.270,00	18	17	16	15	13	10	3
39.270,01	42.310,00	19	18	17	16	14	12	5
42.310,01	45.450,00	20	19	18	17	15	13	7
45.450,01	48.950,00	21	20	20	18	17	15	9
48.950,01	52.900,00	22	21	21	19	18	16	11
52.900,01	56.270,00	23	22	22	21	19	18	12
56.270,01	60.000,00	24	23	23	22	21	19	14
60.000,01	64.280,00	25	25	24	23	22	20	16
64.280,01	69.190,00	26	26	25	24	23	22	17
69.190,01	74.420,00	27	27	26	25	24	23	19
74.420,01	79.070,00	28	28	27	26	25	24	20
79.070,01	84.310,00	29	29	28	27	27	25	22
84.310,01	90.320,00	30	30	29	29	28	27	23
90.320,01	97.240,00	31	31	30	30	29	28	25
97.240,01	104.860,00	32	32	31	31	30	29	26
104.860,01	113.250,00	33	33	32	32	31	30	28
113.250,01	123.460,00	34	34	33	33	32	32	29
123.460,01	135.230,00	35	35	35	34	33	33	31
135.230,01	148.600,00	36	36	36	35	35	34	32
148.600,01	164.240,00	37	37	37	36	36	35	34
164.240,01	183.560,00	38	38	38	37	37	36	35
183.560,01	203.570,00	39	39	39	38	38	38	36
203.570,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	38

2. Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1.-. Taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ondorengo ahaideen kopurua zergaren foru arauak 79. artikuluan jasotzen duen kenkarirako eskubidea ematen dutenena izango da. Ondorio horietarako, famili egoera urte naturalaren lehen egunean dagoena izango da edo, bestela, harremana hasi den egunean dagoena, harreman hori data horren ondoren hasi bada.

Atxikipena aplikagarria den zergaldian 30 urte baino gehiago bete behar dituzten ondorengo ahaideak ez dira konputatuko, salbu eta ondorengo ahaide horiek



zergaren foru arauaren 82. artikuluan aipatutako kenkaria egiteko eskubidea ematen badute.

2.- Taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ordainsarien bolumena jasotako ordainketa osoaren arabera kalkulatu da. Kontuan hartuko dira, horretarako, zergadunak, arau edo baldintza kontraktual aplikagarrien arabera eta gainerako egoera aurreikusgarri jarraikiz, urte naturalean zehar normalki jasoko dituen diruzko nahiz gauzen bidezko ordainsariak.

Ordainsari finkoak nahiz aurreikus daitezkeen aldakorrak ere hartuko ditu urteko ordainsari osoak.

Baldin eta aurreko ordainsarien artean zergaren foru arauak 19., 19. bis edo 20. artikuluetan xedatutakoa aplikagarri duen ordainsaririk badago, atxikipen portzentajea kalkulatzeko, etekin gisa konputatu da artikulua horietan jasotakoetatik dagokion portzentajea eta, hala badagokio, 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeen mugak aplikatuz ateratzen den etekina.

3.- Horrela kalkulatu atxikipen portzentajea ematen diren ordainsari guztiei aplikatuko zaie. Baldin eta aurreko ordainsarien artean zergaren foru arauak 19., 19. bis eta 20. artikuluetan xedatutakoa aplikagarri duen ordainsaririk badago, kalkulatu atxikipen portzentajea aplikatuko da aipatutako artikuluetan jasotakoetatik dagozkion portzentajea eta, hala badagokio, muga aplikatuz ateratzen den etekinaren gainean.

Diruz nahiz gauza bidez ematen diren ordainsarien zenbatekoa urtean zehar aldatzen denean, beste portzentajea bat kalkulatu da izandako aldaketak kontuan hartuz. Portzentaje berria aipatutako aldaketak gertatzen diren egunetik aurrera aplikatuko da bakarrik.

Baldin eta, behin urtebetetik beherako kontratu edo lan harreman batean aurreikusitako epea amaiturik, langileak enplegu emaile berarentzat lanean jarraitzen badu, edo urte naturalaren barruan berriro lanean hasten bada, atxikipen portzentaje berria zehaztuko da, lehenik ordaindutako ordainsariak eta urte naturalaren barruan normalki jasoko dituenak kontuan hartuz.

4.- Aurreko apartatuetan xedatutakotik ateratzen den atxikipen portzentajea ezingo da txikiagoa izan 100eko15 baino, etekinak menpeko lan harreman berezietatik datozenean, ez eta 100eko 2 baino txikiagoa ere urtebetetik beherako kontratu edo lan harremanen kasuan.

Alabaina, aurreko paragrafoan aipatutako 100eko 15eko gutxieneko atxikipena ez zaie aplikatuko kartzeletan espetxeratuta daudenean lortutako etekinei eta pertsona desgaituek izaera bereziko lan harremanen ondorioz jasotako etekinei.

3. Taula aplikateko berriazko erregelak.

1.- Pentsioak eta hartzeko pasiboak direnean, ondorengo ahaide bat duten zergadunentzat taularen zutabeaz ezarrita dauden atxikipen portzentajeak aplikatuko dira.

Aplikaziozkoa den atxikipen portzentajea zehaztearen ondorioetarako, eta horretarako bakarrik, bidezkoa izango da pentsiodunek edo hartzeko pasiboan



titularrek jasotako kopuruak urte osokotzat hartzea ekitaldian zehar izaera hori bereganatzen badute.

Edonola ere, zergadunak atxikipenen taula orokorra aplikatzea aukeratu ahal izango du, bere egoera pertsona nolakoa den kontuan hartuta, baina kasu horretan kopuruak ezingo dira urte osora eraman.

2.- Esku langileen kasuan, enplegu emailearekin duten harremana noizbehinkakoa eta egunekoa denean eta beren ordainsariak peonadaka edo egunsarika jasotzen dituztenean, taula aplikatzeko kontuan izan beharreko ordainsarien bolumena jasotako peonadaren edo egunsariaren zenbatekoa 100ekin biderkatuz kalkulatu da.

3.- Lan etekinen jasotzaileak, epaileen erabakiz, pentsio konpentsagarri bat ordaindu behar dionean ezkontideari edo izatezko bikote lagunari, bere zenbatekoak atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartu beharreko ordainsarien bolumena gutxitu ahal izango du.

Horretarako, zergadunak zirkunstantzia horren berri eman beharko dio bere ordaintzaileari, erregelamendu honek 101. artikuluan zehazten den eran, bai eta pentsioari buruzko erabaki judizialaren hitzez hitzeko testigantza erantsi ere.

Arau honetan jasotako murrizpena langileak iraupen mugagabeko kontratu batekin diharduenean bakarrik aplikatuko da, eta ezingo da inbokatu pentsioa judizialki finkatu den zergalditik aurrera baizik.

Arau honetan jasotzen diren kasuetan 100eko 2tik beherako atxikipen portzentajea ateratzen bada, azken hau aplikatuko da.

Erregela honetan jasotakoa ez da aplikatuko pentsio osagarria jasotzen duen pertsona hura ordaintzera behartuta dagoen pertsonarekin batera bizi denean.

4. Langile aktibo desgaituak.

Langile aktibo desgaituei 1. apartatuan aipatutako atxikipen portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatuta ateratzen den atxikipen portzentajeari ondorengo eskalan adierazitako puntuak gutxituko zaizkio, aipatutako langilea egoera hauetako batean dagoenean:

a) Desgaitasun maila 100eko 33 edo handiagoa eta 100eko 65etik beherakoa duten langile aktiboak.

b) Desgaitasun maila 100eko 33 edo handiagoa eta 100eko 65 baino txikiagoa duten langile aktiboak, baldin eta mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, II. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

c) Desgaitasun maila 100eko 65 edo handiagoa duten langile aktiboak.



Urteko etekina		Desgaitasun maila		
		4.a) apartatua	4.b) apartatua	4.c) apartatua
Behe muga	Goi muga			
0,01	22.960,00	9	12	
22.960,01	29.160,00	7	12	
29.160,01	42.310,00	6	10	
42.310,01	48.950,00	5	10	
48.950,01	69.190,00	4	8	
69.190,01	104.860,00	3	6	
104.860,01	164.240,00	2	5	
164.240,01	Hortik aurrera	1	3	

101. artikulua. Lan errentak jasotzen dituenak bere datuen berri ematea ordaintzaileari.

1. Erregelamendu honek 100.1 artikuluan jasotako taula aplikatzeko, zergadunek ordaintzaileari jakinarazi beharko dio zenbat ondorengo ahaidek ematen duten zergaren foru arauaren 79. artikuluan jasotako kenkarirako eskubidea, eta, hala badagokio, berekin bizi ez diren ezkontideei edo izatezko bikote lagunei epaileen erabakiz pentsio konpentsagarri bat ordaintzeko obligazioa duela ere adieraziko dio.

Era berean, langile aktibo desgaituek zergaren foru arauaren 23.3 artikuluan jasotako egoera jakinarazi eta frogatu beharko dute, 100.4 artikuluan xedatutakoa ere aplikatzeko. Egoera hori frogatzeko, 63.1 artikuluan jasotako frogagiri edo ziurtagirietako bat erabiliko da.

2. Ordaintzaileari ez bazaio aurreko apartatuan aipaturiko datuen berri ematen, hark datu horiek kontuan hartu gabe aplikatuko du dagokion atxikipen portzentajea, eta daturik ez emateak edo horien komunikazioa zuzena ez izateak bidezko zigorrak ezartzea ekar dezake, hala badagokio.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den datu komunikazioa urte natural bakoitzeko lehen eguna baino lehen edo harremana hasten den unean egingo da.

Zergadunak egindako azken komunikaziotik datuak aldatu ez badira, ez da beharrezkoa izango ordaintzaileari ekitaldi bakoitzean ematea datu horien berri.

4. Zergadunek edozein unetan eskatu ahal izango diete beren ordaintzaileei erregelamendu honetan jasotakotik ateratzen direnak baino atxikipen portzentaje handiagoak aplikatzea, arau hauei jarraituz:

a) Eskaera idatziz aurkeztuko zaie ordaintzaileei, nominak prestatzen hasteko behar den aurrerapenez, eta horiek derrigorrez erantzun beharko diote eskatutakoari.



b) Eskatutako atxikipen portzentaje berria ezingo da aldatu eskaera egunetik hasi eta urte amaiera bitarteko epean –salbu 100.2 artikuluko 3. erregelari aipatutako kasuetan-. Zergadunari ondorengo ekitaldietan aplikatuko zaio, harik eta aipatu portzentajeari idatziz uko egin edo atxikipen portzentajea handiagoa eskatzen den arte, eta, beti ere, zirkunstantziaren bat aldatzeagatik tasa handiagoa bat ezartzea beharrezkoa gertatzen ez bada, atxikipen portzentajeen taulen arabera.

5. Pentsiodunek atxikipen portzentajeen taula orokorraren alde egin dezaketen aukera idatziz aurkeztuko zaio ordaintzaileari edo entitate kudeatzaileari. Urte bakoitzeko abenduaren barruan egingo da aukera hori edo, bestela, pentsiodun eta hartzeko pasiboaren titular bihurtzen den hilabetearen aurrekoan.

6. Ordaintzaileak zergadunak aurkeztutako frogagiri eta komunikazioak gorde beharko ditu, eta Zerga Administrazioaren esku jarri horrek eskatzen dituenean.

102. artikulua. Lan etekinen gaineko atxikipenak zehazteko prozedura berezia, bizilekua aldatzen denean.

1. Zerga honen zergadunak ez diren baina lurralde espainiarrera aldatuta izaera hori hartuko duten besteren konturako langileek Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango diote zirkunstantzia hori, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartzen duen komunikazio ereduaren bitartez. Era berean, diputatuak zehaztuko du komunikazioa nola, non eta noiz aurkeztu, bai eta horri erantsi beharreko dokumentazioa ere.

Aipatu komunikazioan ondoko hauek adierazi beharko dira: langilearen eta lan etekinen ordaintzailearen identifikazioa, noiz sartu den lurralde espainiarrean eta noiz hasi den lan prestazioa lurraldean ordaintzaile horri dagokionez. Era berean, adierazi beharko da lan harreman horretan ba ote dauden datu objektiboak lan harremanaren ondorioz lurralde espainiarrean ehun eta lauogeita hiru egunetik gorako egonaldia gertatzeari buruz, lan prestazioa lurralde espainiarrean hasten denetik aurrera, lekualdaketa gertatzen den urtearen barruan edo, hori horrela ez bada, ondorengo urtean.

2. Behin komunikazioa eta dokumentazioa azterturik, hala badagokio Zerga Administrazioak frogagiria luzatuko dio langileari, komunikazioa aurkeztu ondorengo hamar laneguneko gehieneko epean. Frogagirian zerga honen atxikipenak noizdanik egingo diren adieraziko da.

3. Zerga Administrazioak luzatutako dokumentuaren ale bat emango dio langileak lan etekinen ordaintzaileari, hark han adierazitako datatik aurrera pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduntzat har dezan, atxikipenak egiteko.

4. Behin dokumentua jasota, atxikitzen behartuta dagoenak atxikipenak egingo ditu zerga honen araudian xedatutakoaren arabera, aipatutako data kontuan hartuz.

5. Interesatuak bera lurraldez aldatu den urtean zerga honen zergadun izaera lortzen ez duenean, zerga honen kontura egindako atxikipenen kenkaria egin ahal izango du ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioan.



Era berean, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak 30. bis artikuluan jasotakoa aplikagarri izan denean eta langileak bera atzerrira aldatu den urtean ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari zergadun izaera lortu ez duenean, zerga horren atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketatzat hartuko dira.

2. sekzioa: kapital higigarriaren etekinak.

103. artikulua. Kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.³⁰

1. Kapital higigarriaren etekinei egin beharreko atxikipena kalkulatzeko, atxikipen oinarriari 100eko 19ko tasa aplikatuko zaio.
2. Kapital higigarriaren etekin positiboetara egin beharreko atxikipena edo konturako ordainketa kalkulatzeko –erregelamendu honen 93. artikuluko 3. apartatuan aipatutakoa–, atxikipen oinarriari 100eko 19ko tasa aplikatuko zaio.

104. artikulua. Aktibo finantzarioen kontzeptua eta sailkapena.

1. Besteren kapitalak bereganatu eta erabili izana adierazten duten balore negoziagarriak hartzen dira aktibo finantzariotzat, zeinahi eran dokumentatzen direla ere.
2. Etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko badira, aktibo horien etekina sortu behar da aktiboa jaulkitzean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosua egitean ordaindutako zenbatekoak diferentzia bat izateagatik eragiketa horien epemugan itzultzeko aginduta zegoenaren aldean, betiere eragiketa horien etekina, osorik edo zati batean, modu inplizituan finkatu bada besteren kapitalak bereganatzeko erabilitako edozein balore higikorren bidez.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin inplizituen barruan sartzen dira.

Etekin inplizituen kontzeptutik kanpo geratzen dira jaulkipen prezioaren gainean egindako hobariak edo kokapen primak, baldin eta merkaturako praktiken barruan sartzen badira eta beren osoan diru-sarrera bat osatzen badute xedapen honetan araututako aktibo finantzarioen jaulkipen edo zirkulazioan parte hartzen duen bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Igorpen baliabide guztiak, baita merkataritzako eragiketetan sortutakoak ere, endosatu edo eskualdatzen diren momentutik etekin inplizituko aktibo

³⁰ Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren zortzi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egun jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



finantzariotzat hartuko dira. Endosua edo lagapena hornitzaileen kredituak ordaintzeko egiten denean, ordea, ez da halakotzat hartuko.

3. Interesak sortzen dituzten etekinak etekin esplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira. Halakotzat joko da, era berean, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik kontraprestazio gisa hitzartzen den beste edozein ordainketa era, betiere aurreko apartatuan etekin inplizituei buruz emandako kontzeptuan sartzen ez bada.

4. Etekin mistoko aktibo finantzarioek urtean sortzen duten efektiboa jaulkipenaren unean indarrean dagoen erreferentzia-tasaren berdina edo handiagoa bada, etekin esplizituko aktibo finantzarioen araubidea izango dute, nahiz eta jaulkitzeko, amortizatzeko eta itzultzeko baldintzetan inplizituki beste etekin gehigarri bat finkatuta izan. Erreferentzia-tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bono edo obligazioekin egindako azken enkantean ateratako batez besteko prezio ponderatu biribilduari dagokion tasa efektiboaren 100eko 80. Enkanteak izan daitezke hiru urtetarako bonoenak, lau urteko edo hortik beherako epea duten aktibo finantzarioak badira, bost urtetarako bonoenak, lau eta zazpi urte bitarteko epea duten aktibo finantzarioak badira, eta hamar, hamabost edo hogeita hamar urtetarako obligazioenak, epe handiagoa duten aktibo finantzarioak izanez gero. Epe bati buruzko erreferentzia-tasa zehazterik ez dagoenean, pentsatutako jaulkipenari gehien hurbiltzen zaion epearena aplikatuko da

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakor edo flotakorra duten aktibo finantzarioak jaulki baldin badira, barruko etekin tasa hartuko da eragiketaren interes efektibotzat, eta etekin esplizituko etekinak baino ez dira kontuan izango. Sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldiari behin finkatzeko erabilitako parametroaren hasierako balorazioari begiratuko zaio tasa kalkulatzeko.

Aurretik jasotakoa jasota ere, etekin mistoa duen zor publikoa bada (amortizazio kupoiak eta zenbatekoa prezio indize baten arabera kalkulatu dira), lehen paragrafoan jasotako portzentajea 100eko 40 izango da.

105. artikulua. Aktibo finantzarioak eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko baldintza fiskalak.

1. Gertatzen bada etekin inplizituko titulu edo aktibo finantzarioak nahiz etekin esplizitukoak saldu edo itzuli nahi direla, eta horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzean atxikipena izan behar dutela, derrigorrez egiaztatu beharko da horiek atxikipena egitera behartuta dauden fede emaile edo finantza entitateek parte hartuz eskuratu direla aldez aurretik, eta eragiketaren prezioa ere frogatu beharko da.

Zirkulazioan jarri ondoren igorpen baliabide bat aktibo finantzario bihurtzen denean, lehen endosua edo lagapena fede emaile publiko batek edo finantza entitate batek egin beharko du, non eta endosu hartzailea edo eskuratzaila finantza entitate bat ez den. Fede emaileak edo finantza entitateak aktibo finantzario bat dela adieraziko dute agirian, eta lehen eskuratzaila edo edukitzailea zein den ere azalduko dute.



2. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, horren izenean diharduen erakunde finantzarioak, fede emaile publikoak nahiz eskuratzaille edo gordailu egilearen izenean diharduen edo esku hartzen duen erakunde finantzarioak, bidezkoa denaren arabera, ziurtagiria luzatu beharko du honako xehetasun hauek adieraziz:

- a) Eragiketaren eguna eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzaillearen izena.
- c) Eskuratzaillearen edo gordailu egilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Eskurapen prezioa.

Ziurtagiriaren hiru ale luzatuko dira. Horietako bi eskuratzailleari emango zaizkio eta, bestea, aldiz, pertsona edo entitate ziurtagilearen esku geratuko da.

3. Erakunde finantzarioek edo fede emaile publikoek ez dute aktibo horien eskualdaketan bitartekaritza izango edo eskurik hartuko, eskualdatzaileak ez badu eskurapena frogatzen artikulua honetan xedatutakoaren arabera.

4. Artikulu honetan aipatutako aktibo finantzarioak jaulkitzen dituzten pertsona edo entitateek ezingo dituzte haiek itzuli, edukitzaileak aurrez eskuratu dituenik frogatzen ez duenean aurreko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera egindako ziurtagiriaren bitartez.

Eragiketaz arduratzen diren jaulkitzaileak edo erakunde finantzarioek ez badiote, aurreko paragrafoaren arabera, itzulketarik egin behar titulu edo aktiboaren edukitzaileari, kopuru horren pareko gordailua eratu beharko dute eta agintari judizialen esku utzi.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, deuseztatu edo aldeztu aurretik amortizatzeko, ezinbestekoa izango da erakunde finantzario batek edo fede emaile publiko batek esku hartzea edo bitartekari izatea. Aktiboa jaulki duen pertsona edo entitatea eskuratzaille soil gisa geratuko da titulua berriz zirkulazioan jarriz gero.

5. Tituluaren edukitzaileak eskurapenaren ziurtagiria galduz gero, beste bat jaulkitzeko eskatu ahal izango dio ziurtagiria jaulki zuen pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek delako ziurtagiria ale bikoiztua dela adierazi beharko du, zer egunetan luzatzen duen ere agerian utziko duelarik.

6. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskualdaketa kosturik gabe eginez gero, eskuratzaillea eskualdatzailearen eskurapen balioan subrogatzen dela ulertuko da, baldin eta kostu hori behar bezala frogatzen bada.

106. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen oinarria.

1. Oro har, exijitu daitekeen edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da kapital higikorren etekinen oinarria. Inoiz ere, ondorio horietarako ez da kontuan hartuko zergaren foru arauak 9.24 artikuluan jasotako salbuespena.



2. Aktibo finantzarioak amortizatu, itzuli edo eskualdatzen direnean, atxikipen oinarria hauxe izango da: aktibo horien amortizazio, itzulketa edo eskualdaketa balioaren eta beren eskurapen edo harpidetza balioaren arteko diferentzia positiboa. Eskurapen balioetat eskurapenaren ziurtagirian ageri dena hartuko da. Ondorio horietarako, eragiketaren gastu osagarriak ez dira gutxituko.

Eskualdatzaileari egin dakioken atxikipenaren eragotzi gabe, entitate jaulkitzaileak aktibo bat eskuratzen bada eta aktibo hori berak jaulkitakoa bada, atxikipena eta konturako sarrera titularen geroko edozein eskualdaketatant lortutako etekinaren gainean egingo da, amortizazioa kanpo utzita.

3. Atxikitzeko betebeharra 94.f) artikulua azken paragrafoan jasotakoaren ondorio denean, atxikipen oinarria eskualdatutako balorearen kupoi korrituari dagokion prezioaren zatia izango da.

4. Zergaren foru arauak 37. artikuluan jasotako etekinei foru arau berak 39.3 artikuluan aipatutako portzentajeak aplikagarri bazaizkie, portzentaje horiek kontuan hartuz kalkulatu da atxikipen oinarria.

5. Aseguru kontratuengatik jasotzen diren zenbatekoetan eta kapitalen ezarpenaren ondorioz eskuratzen diren biziarteko nahiz aldi baterako errentetan, zergaren foru aruari jarraituz kalkulatu zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da atxikipen oinarria.

6. Atxikitzeko betebeharra sortzen bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 45.2 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketagatik, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

³¹7. Zergaren foru arauko hogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan ezarritako konturako ordainketa egin beharra dagoenean, haren oinarria hau izango da: Planaren indarraldian zehar lortu diren eta foru arau horren 9. artikuluko 34. zenbakiko salbuespena aplikatu zaien kapital higigarriaren etekin positiboen zenbatekoa.

107. artikulua. Kapital higigarriaren etekinen gainean atxikitzeko eta kontura ordaintzeko betebeharra sortzea.

1. Izaera orokorrean, atxikitzeko eta kontura ordaintzeko betebeharra sortuko da atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden kapital higigarriaren etekinak, diruzkoak nahiz gauza bidezkoak, exijigarri egiten diren unean edo, lehenago bada, ordaintzen nahiz entregatzen direnean.

³¹ Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren bederatzi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunera jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



Partikulariki, interesak exigigarriak izango dira eskrituran edo kontratuan likidazio edo kobrantzarako ezartzen diren mugaegunetan edo, bestela, kontuan beste moduren batez adierazten denean, nahiz eta jasotzaileak horien kobrantza erreklamatu ez edo etekinak eragiketaren tronkoari metatuak egon. Dibidenduak, berriz, banatzeko akordioan ezarritako egunean izango dira exigigarriak, eta, horretarako egunik jarri ez bada, orduan akordioa hartu eta biharamunetik aurrera.

2. . Kapital higigarriaren etekinak aktibo finantzarioak eskualdatuz, amortizatuz edo itzuliz lortu badira, atxikitzeko betebeharra aktibo horiek eskualdatu, amortizatu edo itzultzen diren unean sortuko da.

Atxikipena eskualdaketa gauzatzen den egunean egingo da, kobrantzarako hitzartu diren baldintzak edozein direla ere.

3.³² Zergaren foru arauko hogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan aipatzen den konturako ordainketa egiteko obligazioa sortuko da baldin eta, foru arau horren 9. artikuluko 34. zenbakian ezarritako epea amaitu aurretik, kapitalaren edozein baliatze egiten bada edo aipatutako xedapen gehigarriaren 1. apartatuko c) letran ekarpenentzat ezarritako muga urratzen bada.

3. sekzioa: jarduera ekonomikoen etekinak.

108. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.

1.³³ Etekinak jarduera profesional baten kontraprestazio direnean, 100eko 15eko atxikipen tasa aplikatuko da ordaindutako etekin osoen gainean.

Alabaina, jarduera profesional bat hasten duten zergadunen kasuan, atxikipen tasa 100eko 7 izango da jarduera hasten den zergaldian eta hurrengo bietan, betiere jarduera hasi aurreko urtean inolako jarduera profesionalik egin ez badute.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako atxikipen tasa aplikatzeko, zergadunek zirkunstantzia hori betetzen dela jakinarazi behar diote etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzailea behartuta dago komunikazioa gordetzera, behar bezala sinatuta.

³² Apartatu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren hamar apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

³³ Apartatu hau aldatu du uztailaren 28ko 73/2015 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko bat apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrea 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2015-07-30ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



Atxikipena 100eko 7 izango da etekinak jasotzen dituztenak honako hauek direnean:

— Udal zerga-biltzaileak.

— Aseguru bitartekariak, kanpoko laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituztenean.

— «Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado»ren ordezkari komertzialak.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera profesionalen etekinen barruan honako hauek sartzen direla joko da:

a) Orokorrean, 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak jarduera ekonomikoen gaineko zerga dela-eta onartutako tarifetako bigarren eta hirugarren sekzioetan sailkatutako jardueretatik datozenak.

b) Bereziki, honako hauek lortutakoak joko dira etekin profesionaltzat:

1.- Idazlanen egileek edo itzultzaileek lortutakoak, jabetza intelektual edo industrialetik datozenak. Egile edo itzultzaileek zuzenean argitaratzen dituztenean beren lanak, etekinak jarduera enpresarialeki dagozkien barruan sartuko dira.

2.- Komisionistek lortutakoak. Kontratua egin nahi duten alderdiak hurbiltzera mugatzen direnak joko dira komisionistatzat.

Aitzitik, aurreko paragrafoan aipaturiko lana egiteaz gain, merkataritza eragiketa horien arriskua edo mentura ere bere gain hartzen dutenean, komisionisten zereginak egitera ez direla mugatzen joko da, eta orduan jarduera enpresarialeki dagozkien barruan sartuko da etekina.

3.- Irakasleek lortutakoak, edozein izanik ere beren irakaskuntza mota, jarduera hori norberaren etxean, etxe partikularretan, akademietan edo establezimendu irekian egiten dutenean. Akademia edo establezimendu propioetan irakastea jarduera enpresarialtzat hartuko da.

4.- Hitzaldiak, mintegi edo ikastaroetako ponentziak edo antzeko ekintzak, lan harreman baten ondorioz ematen ez direnean.

3. Enpresa batetik kobratu eta bertan egiten dituzten eginkizunengatik elkargo profesionaletan izena ematera behartuta dauden pertsonak jasotzen dituzten kopuruak ez dira jarduera profesionalen etekintzat hartuko, ezta, oro har, harreman laboral edo menpeko baten ondorioz sortutakoak ere. Kopuru horiek lan etekinen barruan sartuko dira.

4. Etekinak nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera baten kontraprestazio direnean honako atxikipen portzentaje hauek aplikatuko dira:

- Txerri aziendaren gizentzea eta hegazti-hazkuntza: 100eko 1.

- Gainerako kasuak: 100eko 2.



Portzentaje horiek ordaindutako etekin osoei aplikatuko zaizkie, diru laguntza arruntak eta kapitalekoak nahiz kalte-ordainak kanpo utzita.

Ondorio horietarako, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueratzat hartuko dira zuzenean ustialekutik eta eraldaketa, elaborazio edo manufaktura prozesurik gabe produktu naturalak, landareenak edo abereenak lortzeko egiten diren jarduerak.

Eraldaketa, elaborazio edo manufaktura prozesutzat hartzen da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan jarduera industrialei dagokien epigrafe batean alta hartzea derrigorrezkoa duen jarduera oro.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren barruan honako hauek sartuko dira:

- a) Abeltzaintza independentea.
- b) Nekazariak edo abeltzainak, beren ustialekuetan ohikoak diren bitartekoez baliatuz, nekazaritza edo abeltzaintzako lan edo zerbitzu osagarriak eskaintzea.
- c) Abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

5. Etekinak baso jarduera baten kontraprestazio direnean, 100eko 2ko atxikipena aplikatuko da ordaindutako sarrera osoen gainean, diru laguntza arruntak eta kapitalekoak nahiz kalte-ordainak kanpoan utzita.

4. sekzioa: ondare irabaziak

109. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien atxikipenen zenbatekoa.

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipena zehazteko, atxikipen oinarriari 100eko 19ko portzentajea aplikatuko zaio.

110. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenaren oinarria.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenaren oinarria zergaren araudiari jarraituz kalkulaturako zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa izango da.

2. Dena den, batetik, itzultzen diren partaidetzak inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetako partaidetzak direnean eta, itzultitako partaidetza horiek eduki diren bitartean, haien partaideak,aldi berean beste entitate batean erregistratutako partaidetza homogeneoen titular izan direnean, edo, bestetik, itzuli beharreko partaidetzak beste partaidetza edo akzio batzuen itzulketa edo eskualdaketa batetik, gehiagotik edo segidan egindako beste batzuetatik datozenean, zeinei aplikatu baitzaie zergaren foru arauaren 48.1 artikuluan aurreikusitako gerorapen araubidea, baldin eta itzulketa edo eskualdaketa horietakoren bat egitean ere



aldiberekotasun egoerak gertatu badira itzulitako edo eskualdatutako partaidetza edo akzioetan, atxikipenaren oinarria honako diferentzia hau izango da: itzulketa egiten duen entitateko partaideen erregistroan ageri diren partaidetzen eskualdaketa balioa ken haien eskurapen balioa. Erregistro horretan daudenetatik, lehenago eskuratutakoak joko dira itzulitakotzat. Erregistro horretan agertzen badira gerorapen araubidea aplikatzearen ondorio diren partaidetzak, traspaso eragiketari zerga ondorioetarako jakinarazitako eskurapen datak eta balioak hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan aipatutako zirkunstantziak gertatzen direnean, partaideak horren berri eman behar dio atxikitza edo kontura sartzera behartutako entitateari –itzulketa egiten dionari–, bai idatziz edo bai jasota uzteko moduko beste edozein baliabide erabilia, baita itzulketa horrek atxikipen oinarriak sortzen ez duenean ere. Horrelakoetan, entitate horrek Zerga Administrazioaren esku gorde behar du komunikazio hori, itzulitakoekiko homogeenak diren partaidetzak zergadunaren izenean erregistratuak dituen bitartean, eta, gutxienez, preskripzio epearen barruan.

Apartatu honetan xedatutakoa berdin aplikatuko da atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzak edo akzioak itzuli edo eskualdatzen direnean, lurralde espainiarrean merkaturatzen, kokatzen edo banatzen badira, eta, orobat, 35/2003 Legean araututako inbertsio sozietateen akzioak eskualdatzen direnean.

111. artikulua. Atxikitze obligazioaren sorrera.³⁴

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen diren unean sortuko da atxikitze obligazioa, kobrantzarako hitzartu diren baldintzak edozein direla ere.

111 bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziei aplikatu beharreko atxikipena.³⁵

Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabaziei 100eko 19ko atxikipena aplikatuko zaie.

112. artikulua. Sarien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

³⁴ Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren hamaika apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

³⁵ Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren hamabi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



Eskudirutan jasotzen diren sariei 100eko 19ko atxikipena aplikatuko zaie, zergaren foru arauak hamazortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa eragotzi gabe.

5. sekzioa: beste errenta batzuk.

113. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierreantamenduei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa.

Hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierreantamenduan emateagatik lortzen diren etekinen gainean egin beharreko atxikipena, higiezin horien kalifikazioa zeinahi dela ere, errentatzaileari ordaindutako kontzeptu guztiei 100eko 19ko tasa aplikatuz aterako da, balio erantsiaen gaineko zerga kanpoan utzita.

114. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko atxikipenen zenbatekoa.

1. 93.2.b) artikuluan aipatutako irudia ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik lortzen diren etekinei, kalifikazioa zeinahi dutela ere, egin behar zaien atxikipena ordaindutako sarrera osoei 100eko 24ko atxikipen tasa aplikatuz aterako da.

2. 93.2.b) artikuluan aipatutako gainerako kontzeptuen etekinei egingo zaien atxikipena, kalifikazioa zeinahi dutela ere, ordaindutako sarrera osoei 100eko 19ko atxikipen tasa aplikatuz aterako da.

III. KAPITULUA. Konturako sarrerak

115. artikulua. Gauza bidezko lan ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

1. Gauza bidez ematen diren ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa haien balioari erregelamendu honetako aurreko kapituluaren arabera dagokion portzentajea aplikatuz kalkulatu da. Balio hori zergaren foru arauak 60. artikuluan jasotako arauari jarraituz zehaztu da.

2. Ez da konturako sarrerak egiteko obligatorik izango borondatezko gizarte aurreikuspenetarako entitateen bazkide babesleek, pentsio planen sustatzaileek, enpresen gizarte aurreikuspenetarako planen hartzaileek edo menpetasunetarako aseguru kolektiboek ordaindutako kontribuzioei nahiz enplegu-emaileek gizarte aurreikuspenetarako mutualitateei ordaindutako zenbatekoengatik, zergadunaren zerga oinarri orokorra murrizten dutenean. Zergaren foru arauak 71.1 artikuluan xedatutakoa ordaindutako ordainsariei aplikatuz ateratzen den gehieneko mugaraino geldituko dira oinarritik kanpo.

Era berean, atxikipen oinarritik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren aldeko kotizazio gisa, langile autonomoen erregimen berezian eta araudia betez, kooperatibek bazkide langileen edo lanaren estaldura sozial eta asistentzialerako ordaindu dituzten kopuruak.

3. Egoitza aldatzen denean konturako sarrera zehaztu eta egiteko, 102. artikuluan jasotako prozedura berezia erabiliko da.



116. artikulua. Kapital higigarriaren gauza bidezko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

1. Gauza bidezko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, ordaintzailearentzat izan den eskurapen balioa edo kostua 100eko 20 gehitzearen emaitzari aurreko kapituluko 2. sekzioan jasotako portzentajea aplikatuko zaio.

2. Kontura sartzeko obligazioa sortzen bada Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 45.2 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketagatik, konturako sarreraren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldea izango da.

117. artikulua. Jarduera ekonomikoen gauza bidezko ordainsarien gaineko konturako sarrerak.

Gauza bidezko ordainsariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, bere merkatuko balioari aurreko kapituluko 3. sekzioan xedatutakotik ateratzen den portzentajea aplikatuko zaio.

117. bis artikulua. Harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen diren ondare irabazien gaineko konturako sarrerak.³⁶

Harpidetza eskubideen eskualdaketak sortzen dituen ondare irabaziengatik egin behar den konturako sarrera kalkulatzeko, haien merkatu balioari 111 bis artikuluko portzentajea aplikatuko zaio.

118. artikulua. Sarien gaineko konturako sarrerak.

Ondare irabaziak direnean, gauza bidez ordaindutako sariengatik egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa honela kalkulatu da: 112. artikuluan jasotako portzentajea aplikatuko zaio ordaintzailearentzat izan den eskurapen balioa edo kontua 100eko 20 gehitu ondoren ateratzen den emaitzari.

119. artikulua. Beste errenta batzuen gaineko konturako sarrera.

113. eta 114. artikuluetan aipatutako gauza bidezko errenten gainean egin beharreko konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, errenta horien merkatuko balioari artikuluko horietan zehaztutako portzentajea aplikatuko zaio.

IV. KAPITULUA. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak

³⁶ Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikulua bigarren ordinalaren hamahiru apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



120. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak formalak.

1. Atxiki eta kontura sarrera egitera behartutako subjektuak hiru hilabetean behin aurkeztu beharko du berak atxikitako kopuruen eta egindako konturako sarreren aitorpena, aurreko lehen hiruhileko naturalari dagokionez, bai eta haien zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu ere.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak badaude 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71.3.1 eta 2 artikuluan jasotako egoeren barruan.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikatuko da herri administraziozat hartutako atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak direnean ere, Gizarte Segurantza barne, baldin eta ekitaldia hasi baino lehen azkenik onartutako urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, 93.1.a) eta c) eta 2.c) artikuluan aipatutako errentei lotutako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez.

Atxikipena eta sarrera zuzenean egingo dira, etekina ordaintzen duen entitatea Gipuzkoako Foru Aldundia denean.

Atxikitzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak aitorpen negatiboa aurkeztuko du baldin eta, atxikipena edo konturako sarrera jasan behar duten errentak ordaindu arren, horien zenbatekoa dela-eta inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu. Aitortzen den zergaldian atxikipena edo konturako sarrera jasan behar duen errentarik ordaindu ez denean, ez da aurkeztu beharko aitorpen negatiborik.

2. Atxikitzaileak eta kontura ordaintzera behartutakoak aurreko lehen urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztuko behar dute. Laburpen horretan, bere identifikazio datuez gainera, jasotzaileen zerrenda jasotzea eta honako datu hauek agertzea eskatu ahal izango da:

a) Izen-deiturak.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Bazkide, partaide edo onuradunaren zerga helbidea edo ohiko bizilekua, kontuan hartuta entitateak edo pertsona fisikoak diren.

d) Lortutako errenta, adierazita kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera nahiz errentaren sorrera-ekitaldia eta zenbatekoagatik atxikipena edo konturako sarrerarik izan ez duten errentak. Beste hauek ere: errenta salbuetsiak eta joanetorriko gastuen dietak eta ordainsariak, eta zergapetu gabeko mantenu eta egonaldiko gastu arruntak.

e) Zergaren foru arauak 19., 19. bis, 20., 25.4, 30.3 eta 39.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera aplikatutako integrazio portzentajeak.



f) Ordaintzaileak atxikipen portzentajea aplikatzeko kontuan hartu dituen zirkunstantzia pertsonal eta familiarak.

g) Atxikipena edo konturako sarrera.

h) Aurreko ekitaldietan sortuak izanik ordaintzaileari itzuli zaizkion zenbatekoak.

i) Ondoko gastu kengarriak: Gizarte Segurantzari edo funtzionarioen derrigorrezko mutualitateei egindako kotizazioak; eskubide pasiboengatik edo umezurtzen elkargoei edo antzeko erakundeei egindako kotizazioengatik egindako gutxipenen zenbatekoak; indarrean dagoen araudiari jarraituz zergadunek Gizarte Segurantzari dagozkion kontingentzien ordainketa bere gain hartu duten entitate edo erakundeei ordaintzen dizkieten zenbatekoak, baldin eta ordaintzaileak aurrez etekinetatik kendu baditu.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak lurralde espainiarrean helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

3. Atxikitzzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak atxikipenen edo konturako ordainketen ziurtagiria eman beharko dio zergadunari, eta behar den frogagiria ere luzatuko dio aurreko apartatuan aipatutako urteko laburpenean hari buruz sartu behar diren gainerako datuak azalduz.

Ziurtagiri hori zerga honen autolikidazioa aurkezteko epea hasi baino lehen jarri beharko da zergadunaren eskura.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak lurralde espainiarrean helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzerakoan egindako atxikipenen edo konturako sarreren berri eman beharko diete zergadunari, aplikatu den portzentajea adieraziz.

5. Artikulu honetan aipatutako aitorten eta ziurtagiriak zein eredutan, non eta nola egingo diren Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du errenta mota bakoitzerako, eta berak ere ezarri ahal izango du aurreko 2. apartatuan jasotako datuen artean aitortenetan sartzekoak direnak. Atxikitzzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak derrigorrez bete beharko ditu aitortenetan berari buruz eskatzen diren datuak.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako moduan, tokian eta epeetan aitortu eta ordaindu beharko da; era berean, foru diputatuak erabaki ahal izango du zer kasu eta baldintzetan nahiz non, nola eta zer epeetan aitortu eta ordainduko diren artikulu honetan aipatutako aitorten telematikoak eta ziurtagiriak.

V. KAPITULUA. Ordainketa zatikatuak



121. artikulua. Ordainketa zatikatuak egitera behartuak.

1. Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunek ondorengo artikuluetan ezarritakotik ateratzen den diru kopurua autolikidatu eta Foru Aldundiari ordaindu behar diote, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa gisa.
2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak burutzen dituzten zergadunak ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreraren gutxienez 100eko 70ari atxikipena edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio. Diru laguntza arruntak, kapital diru laguntzak eta kalte-ordainak kanpoan utziko dira.
3. Aurreko 1. apartatuan ezarritakoaren eragotzi gabe, jarduera profesionalak egiten dituzten zergadunak ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreraren gutxienez 100eko 50ari atxikipen edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio.
4. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduerari hasiera ematen zaion kasuetan, ordainketa zatikatuaren epealdian atxiki edo kontura ordaindu diren sarreraren portzentajea hartuko da kontuan.

122. artikulua. Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izaera orokorrez.

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek honako diru sarrera hau egingo dute, izaera orokorrez eta hiru hilabetean behin: jarduera ekonomikoari dagokionez ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago lortutako jarduera ekonomikoen etekin garbiei 100eko 5 aplikatuz ateratzen den emaitza. 100eko 5 horri, hala ere, indarrean dagoen araudiari jarraituz bi urte lehenago jarduera ekonomikoari dagokionez egindako atxikipenen eta konturako sarreraren laurdena kenduko zaio, hala badagokio.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa inoiz ezingo da negatiboa izan.

2. Zergadunek adierazitakoa baino portzentaje handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.
3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak prozedura bereziak ezarri ahal izango ditu, ordainketa zatikatuak sartzeko.

123. artikulua. Zatikapenaren zenbatekoa aparteko egoerak daudenean.

1. Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen denean, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edo jarduera horietatik lortutako etekin garbia positiboa izan ez denean, edota, bestela, hiruhileko batean izandako eragiketa bolumena bi urte lehenagoko hiruhileko korrelatiboan izandako bolumen osoa baino txikiagoa denean, zergadunak hiruhileko horretako eragiketa bolumenaren 100eko 1 ordaindu ahal izango du. Portzentaje hori saltoki orokor, berezi edo barrukoetan tabako laboreak handizka zein txikizka saltzen dituzten merkatarien kasuan ere aplikatuko da, hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren gainean.



2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera ateratzen den zenbatekoari kendu beharrekoak izango dira, hala badagokio, 108. eta 117. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz egindako atxikipenak eta konturako sarrerak, hiruhilekoari dagozkionak.

3. Zergadunek adierazitakoa baino portzentaje handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.

124. artikulua. Autolikidzioa eta ordainketa.

1. Enpresari eta profesionalek derrigorrez autolikidatu eta ordaindu beharko dizkiote hiru hilabetetan behin Foru Aldundiari kapitulu honetako aurreko artikuluen arabera zehaztutako zenbatekoak. Horretarako epea apiril, uztaile, urri eta urtarrilaren 1ean hasiko da eta hurrengo hilaren 10ean amaituko.

Kapitulu honetako aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatu arren ordaintzeko zenbatekorik ateratzen ez denean, zergadunek ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko.

2. Autolikidazioa bat etorriko da ezarrita dauden baldintza eta eskakizunekin, eta diru sarrera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko duen tokian eta eran egingo da. Era berean, hark artikulua honetan aipatutako epeak luzatu ahal izango ditu, baita sei hilabetean behin ordaintzeko aukera eman ere. Horretarako, alabaina, beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako portzentajeetan bidezko egokipenak egitea.

3. Zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkeztuko dituzte autolikidazioak.

125. artikulua. Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateak.³⁷

Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek jarduera ekonomikoengatik lortzen dituzten etekinaren ordainketa zatikatua bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzak egin behar du, entitatearen mozkinen duen partaidetzaren proportzioan.

Jarduera ekonomikoaren etekinengatik ez da ordainketa zatikaturik egin beharko, etekinak lortu dituztenak Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean tributatzen duten sozietate zibiletako bazkideak direnean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehena. Izatezko bikoteak.

³⁷ Artikulu hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikuluen lehenengo ordinalaren lau apartatuak berriro datu. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



Erregelamendu honen ondorioetarako, izatezko bikote aipatzean aintzat hartzen dira izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak.

Bigarrena. Gazteak emantzipatzeko oinarrizko errentaren salbuespena.

Zergaren foru arauaren 9.27 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, Gazteak emantzipatzeko oinarrizko errentari buruzko azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuak jasotako emantzipazioko oinarrizko errenta ere salbuetsita egongo da.

Hirugarrena. Arrantza suspertzea.

1. Zerga neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutako gutxieneko hamar urteko epean eskurazailea arrantzari lotuta egotearen beharkizuna betetzeko, eskualdaketaren agiri notarialean eskurazaileak adierazi behar du ontzia aipatutako epean arrantzari atxikita izateko konpromisoa.

Ondorio horietarako, jarduerarekiko lotura gorde dela ulertuko da honako kasu hauetan:

a) Itsasontziari aitortutako eskubideak zentsu bereko beste itsasontzi bati emateko erabiltzen direnean.

b) Itsasontzia beste arrantza unitate bat egiteko baja gisa edo beste arrantza unitate baten ordeztan erabiltzen denean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, arrantzontzi bat eskualdatu dela ulertuko da enpresa baten akzio edo partaidetza guztiak eskualdatzen direnean ere, baldin eta enpresa horren aktiboaren 100eko 90 arrantzontziez osatuta badago.

Laugarrena. Partaidetzak inbertsio funts kotizatuetan eta akzioak indizeen arabera kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateetan.

Zergaren foru arauak 48.1 artikuluan aurreikusten duen geroratze araubidea ez da aplikagarria izango eskualdatu edo berreskuratutakoa nahiz, hala badagokio, harpidetu edo eskuratutakoa inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, uztailearen 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 79. artikuluan aipatzen dituen inbertsio funts kotizatuetako ondarearen partaidetzak edo gisa horretako sozietateen akzioak badira.

Bosgarrena. Aurrezpen sistematikoko banakako planen arteko mobilizazioa.

Hornidura matematikoa aurrezpen sistematiko batetik bestera osorik edo partzialki mobilizatuz gero, aurreikuspen plan aseguratuei buruzko 57.3 artikuluan jasotakoari jarraituko zaio, aplikagarria zaion neurrian.

Seigarrena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorrari lotu gabe dauden kapital aldakorreko



inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.

1. 94.i) artikuluan jasotakoa jasota ere, zergaren foru arauak hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatutako kapital higigarriaren etekinen gainean atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa da, horiek ekarpenen itzulketa bidezko kapital murrizpenaren eta jaulkipen primaren banaketaren ondorioz lortzen direnean, baldin eta sozietateen gaineko zergako karga tasa orokorrari lotu gabe dauden Inbertsio kolektiboko erakundeen Legearen arabera eraturako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek edo beste estatu batean erregistraturako kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko sozietateen pareko inbertsio kolektiboko organismoek eginak badira. Xedapen gehigarri honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko zergaren foru arauak hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 1.a) apartatuaren bigarren paragrafoan aipatutako kapital higigarriaren etekinei.

2. Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, honako hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1.- Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legeak araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen kasuan, sozietateak berak.

2.- Europako Parlamentuan eta Kontseiluan 2009ko uztailaren 13an onartutako 2009/65/EE Zuzentarauak, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko organismo jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituenak, erregulatzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta daude entitate merkaturatzaileak edo horien akzioak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak eta, horien orde, baloreak kokatzeaz edo banatzeaz arduratzen den entitatea edo entitateak, betiere errenten ordainketan esku hartzen badute. Aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeak zergaren foru arauak 52. artikuluan jasotakoen desberdinak izan behar dira, eta Europar Batasuneko estaturen batean eratuak eta helbideratuak izan eta Baloreen Merkaturako Batzorde Nazionaleko erregistro berezian inskribatuta egon behar dira, Espainian egoiliar diren entitateek merkaturatze aldera.

3.- Zergaren foru arauak hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan jasotako inbertsio kolektiboko organismoen kasuan salbu aurreko 2. ordinalean aipatutakoak, baloreak gordailatzen dituen edo horietatik eratorritako errenten kobrantza kudeatzeaz arduratzen den entitatea.

4.- Aurreko paragrafoei jarraituz atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa ez denean, ekarpenen itzulketa edo jaulkipen primaren banaketa jasotzen duen bazkidea egongo da behartuta konturako ordainketa bat egitera. Konturako ordainketa hori ondorengo apartatuan eta 103. eta 107.1. artikuluetan jasotako arauari jarraituz egingo da.

3. 1. apartatuan jasotako kasuetan, atxikipen oinarria zergaren foru aruari jarraituz kalkulaturako zerga oinarria izango da.



Zazpigarrena.³⁸ Kapital higigarriaren etekinei, 93.2.b) artikuluan jasotako etekinei –irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozenei salbu– eta sariei 2015ean aplikagarri zaien atxikipena eta konturako sarrera tasa.

Atxikitze edo kontura sartzeko betebeharra uztailearen 12a baino lehen sortu bada, 103., 112. eta 114.2. artikuluetan aurreikusitako atxikipenen eta konturako sarreraren portzentajea (100eko 19) 100eko 20 izango da. Atxikitze edo kontura sartzeko betebeharra data horretatik aurrera sortu denean, aldiz, atxikipena eta konturako sarrera portzentajea 100eko 19,5 izango da.

Zortzigarrena.³⁹ 2015ean inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu eta itzultzeagatik lortutako ondare irabaziei eta ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierrementamenduei aplikagarri zaien atxikipeneko eta konturako sarrerako tasa.

109. eta 113. artikuluetan jasotako 100eko 19ko atxikipeneko eta konturako sarrerako portzentajeak 100eko 20 izango dira, atxikitze edo kontura sartzeko betebeharra 79/2015 Foru Dekretua irailaren 1ekoa indarrean sartu aurretik sortu denean. Atxikitze edo kontura sartzeko betebeharra data horretatik aurrera sortu denean, aldiz, atxikipeneko eta konturako sarrerako portzentajea 100eko 19,5 izango da.

Bederatzigarrena.⁴⁰ Jarduera profesionalen etekin jakin batzuei 2015ean aplikagarri zaien atxikipeneko eta konturako sarrerako tasa.

1. 108.1 artikuluko lehen paragrafoan aurreikusitako 100eko 15eko atxikipena edo konturako sarrera 100eko 19koa izango da uztailearen 12a baino lehen ordaindutako etekinetarako. Portzentaje hori 100eko 15 izango da, baldin eta aurreko ekitaldian jarduera horiengatik lortutako etekin guztiak 15.000 eurotik beherakoak badira, zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoengatik eta lanarengatik lortu dituen etekin guztien 100eko 75 baino gehiago hartzen badute, eta zergadunak zirkunstantzia horren berri eman badio etekinen ordaintzaileari. Ordaintzailea behartuta egongo da komunikazio hori gordetzera, behar bezala sinatuta. Data horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei 100eko 15eko atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie.

³⁸ Xedapen gehigarri hau aldatu du uztailearen 28ko 73/2015 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko bi apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2015/07/30ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

³⁹ Xedapen gehigarri hau aldatu du irailaren 1eko 79/2015 FORU DEKRETUAREN 1. artikulua. Aipatutako foru dekretuak ondasun higiezinaren errentamendutik eta azpierrementamendutik eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzultzetatik datozen etekinei aplikatu beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egunean jarri da indarrean (2015-09-02ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

⁴⁰ Xedapen gehigarri hau aldatu du uztailearen 28ko 73/2015 FORU DEKRETUAREN 1. artikuluko hiru apartatuak. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2015/07/30ko GAO). Aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



2. 108.1 artikuluko bigarren eta laugarren paragrafoetan aurreikusitako 100eko 7ko atxikipena edo konturako sarrera portzentajea 100eko 9koa izango da uztailearen 12a baino lehen ordaindutako etekineterako. Data horretatik aurrera ordaintzen diren etekinei 100ko 7eko atxikipena edo konturako sarrera aplikatuko zaie.

Hamargarrena. Zenbatespen objektiboko metodoaren bidez zehazten diren jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipena.

1. Zergaren foru arauak bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, etekinak ondorengo 2. apartatuan aurreikusitako jarduera ekonomikoetako baten kontraprestazio direnean, baldin eta jardueraren etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoan kalkulatzeko bada, ordaindutako sarrera osoei 100eko 1eko tasa aplikatuko zaie.

Horretarako, zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatetzat hartuko da lurralde komunean onartutako pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren araudietan halakotzat hartutakoa.

2. Xedapen honetan xedatutakoa aplikatuko zaie jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetako lehen sekzioan biltzen diren honako talde eta epigrafe hauetan sailkatutako jarduera ekonomikoari:

JEZaren talde edo epigrafea	Jarduera ekonomikoa
314 y 315	Metal arotzeria, metalezko egituren fabrikazioa eta galdaragintza.
316.2,3,4 y 9	Burdinagintza, sarrailagintza, torlojugintza eta alanbregintza gaiak, etxeko tresneria eta metalezko artikulak, beste inon sailkatu gabeak, egitea.
453	Jantziak eta jantzien osagarriak seriean egitea, salbu gehienbat beste batzuei aginduta egiten denean.
453	Jantziak eta jantzien osagarriak seriean egitea enpresak berak zuzenean, hirugarrenentzat eta beste batzuen aginduz bakarrik egiten duenean
463	Eraikuntzarako zurgintza piezak, parketa eta egurrezko egiturak seriean egitea.
468	Egurrezko altzarigintza
474.1	Testu edo irudiak inprimatzea.
501.3	Igeltserotza eta eraikuntza lan txikiak oro har.
504.1	Instalazio eta muntaiak (iturgintzakoak, hotz-berokoak, eta aire girotuzkoak izan ezik)
504.2 y 3	Iturgintza, hozkintza, berokuntza eta aire girotuko instalazioak.
504.4, 5, 6, 7 y 8	Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Era guztietako sukaldeak, osagarriak barne, muntatu eta instalatzea. Edozein mota eta klasetako igogailuen muntaia eta instalatzea. Instalazio telefonikoak, telegrafikoak, haririk gabeko telegrafikoak eta telebistarenak, edozein motatako eraikin eta eraikuntzetan. Muntaia elektrikoak eta industri instalazio elektrikoak, ez makinaria ez eta instalazio edo muntaiarako elementuak saltzen edo aportatzen ez direnean.
505.1, 2, 3 y 4	Estaldurak eta zoladurak egitea eta isolamenduak jartzea.
505.5	Zurgintza eta sarrailagintza.
505.6	Eraikin eta lokaletan edozein motatako pintura lanak eta paper, ehun edo plastikozko estaldurak egitea, akabera eman eta dekoratzea.
505.7	Eraikin eta lokaletan igeltsu nahiz eskaiolazko lanak egin eta dekoratzea.



- 722 Merkantzien errepede bidezko garraioa.
757 Mudantza zerbitzua.

3. Ez da egin beharko xedapen honetan aurreikusitako atxikipena, baldin eta jarduera ekonomikoa egiten duen zergadunak, zergaren foru arauaren 106.5 artikuluan xedatutakoarekin bat, ordaintzaileari komunikatzen badio zuzeneko zenbatespenaren metodoa -edozein modalitatetan- erabiltzen duela jardueraren etekin garbia zehazteko. Jakinarazpenean honako datu hauek eman behar dira:

a) Komunikatzailearen izen-deiturak, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Jarduera ekonomikoa errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate baten bitartez egiten bada, beharrezkoa izango da, gainera, entitatearen izena edo sozietate izena eta identifikazio fiskala agertzea eta haren ordezkari dela adieraztea.

b) Aurreko 2. apartatuan jasotako jarduera ekonomikoetatik zein egiten duen, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren epigrafea adierazita.

c) Jarduera horren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera kalkulatu duela bere modalitateetako edozein erabilita.

d) Data eta komunikatzailearen sinadura.

e) Komunikazioaren hartzailea den pertsona edo entitatearen identifikazioa.

Geroago zergadunak berriz ere zenbatespen objektiboaren metodoa erabiltzen badu jardueraren etekinak zehazteko, horren berri eman behar dio ordaintzaileari, aurreko a), b), d) eta e) letretan zehazutako datuekin batera, atxikipena egiteko betebeharra sortu aurretik betiere.

Ordaintzaileak datuen Komunikazioak gorde behar ditu beti, behar bezala sinatuta.

4. Aurreko 3. apartatuan aurreikusitako datuak behar bezala jakinarazteko obligazioa ez betetzeak, zergen foru arauak 117. artikuluan xedatutakotik eratoritzen diren zerga ondorioak izango ditu.

5. Baldin eta zenbatespen objektiboaren metodoari uko egiten bazaio 2007ko martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 33.1.b) artikuluan edo 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 33.2 artikulua hiru paragrafoan jasotako moduan, ulertuko da zergadunak zuzeneko zenbatespenaren metodoaren arabera zehazten duela bere jarduera ekonomikoaren etekin garbia, zerga honetan ordainketa zatikatua edo balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkezten duen egunetik aurrera.

Hamaikagarrena. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak.

Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga bereziari lotutako atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartutako pertsonak eta



entitateek zergaren foru arauaren hamazortzigarren xedapen gehigarrian eta xedapen honetan jasotakoa aplikatuko dute, eta aipatutako atxikipen eta konturako sarrera horiek Gipuzkoako Foru Aldundian sartuko dituzte, horiek jasotzen dituenak ohiko bizilekua edo helbide fiskala Gipuzkoan duenean.

Hamabigarrena. Epe luzerako aurrezki planen arteko mobilizazioa.⁴¹

Zergaren foru arauko hogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren 5. apartatuan xedatutakoarekin bat, epe luzerako aurrezki plan baten titularrak osorik mobilizatu ditzake bere titulartasuneko epe luzerako beste aurrezki plan batera epe luzerako aurrezki aseguru indibidualaren eskubide ekonomikoak eta epe luzerako aurrezki kontu indibidualean eratutako funtsak, baliabideak erabili direla zertan ulertu gabe, zergaren foru arauko 9. artikuluaen 34. zenbakian eta aipatutako xedapen gehigarriaren 1. apartatuko b) letran ezarritako ondorioetarako. Mobilizazio horrek, baina, baldintza batzuk izango ditu:

Ezin izango da mobilizaziorik egin baldin eta eskubide ekonomikoen edo funtsen gainean enbargo, karga edo pignorazioen bat ezarri bada edo lege zein kontratu xedapen batek mugaren bat jarri badu.

Mobilizazioa egiteko, epe luzerako aurrezki planaren titularrak helburuko aseguru edo kreditu entitateari jo behar du, eta bertan aurkezten duen eskaerari erantsi behar dio jatorrizko epe luzerako aurrezki planaren identifikazioa eta sorburuko entitatearena. Eskaerarekin batera, komunikazio bat aurkeztu behar du, sorburuko aseguru entitateari zuzendua, traspasoa egin dadila agindu dezan, eta horrez gain, epe luzerako aurrezki planaren titularrak baimena eman behar dio helburuko entitateari bere izenean mobilizazioa eta beharrezko informazio finantzario eta fiskal guztia eskatu diezaion sorburuko entitateari. Zehazki, sorburuko entitateak jakinarazi behar du zer egunetan ireki zen epe luzerako aurrezki plana, zer ekarpen egin ziren kasuan kasuko urtean, eta, bereizita, kapital higigarriaren zer etekin positibo eta negatibo izan diren plana ireki denetik, mobilizazioaren ondorioz sor zitezkeenak barne.

Helburuko entitateak berariaz eta modu nabarmenean ohartarazi behar dio zergadunari ezen, epe luzerako aurrezki plana edo epe luzerako aurrezki aseguru indibiduala eratzeko formalizatutako aseguru, gordailu edo finantza kontratuaren baldintzak nolakoak diren, mobilizazioaren zenbatekoa sorburuko entitateak bermatutako zenbatekoa baino txikiagoa izan daitekeela.

Izenpetutako hitzarmen edo kontraturen batek posible egiten badu mobilizazio eskaerak bitartekarien bidez edo beste entitate batzuetako sare komertzialen bitartez kudeatzea, eskaera establezimendu horietako edozeinetan aurkeztea helburuko entitatean aurkeztutzat hartuko da.

⁴¹ Xedapen gehigarri hau, 2016ko abenduaren 20ko 28/2016 Foru Dekretuaren 1. artikuluaen bigarren ordinalaren hamalau apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-12-26eko GAO). Aldaketa, ordea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.



Beharrezko dokumentazio guztia lortzen duenetik aurrera, helburuko entitateak, bost egun balioduneko epean gehienez, egiaztatu behar du mobilizazioa egiteko arauzko baldintzak betetzen direla, eta, horrez gainera, sorburuko entitateari eskaeraren berri eman behar dio, gutxienez datu hauek adierazita: Mobilizazioa jasoko duen epe luzerako aurrezki plana, helburuko entitatea zein den, eta zein kontutara egin behar den transferentzia.

Eskaera eta dagokion dokumentazioa jasotzen dituenetik aurrera, sorburuko entitateak gehienez hamar egun balioduneko epea izango du banku-transferentzia agintzeko eta traspasorako beharrezkoa den informazio finantzario eta fiskal guztia helmugako entitateari bidaltzeko.

Funtsen traspasoaren ondorioz penalizazio, gastu edo deskonturik sortzen bada, horiek ezingo zaizkio aplikatuko mobilizazio honen zenbatekoari. Ondorio horietarako, epe luzerako aurrezki aseguru indibidualen kasuan, eskubide ekonomikoak baloratuko dira hornidura matematikoaren zenbatekoaren arabera edo esleitutako aktiboen merkatu balioaren arabera.

Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren mobilizazio prozeduretan, traspaso eskaeraren transmisioa, eskudiruaren transferentzia eta entitate esku-hartzaileen arteko informazio trukea Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionala erabiliz egin daiteke, sistema horretan kasu hauetarako gaitzen diren eragiketen bitartez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK.

Lehena. 1994ko abenduaren 31ren aurretik eskuratutako elementuetatik eratorri diren eta jarduera ekonomiko bati lotuta egon diren ondare irabaziak.

Zergaren foru arauak 26. artikuluan jasotakoaren arabera eskualdatu aurretik jarduerarekiko lotura kendu zaien eta 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu diren ondare elementuak eskualdatzen direnean, ondare irabaziak murriztuko dira zergaren foru arauak lehen xedapen iragankorraren lehen apartatuan jasotakoaren arabera, elementu horien noiz erosi diren kontuan hartuz.

Dena den, aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zergaren foru arauak lehen xedapen iragankorraren bigarren apartatuan aipatutako eskualdaketei.

Bigarrena. Langile lekualdatuen araubide bereziaren aldeko aukera.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 10/2006 Foru Arauak 4.3 artikuluan langile lekualdatuentzat jasotako araubide bereziaren aldeko aukera egin duten zergadunek araubide berezia aplikatzen jarraituko dute, salbu eta uko egiten bazaio edo kanpoan gelditzen bada, zergaren foru arauaren 4.3 artikuluan eta erregelamendu honetako I. tituluan jasotakoaren arabera, araubide bereziaren iraupen aldia amaitzeko gelditzen diren zergaldietan.

2. 2012an edo 2013an lurralde espainiarrera lekualdatzearen ondorioz Gipuzkoan zerga egoitza zergaldi horietan finkatu duten eta zergaren foru arauaren 4.3 artikuluan eta erregelamendu honetako I. tituluan jasotako



beharkizunak betetzen dituzten zergaren zergadunek aukeran izango dute araubide berezia aplikatzeko, betiere aipatutako 4.3 artikuluan eta I. tituluan jasotakoaren arabera. Kasu horietan, araubide berezia ezin izango da aplikatu zergadunak Espainian bere zerga egoitza finkatu eta ondorengo bosgarren zergaldiari jarraitzen dioten zergaldietan.

3. Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik lurralde espainiarrera lekualdatzearen ondorioz 2014an Gipuzkoako zerga egoitza finkatu duten eta zergaren foru arauaren 4.3 artikuluan era erregelamendu honetako I. tituluan jasotako beharkizunak betetzen dituzten zergadunentzat nahiz aurreko apartatuan aipatutako zergadunentzat, erregelamendu honek 3. artikuluan araubide bereziaren aldeko aukera egiteko jasotako sei hilabeteko gehieneko epea erregelamendu hau indarrean jartzen denetik aurrera hasiko da.

Hirugarrena. 2014ko urtarrilaren aurretik salbuetsita gelditu ziren giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte edo zientziarekin lotutako sari garrantzitsuak.

Zergaren foru arauaren 9.8 artikuluan jasota dauden giza eskubideen defentsa eta sustapenarekin eta literatura, arte edo zientziarekin lotutako sari garrantzitsuek salbuespena izaten jarraituko dute, erregelamendu honen 8. artikuluan jasotakoari jarraituz, baldin eta haien salbuespena 2013an onartu bazen edo lehendik onartutako salbuespena zergaldi horretan ere baliagarria bazen.

Laugarrena. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.

Zergaren foru arauak hogeita zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioetarako, hau ulertuko da:

- a) Egindako ekarpenen baturak eta haietatik zuzenean eratorritako etekinek osatzen dute prestazioen zenbatekoa.
- b) Ekarpenen batez besteko iraunaldia kalkulatzeko, prestazioaren sortzailatzat hartutako ekarpenak baino ez dira konputatuko.

Bosgarrena. Zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aukeratzeko prozedura berezia, beren jarduera ekonomikoen etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez zehaztu zuten zergadunentzat.

1. 2014ko zergaldirako soil-soilik, eta ezertan eragotzi gabe 28. eta 30.1 artikuluan xedatutakoa, beren jarduera ekonomikoen etekina 2013. urtean kalkulatzeko zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabili duten zergadunek zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua aplikatzea ere aukeratu ahal izango dute 2014ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa epe barruan aurkezten dutenean.

2. Aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera egindako aukerak 28. artikuluan jasotakoaren arabera zentsu aitopenen bidez egindakoaren ondorio berberak izango ditu.



Seigarrena. Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikagarri izan zaien zergadun jakin batzuentzako araubide iragankorra.

1. 2014, 2015 eta 2016ko zergaldietan beren jardueren etekin garbia ondorengo
2. apartatuan jasotako zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren arau bereziei jarraituz zehaztu ahal izango dute 2013ko zergaldian beren jarduera ekonomikoen etekin garbia zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez zehaztu duten eta 2007ko abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretua onartutako zergaren erregelamenduan jasotakoaren arabera (2013ko abenduaren 31n indarrean dagoen idazkeran) 2014ko zergaldian ere araubide hori aplikatzeko bertan jarritako beharkizunak bete dituzten zergadunek eta errenta esleipeneko araubidean dauden entitateek.

Xedapen honetan jasotakoa 2015ean eta 2016an aplikatuko bada, aurreko zergaldian ez dira gairitu behar 2007ko abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako zergaren erregelamenduak (2013ko abenduaren 31n indarrean dagoen idazkeran) 38. artikuluan jarduera bakoitzari edo jarduera sektore bakoitzari begira araubidea erabiltzea baztertzen duten magnitudeak. Magnitudeak 38. artikuluan horretan jasotakoaren arabera (2013ko abenduaren 31n indarrean dagoen idazkeran) kalkulatu dira.

2. Aurreko 1. apartatuan jarritako baldintzak betetzen direnean, honako erregela berezi hauek aplikatuta kalkulatu da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuan:

a) Sarrerak kalifikatu eta kuantifikatu behar dira, zergaren foru arauan ezarritako erregela orokorrak aplikatuta. Kanpoan utzi behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

b) Gastu kengarriak nekez frogatu eta baloratu daitezkeenean, aurreko a) letran aipatutako sarrerei 100eko 65eko portzentajea bakarrik aplikatuz konputatu dira.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren titularrek aplikagarri duten portzentajea 100eko 75 izango da.

Era berean, 100eko 75eko portzentajea aplikatuko dute 1. apartatuan jarritako beharkizunak betetzen dituzten eta 7. apartatuan jasotako «terminal fiskaleko» sistemari atxiki diren zergadunek egindako jarduera ekonomikoen titularrek.

Baztertuta dago beste edozein gastu kengarritzat hartzea.

c) Aurreko letretan aipatutako sarreren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu behar da.

d) Azkenik, gehitu edo kendu behar dira jarduerari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak, kasuan kasukoa, zergaren foru arauak 25.3 artikuluan ezarritakoari jarraituta, eta emaitza jardueraren etekin garbia izango da.

3. 1. apartatuko lehen paragrafoan aipatutako zergadunek bosgarren xedapen iragankorrean jasotzen den zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua



aukeratzeko prozedura erabili ahal izango dute 2014ko zergaldirako, eta horrek ez du ezertan ere eragotziko 7. apartatuan aurreikusitakoa «terminal fiskalaren» sistemara atxikitzeko prozedurari dagokionez.

4. Zergaren foru arauak 113.5 artikuluan jasotakoaren arabera, zergadunek eta errenta esleipeneko araubidean dauden entitateek aurreko 2. apartatuan jasotako erregela bereziak aplikatzen dituztenean, zerga honen ondorioetarako jarduera horiei dagokienez dauden erregistro betebeharrak izango dira, bakarrik, 80. artikuluan jasotako salmenten eta sarreren erregistro liburua eramatea eta, gainera, batetik, enpresariak eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharrari buruzko araudian xedatutakoaren arabera egindako fakturak eta, bestetik, jasotako fakturak daten arabera eta hiruhilekoen arabera zenbakituta gordetzea.

Horrek ez du eragotziko, balio erantsiaren gaineko zergan jasotako erregistro edo kontabilitate obligazioak betez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta errenta esleipeneko araubide berezian dauden entitateek eraman behar dituzten liburuak edo erregistroak.

5. Orobat, ordainketa zatikatua egitera behartutako zergadunek aurreko 2. apartatuko erregela bereziak aplikatzen badituzte, eta azken-aurreko urtean jardueraren titularra pertsona fisikoa izan bada eta soldatapeko langilerik izan ez badu, ondoren zehazten diren portzentajeetan murriztu dezakete jarduera hauengatik egin beharreko ordainketa zatikatua:

- 100eko 50, 2014ko zergaldiko hirugarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkienak.

- 100eko 25, 2015eko eta 2016ko zergaldiei dagozkienak.

6. Xedapen honetan jasotakoa aplikagarri zaien nekazaritza eta abeltzaintza jardueren titularrek aukeran izango dute erregela berezi hauek aplikatzea edo 31. artikuluan jasotako erregela bereziak aplikatzea.

Aukera hori autolikidazioa aurkeztean egingo da, eta geroago aldatu ahal izango da harik eta zerga aitortzeko borondatezko epea amaitu bitartean.

Arau berezi batzuk edo besteak aukeratzeak ez du lotuko ondorengo zergaldietarako.

7. 2.b) apartatuaren hirugarren paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, «terminal fiskaleko» sistematzat hartuko da Ogasun eta Finantza Departamentuak hornitutako software informatikoan oinarritutako fakturazio sistema, zeinaren bidez salmentan edo zerbitzu prestazioan egindako fakturak prozesatu, erregistratu eta kudeatuko baitira eta zeinari buruzko informazioa Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerbitzari batera bidaliko baita.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko du zer jarduera sektoreri aplikatuko zaien «terminal fiskalaren» sistema eta zer baldintza bete beharko diren hura aplikatzeko. Era berean, sektore horietako jarduera ekonomikoen titularrak sistemara biltzeko agiria ere onartuko du foru diputatuak.



Ogasun eta Finantza Departamentuak lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ditzake jardueren sektore horiek ordezkatzeko dituzten entitate edo antolakundeekin, sistemaren kudeaketan lagundu dezaten eta, horrela, haren aplikazioa erraztu dadin.

Sistemara bilduz gero, hurrengo zergalditik aurrera, zergadunak aukera izango du 2.b) apartatuko hirugarren paragrafoan aurreikusitako 100eko 75eko portzentajea aplikatzeko, hala badagokio.

Aurrekoa hala izanik ere, zergaduna 2014ko azaroaren 10a baino lehen biltzen bada sistemara, 2014ko zergaldian aplikatu ahal izango du esandako portzentajea.

Zazpigarrena. 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabazien salbuespena.

Zergaren foru arauaren 42.c) artikuluan jasotako salbuespena ezingo dute aplikatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak (2012ko urtarrilaren 1etik aurrera dagoen idazkera) 44.3.c) artikuluan jasotako salbuespena aplikatu duten zergadunek.

Zortzigarrena. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.

1. Zergadunaren ohiko etxebizitza 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean erositako denean, ohiko etxebizitzaren erosketako kenkaria zergaren foru arauaren 87. artikuluan jasotako baldintzei jarraituz aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan jasotakoa 2012ko urtarrilaren 1tik 2013ko abenduaren 31ra ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatutako kasuei ere aplikatuko zaie, salbu zergaren foru arauaren hogeita laugarren xedapen iragankorraren 2. apartatuan jasotako kasuei, horiek xedapen iragankor horretan jasotakoari jarraituko baitiote.

2. Zergaren foru arauaren hogeita laugarren xedapen iragankorraren 2. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ulertu behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 90.5.a) eta c) artikuluari buruzko aipamena 2011ko abenduaren 31n aplikagarri den idazkerari buruzkoa dela.

Bederatzigarrena. Modalitate erraztuaren erregela bereziak aplikatzen dituzten baxurako arrantzako jardueren erregistro betebeharrak.

Zergaren foru arauak 113.5 artikuluan jasotakoaren arabera, 2014, 2015 eta 2016ko zergaldietan baxurako arrantzako jardueren aritzen diren eta 33. artikuluan jasotako erregela bereziak aplikatzen dituzten zergadunek eta errenta esleipeneko araubideko entitateek zerga honen ondorioetarako dituzten erregistro betebeharrak bakarrik izango dira 80. artikuluan jasotako salmenten eta sarreraren erregistro liburua eramatea eta enpresariak eta profesionalak faktura egin eta emateko duten betebeharrari buruzko araudian jasotakoaren arabera egindako fakturak eta jasotako fakturak datu arabera eta hiruhilekoaren arabera zenbakituta gordetzea.



Aurreko paragrafoan aplikagarri izateko, beharrezkoa izango da baxurako arrantzako jarduera itsasontzi bakar batekin egitea, eta hori 16 m-ko luzeratik gorakoa eta erregistroko edukiera gordina (GT) 42 unitatetik gorakoa ez izatea.

Xedapen honetan jasotakoa ulertu behar da balio erantsiaren gaineko zergan jasotako erregistro edo kontabilitate obligazioak betez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta errenta esleipeneko araubide berezian dauden entitateek eraman behar dituzten liburuak edo erregistroak eragotzi gabe.

Hamargarrena. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenei eta ondare irabazien gainekoei buruz sartutako aldaketen araubide iragankorra.

1. Etekin esplizituko aktibo finantzarioen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketetan, atxikipena egiteko obligazioa 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eragiketei aplikatuko zaie.

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako etekin esplizituko aktibo finantzarioak eskualdatzean, erosketa prezioa ez bada frogatzen, aktiboaren jaulkipen balioaren eta eskualdaketa prezioaren arteko diferentziaren gainean egingo da atxikipena.

Ez zaie atxikipenik egingo 1999ko urtarrilaren 1aren aurretik jaulkitako zor publikoko baloreak eskualdatu, trukatu edo amortizatzetik datozen etekinei, data horren aurretik atxikipenari lotuta ez bazeuden.

2. 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera likidazioen maiztasuna hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik konturako sarrerak egin zaizkien etekin esplizituak jasotzen direnean, exijigarritasunaren momentuan indarrean dagoen tasan aplikatuko zaio behin betiko atxikipena, eta egindako konturako sarreraren arabera erregularizatuko da.

Hamaikagarrena. (Indargabetuta) ⁴²

Hamabigarrena. 2014ko urtarrilaren 1aren aurretik erabilitako aukerak.

Zergaren foru araua eta erregelamendu honetan jasotakoa aplikatzeko, indarrean jarraitzen dute 2014ko urtarrilaren 1aren aurretik egindako aukera hauek:

1.- Atzera egin ez den zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren aldeko aukera.

⁴² Xedapen iragankor hau abenduaren 29ko 88/2015 Foru Dekretuaren 1. artikulua hiru hirugarren ordinalaren hiru apartatuak indar gabe utzi du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2015-12-30eko GAO).



2.- Beren jarduera ekonomikoen etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatuta zehazten duten zergadunek adierazitako «kobrantzta eta ordainketa» irizpidearen aldeko aukera. Horretarako, «kobrantzta eta ordainketa» irizpidea mantentzeko gutxieneko epea aukera egin izana adierazitako zergalditik aurrera hasiko da.

3.- Errentak nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidean egoztearen aldeko aukera, entitatearen urteko kontuak onartzeko egunari erreparatuz. Horretarako, egozpen araubide hau mantentzeko gutxieneko epea aukera egin izana adierazitako zergalditik aurrera hasiko da.

4.- Epekako edo prezio geroratuko eragiketetan lortutako errenten egozpen proportzionalaren arabeko egozpena.

Hamahirugarrena. Aurreko ekitaldietatik datozen eta 2014ko urtarrilaren 1ean aplikatzeko dauden saldo jakin batzuen aplikazioa.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 67.c) artikuluan (2013ko zergaldiari aplikagarri zaion idazkeran) eta 67. artikuluan beraren b) letran (2012ko abenduaren 31n aplikagarri den idazkeran) aipatutako saldo negatiboa, 2014ko urtarrilaren 1ean konpentsatzeko dagoena, zergaren foru arauaren 65.c) artikuluan jarritako epean konpentsatu ahal izango da, saldoa sortu eta ondorengo zergaldiaren hasieratik aurrera, eta 65.c) artikuluan horretan jarritako baldintzetan.

2. Aurrezpenaren zerga oinarria osatzen duten eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 68. artikuluan (2013ko zergaldiari aplikagarri zaion idazkeran) jasotako etekinak eta ondare irabazi eta galerak integratu eta konpentsatzearen ondorioz ateratzen diren saldo negatiboak, 2014ko urtarrilaren 1ean konpentsatzeko daudenak, zergaren foru arauaren 66. artikuluan jarritako epeetan konpentsatu ahal izango dira, saldoak sortu eta ondorengo zergaldiaren hasieratik aurrera, eta 66. artikuluan horretan jarritako baldintzetan.

3. 2014ko urtarrilaren 1ean konpentsatzeko dauden oinarri likidagarri orokor negatiboak zergaren foru arauaren 68. artikuluan jarritako epean konpentsatu ahal izango dira, oinarriak sortu eta ondorengo zergaldiaren hasieratik aurrera, 67.2 artikuluan jasotakoaren arabera ateratzen diren oinarri likidagarri orokor positiboekin.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *47/2014 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen dituena, eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2015ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena (2014-12-30ko GAO).*
 - 1. artikulua ordinal lehenak hurrengo aldaketak onartu ditu erregelamenduan 2014-01-01etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat apartatuak VI. tituluko II. kapituluko 4. eta 5. sekzioen ordinalak, eta erregelamenduaren aurkibidean horiei dagozkienak, 3. eta 4. ordinalak izatera pasatu ditu.
 - Bi apartatuak 1. artikulua 4. apartatua aldatu du.
 - Hiru apartatuak 16 artikulua b) letra aldatu du.
 - Lau apartatuak 64. artikulua 1. apartatua aldatu du.
 - Bost apartatuak 73.1. artikulua c) letra aldatu du.
 - Sei apartatuak 95. artikulua 2. apartatuko d) letraren 5. zenbakia aldatu du.
 - 1. artikulua ordinal bigarrenak hurrengo aldaketak onartu ditu erregelamenduan 2015-01-01etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat apartatuak 108 artikulua 1 apartatua aldatu du.
 - Bi apartatuak zazpigarren xedapen gehigarria aldatu du.
 - Hiru apartatuak zortzigarren xedapen gehigarria aldatu du.
 - Lau apartatuak bederatzigarren xedapen gehigarria aldatu du.
 - Bost apartatuak hamabigarren xedapen gehigarria indarrrik gabe utzi du.
- *73/2015 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Pertsona Fisikoen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan zenbait atxikipen eta konturako sarrera 2015. urterako aldatzen dituena (2015/07/30ko GAO).*
 - Bere 1. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:



- 108 artikuluko 1. paragrafoa.
- Zazpigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarriak.

- *79/2015 FORU DEKRETUA, irailaren 1ekoa, ondasun higiezin errentamendutik eta azpierrementamendutik eta inber tsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaide tzen eskualdaketa edo itzul ketetatik datozen etekinei aplikatu beharreko atxi kipenak eta konturako sarrerak 2015. urterako alda tzen dituen (2015/09/02ko GAO).*
 - Bere 1. artikuluko erreglamenduaren zortzigarren xedapen gehigarria aldatzen du.

- *88/2015 FORU DEKRETUA, abenduaren 29koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2016an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituen (2015-12-30ko GAO).*
 - *1. artikulua lehen ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu erregalamenduan 2014-01-01etik aurrerako ondorioekin:*
 - 12.1 artikuluko n) letra aldatu eta p) letra gehitu ditu.
 - *1. artikulua bigarrena ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu erregalamenduan 2015-01-01etik aurrerako ondorioekin:*
 - Bat apartatuak 11 artikuluko 2. apartatua ezabatu du, 3. eta 4. apartatuak, hurrenez-hurren, 2. eta 3. apartatu berriak osatzera pasa direlarik.
 - Bi apartatuak 66.2. artikuluko bigarren paragrafoa aldatu du.
 - *1. artikulua hirugarrena ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu erregalamenduan 2016-01-01etik aurrerako ondorioekin:*
 - Bat apartatuak 95.2 artikuluko e) eta f) letrak aldatu ditu.
 - Bi apartatuak 99.2. artikuluko bigarren paragrafoa aldatu du.

- *2016ko abenduaren 20ko 28/2016 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituen, eta ondare elementuen eskualdaketa lortutako errentak bi zerga horietan kalkulatzearren 2017an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituen (2016-12-26ko GAO).*



- *1. artikulua lehen ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu erregalamenduan 2016-01-01etik aurrerako ondorioekin:*
 - Bat apartatuak 7. artikulua berridatzi du.
 - Bi apartatuak 55. artikuluko azken paragrafoa berridatzi du.
 - Hiru apartatuak 90. artikuluko b) letra berridatzi du.
 - Lau apartatuak 125. artikulua berridatzi du.

- *1. artikulua bigarren ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu erregalamenduan 2017-01-01etik aurrerako ondorioekin:*
 - Bat apartatuak 89. artikuluko 8. apartatua artikuluko bereko 10. apartatu bihurtu du, eta artikuluko bi apartatu berri gehitu dizkio, 8.a eta 9.a.
 - Bi apartatuak 91.2 artikuluko r) letra gehitu dio.
 - Hiru apartatuak 92. artikuluko 1. Apartatua berridatzi du.
 - Lau apartatuak 93.1 artikuluko d) letra berridatzi du.
 - Bost apartatuak 93. artikuluko 3. apartatua gehitu dio.
 - Sei apartatuak 95.2 artikuluko g) eta h) letrak gehitzen dizkio.
 - Zazpi apartatuak 97. artikuluko 2. apartatua aldatu eta 3. apartatua gehitzen dio.
 - Zortzi apartatuak 103. artikulua berridatzi du.
 - Bederatzi apartatuak 106. artikuluko 7. apartatua gehitzen dio.
 - Hamar apartatuak 107. artikuluko 3. apartatua gehitzen dio.
 - Hamaika apartatuak 111. artikulua berridatzi du.
 - Hamabi apartatuak 111 bis artikulua gehitu du.
 - Hamahiru apartatuak 117 bis artikulua gehitu du.
 - Hamalau hamabigarren xedapen gehigarria erantsi du.